

Think Gaur Euskadi 2020

EAJ-PNVren konpromisoa euskal gizartearekin



INDICE

1.	Zergatik Think Gaur Euskadi 2020?	3
2.	Prozesua	5
3.	Euskadiko egoera 2008an	10
4.	Nazioarteko joerak 2020ko jokalekurako	15
5.	Gure ikuspegia. Euskadirentzako erronkak 2020rako	31
6.	EAJ-PNVren helburuak Euskadirentzat, 2020rako	40
7.	EAJ-PNVren Gizarte Erantzukizun Korporatiboa eta Gobernantza zuzena	68

The background is a solid yellow color with a complex, abstract pattern of white lines. These lines form various geometric shapes, including triangles, squares, and circles, some of which are overlapping and creating a sense of depth and movement. The overall effect is a vibrant, modern, and somewhat chaotic visual texture.

1. Zergatik Think Gaur Euskadi 2020?

**EAJ-PNVren
Zuzendaritzaren
konpromiso publiko bat**

**Gure helburua
Euskadiko ongizatearen
alde lan egiten jarraitzea
da**

**Europar integratzea
lagungarria izan da gure
garapenarentzat**

**Oraingo erronka
Euskadi mundu mailako
garapenaren erreferente
bezala jartzea da**

**Kontratu sozial berri bat
euskal gizartearekin,
modu irekian eta
gizartearen parte-
hartzearekin gauzatua**

Zer da "Think Gaur Euskadi 2020"? Hasteko, EAJ-PNVko Euzkadi Buru Batzarraren lehendakaritza berriak 2007ko abenduan hartu zuen konpromiso publikoari emandako erantzuna da, antolaketa, ekintza politikoa eta mezua euskal gizartearen garai eta behar berrietara egokitzea zuzendua.

Gure helburua da: ahalik eta ongizate eta garapen mailarik handiena lortzea Euskadirentzat.

Helburua berbera da, aldatzen dena jokalekua da. Orain, bizi dugun jokalekua globala da, eta EAJ-PNVtik globalizazioa "positibatu" nahi dugu, haren aukerak aprobetxatuz eta haren ondorio negatiboak arinduz. Hausnarketa lan zabala behar dugu, Euskadirentzat datozen ondorioei aurrea hartzeko eta estrategia egokiagoak lantzeko, guztion ongizaterantz aurrera egiten jarraitzea xedetzat hartuta.

Orain arte, Europa izan da gure erreferentziazko eredu. Gure "Euskadi – Europa" leloa, Agirre Lehendakariaren belaunalditik zetorrena, ideia baten aurrearia izan zen: Euskadiko etorkizuna europar esparruan erabakitzen da. Ideia hori 1977an ere errepikatu genuen, zeren EAJ-PNV izan baitzen Europar kokatzeko garrantziaz hitz egin zuen lehenengoa.

Europa eraikitzeke proiektuan izan dugun parte-hartzea emankorra izan da. Nahiz eta Estatuak parte-hartze hori mugatu digun maila politikoan, euskal gizarteak bere egin du oso-osorik europar erronka; horri esker, Euskadi kontinenteko gizarte aurreratuenen parean dago gaur egun.

Gero eta globalizatuago dagoen mundu honetan, segundoz segunduz aldatzen den mundu honetan, mugak desagertzen ari direnean, Euskadik beste urrats bat egin behar du aurrera, hazten jarraitzeko. Gaur egun, gure erronka jokaleku global horretan kokatzea da.

Horretarako, gure oraingo egoeraz hausnartu behar dugu, gure etorkizuneko testuinguruaren joera politiko, sozial eta kulturalak ezagutu behar ditugu, gure helburuak definitu behar ditugu, eta baita **gure herria ordena globalizatuan hobeto kokatu ahal izateko euskal gizarteari epe labur, ertain eta luzera egin behar dizkiogun proposamenak ere definitu.**

"Think Gaur Euskadi 2020" izeneko erronkari eta ekintzarako hausnarketa prozesuari modu irekian heldu diogu, hau da, parte hartu dutenak ez dira izan EAJ-PNV osatzen duten edo laguntzen dioten gizon eta emakumeak soilik, baizik eta baita Euskadiko eta nazioarteko pertsona adituak ere, hau da, Euskadi 2020 urtean merezi duen tokian kokatzeko proposamenak dituzten pertsona adituak ere.

Prozesu horren emaitzek konpromiso baten forma hartu dute, **EAJ-PNVk euskal gizarte osoarekin hartzen duen kontratu sozial berri baten forma. Guztion konpromiso bat, Euskadiko garapenaren eta ongizatearen alde.**



2. Prozesua

**Bost lehentasun
estrategiko handiren
inguruan
antolatutako
prozesu bat**

Proposatutako helburuak lortu ahal izateko, “Think Gaur Euskadi 2020” partaidetzazko hausnarketa prozesuak **gizarte irekiaren lehentasunak islatzen dituzten bost alor handien inguruan egituratu ditu bere lanak:**

Berrikuntza (koordinatzailea: Estibaliz Hernáez).

Gizarte Politikak (koordinatzailea: Juan Mari Aburto).

Iraunkortasuna (koordinatzailea: Arantza Tapia).

Kultura (koordinatzailea: Imanol Pradales).

Euskadi-Europa eta Horizonte Konstituzionala (koordinatzailea: Javier Balza).

“Think Gaur Euskadi 2020” prozesuak 2008ko erditik 2009ko urtarrilera arte iraun du. Beraren aurkezpen publikoa ekainaren 14an izan zen, Bilbao Exhibition Centren. Bertan, Euskadiko bazter guztietatik – Iparraldea, Nafarroa, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia- etorritako 14.000 pertsona prest azaldu ziren ibilbide horretan laguntzeko. Horretarako, bertoko adituen ekarpenak, azterketa soziologikoak, nazioarteko esperientziak eta euskal gizartearekiko kontrasteak bildu ditugu.

Prozesu hau guztia web gune espezifiko baten bitartez dinamizatu da: www.thinkgaureuskadi2020.com. Web gune horri esker, “Think Gaur Euskadi 2020” prozesuaren aldeko komunitate birtual oso bat eratu ahal izan dugu, eta horrela erakutsi dugu **teknologia berriak** funtsezko tresna direla gaur egun ekintza politikorako.

“Think Gaur Euskadi 2020” prozesuak espero genuen baino askoz ere parte-hartze handiagoa izan du, eta horrek berriro erakutsi du gure herria gidatzeko EAJ-PNVk duen gaitasuna. Asko eta asko izan dira Euskadiko etorkizunari buruz duten ikuspegia eskaini dutenak. Konprometitutako pertsona horiek beren iritziak, ideiak eta kontaktuak eskaini dizkigute, munduko gauzarik onenak Euskadira ekartzeko. “Globalizazioa positibatzea” errealitatea izan dadin benetan. Pertsona horiei guztiei eskerrak ematen dizkiegu bihotz-bihotzez.

**Bertoko adituak,
azterketa
soziologikoak,
nazioarteko
esperientziak eta
euskal
gizartearekiko
kontrasteak bildu
dituen prozesu bat .**

Parte-hartzea eta informazio publikoa

“Think Gaur Euskadi 2020” partaidetzako hausnarketa prozesurako, bertoko adituen ekarpenak, azterketa soziologikoak, nazioarteko esperientziak eta euskal gizartearekiko kontrasteak bildu ditugu. Gainera, definitutako gai kritikoei buruzko txosten ugari egin dira, eta baita ondorioen dokumentu honen oinarrian dauden hainbat txosten espezifiko ere. Era berean lan prozesu osoan zehar informazioa jakinarazteko ahalegin handia egin izan da.



Azken hilabeteotan egindako hausnarketa zenbait fasetan gauzatu da:

1. Ingurunearen azterketa 2008an: azterketa honen ardatzak **Euskadiko gaur egungo egoera** eta **nazioarteko joerak** izan dira. Era horretan, gure bilakaera zer-nolakoa izan den eta gure ingurune herriekin alderatuta zer moduz gauden aztertu ahal izan dugu. Gainera, munduko joera nagusien azterketa lagungarria izan da mundua norantz doan eta horrek Euskadin zer eragin duen ikusteko.
2. Euskadirentzat 2020rako dugun ikuspegiaren definizioa: abiapuntua ezarri ondoren, **Euskadirentzat 2020rako dugun ikuspegia** definitu da, hau da, 2020an **nola egon/nolakoak izan nahi dugun** eta horretarako zer **balio** behar ditugun definitu da.
3. Euskadik aurrean dituen **erronkak** identifikatu ditugu: planteatutako ikuspegira iritsi ahal izateko, gainditu beharreko **erronkak** zein diren eta haien aurrean zer posiziotan gauden zehaztu behar da.
4. **Jardunbideak eta helmugak ezarri:** Euskadirentzat lehenetsuta duten ekintzen mapa egin eta nazioartean arrakasta izan duten esperientziak bildu ondoren, euskal gizartearentzako proposamenak zehaztu ditugu.

Zein izan da gure bilakaera? Nola gaude gainerako herrien aldean?

ESKADIKO EGOERA 2008AN

Nola egon/izan nahi dugu 2020an?

GURE IKUSPEGIA EUSKADIRENTZAT, 2020RAKO

Zer balio behar ditugu ikuspegi horretara iristeko?

BALIOAK

Zer lortu behar dugu gure ikuspegira iristeko? Nola gaude orain **erronka bakoitzari dagokionez?**

ERRONKAK

Zer **jardunbide** abiatu behar ditugu? Zer **nazioarteko esperientzia** har ditzakegu gidaritzat? Zer **proposamen konkretu** eskain diezazkiokegu euskal gizarteari?

JARDUNBIDEAK ETA HELMUGAK

Norantz doa mundua? Zer eragin dute joera horiek Euskadin?

NAZIOARTEKO JOERA NAGUSIAK

Hausnarketaren eskema

**Think Gaur Euskadi
2020k maila
gorenako
nazioarteko
erakundeen eta
adituen parte-
hartzea izan du**

**Etengabe eguneratu
behar den gizarte
berrikuntzako
prozesu bat**

Parte-hartze aldetik lotutako maila handi-handi horren adierazle batzuk hauexek dira:

75 pertsonak parte hartu dute lan taldeetan

EAJko 130 kargudunek prestakuntza espezifiko jaso dute

Adituen 175 ekarpen jaso ditugu, idatziz eta tailerretan

2.000 pertsonak parte hartu dute prozesuan zehar egindako Topaketa eta Mintegietan

300 hiri-gaztek baino gehiagok parte hartu dute focus groupetan eta oinarriko taldeetan

30 nazioarteko esperientzia: Danimarka, Paris, Erroma, Helsinki (Finlandia), Pensilvania, Washington eta New York Estatu Batuetan, Singapur, India, ...

Gurekin kolaboratu duten erakunde batzuk:

- George Washington Universityko Gerentzia Politikoko Eskola
- Copenhagen Institute for Futures Studies
- Sabino Arana Fundazioa
- Gaia (erronka kulturalen azterketa)
- MIT – Center for Transportation and Logistics (Civil and Environmental Engineering)

Nazioarteko aditu batzuk:

- Soumitra Dutta
- Ranga Rao
- Jon Goicoechea
- Eudald Carbonell
- Fred Salvucci

EAJ-PNVrentzat, "Think Gaur Euskadi 2020" prozesuak berriztatu egin du euskal gizartearekin genuen harreman mota. Horregatik, prozesuak bizirik jarrai dezan nahi dugu. Behatoki hori jardunean mantendu behar dugulako, etengabe **berriztatzeko eta Euskadi egunez egun hobetzera zuzendutako proposamenak eskaintzeko euskal gizarteari.**




3. Euskadiko egoera 2008an

Egoera ona da, oro har, batez ere kontuan hartzen badugu non geunden orain dela 30 urte

Gure gizartearen egoera **ona da, oro har**; beraz, baikortasunez begira dezakegu etorkizunerantz. **Are gehiago kontuan hartzen badugu nondik abiatu ginen orain dela 30 urte, gure autogobernua berreskuratzen hasi ginenean.**

Ondorioz, zalantzarik gabe, esan dezakegu Euskadi munduko abangoardian dagoela herrien garapen ekonomiko iraunkorraren maila islatzen duten adierazle sozioekonomiko nagusi gehienetan. Euskadi **Nazio Batuen Erakundeak prestatzen duen Giza Garapenaren Indizearen hirugarren postuan** dago, Islandia eta Norvegiaren atzean.



Giza Garapenaren Indizea, 2007.
Iturria: Nazio Batuen Erakundearen Garapenerako Programa (PNUD)

... baina badira oraindik ere hobetu behar diren gauza asko

Egoera orokorra ona izan arren –maila horri eusten saiatu behar dugu–, **badira hain positiboak ez diren zenbait eremu. Beraz, eremu horiek landu behar ditugu bereziki Euskadiko 2020ko jokalekuari begira.**

Euskadiko bilakaera oso positiboa izan da azken 30 urteotan

Adierazle nagusiek **oso bilakaera positiboa** islatzen dute:

Per capita BPGa: 1980an 3.132 euro zen; 2007an, berriz, 30.967 euro izatera iritsi da. Gure aberastasun maila bider 9,9 biderkatu da 25 urtean, urtero % 9,2 igo baita batez beste.

Enplegua: 22 urtean, Euskadik 298.900 lanpostu sortu ditu (% 44ko igoera); 1985ean 174.400 langabe zituen, eta kopuru hori 31.400ra jaitsi da 2007an.

Gizarte zerbitzuetako gastua: 1994an 463 milioi euro izatetik 2006an 1.457 milioi euro izatera pasatu da gastua, hau da, 12 urtean bider 3,1 biderkatu da, urtean % 10eko igoera izanik.

Hezkuntza maila: euskal biztanleriaren hezkuntza maila nabarmenki igo da azken bi hamarkadotan, batez ere biztanle gazteen artean. 1986 eta 2001 bitartean, gutxienez lanbide heziketa zuten 35 urtetik beherako pertsonen ehunekoa % 59tik % 80ra pasatu zen.

Ingelesaren ezagutza: 15 urtean, 35 urtetik beherako pertsonen artean, ingelesa ezagutzen zutenen ehunekoa % 40tik % 66ra igo zen.

Euskararen ezagutza: 25 urtean, 1981etik 2006ra, 35 urtetik beherako gazteen artean, euskaldunen edo kuasi-euskaldunen ehunekoa % 38tik % 83ra pasatu da.

... baina joera alda daiteke

Nolanahi ere, badira ekonomiaren bilakaera positibo hori moteldu daitekeela adierazten duten zenbait datu:

Per capita BPGa: 2008 urtearen amaiera oso apala izango da, nazioarteko krisiaren eraginez; hala, 2009ko hazkundera nabarmenki jaitsiko dela aurreikusten da.

Enplegua: 1994az geroztik, biztanleria okupatua jaitsi egingo dela aurreikusten da lehenengo aldiz. Biztanleria aktiboak gora egingo duenez, gertaera horrek langabeziaren igoera nabaria ekar dezake.

Ekonomiaren balaztada horrek, jakina, **ondorioak izango ditu gizartearentzat.**

Euskadi 2008ko nazioarteko testuinguruan

Egoera konparatibo txarra edo hala-holakoa

- ◆ Gure biztanleriaren hazkundera: % 1,7 1996-2006 garaian –EBkoa % 3,7 izan zen-. Europar Batasuneko biztanleriarik zaharrenetako bat dugu, 65 urtetik gorako pertsonak % 18,7 baitira; gure azpitik Alemania eta Italia soilik daude.
- ◆ I+Gko gastua: BPGaren % 1,47 –EBko batezbestekoa % 1,84 da-, nahiz eta azken urteotako hazkundera esanguratsua izan den.
- ◆ Emakumezkoen jarduera tasa: % 60, gutxi gorabehera. EBko batezbestekoaren azpitik (% 63)
- ◆ Berotegi-efektuko gasen igorpenak: EBko batezbestekoa baino % 32 handiagoak.
- ◆ Internet-konexio maila etxeetan: Europako batezbestekoa baino hiru puntu gutxiago (% 51 hemen eta % 54 Europan). Oso urrun gaude Holandako ehunekotik -% 83-.
- ◆ Babes sozialaren per capita gastua: EBko batezbestekoa baino % 7 txikiagoa (5.645 euro 2005ean hemen, eta 6.087 EBn urte berean). Oraindik ere oso urrun gaude Luxenburgotik eta Eskandinaviako herrietatik, bertan 8.000 eurotik gorakoa baita gastu hori.
- ◆ Ospitaleko oheak: EBko batezbestekoa baino % 35 gutxiago.
- ◆ Hezkuntza: PISA txostenaren arabera, euskal ikasleek bizitzarako duten prestakuntza OCDEko batezbestekoaren antzekoa da soilik.
- ◆ Hizkuntzak: oso urrun gaude Europako herri batzuen egoeratik, zeren bertan (Suedian edo Danimarkan, adibidez) biztanleen % 85 baino gehiago gai baita ingelesezko elkarrizketak gauzatzeko.

Egoera konparatibo ona

- ◆ Bizi-itzaropena: gure bizi-itzaropena EBko bizi-itzaropen onenen artean dago; emakumeen kasuan, lehenengo postuan gaude (84,8 urte 2005ean).
- ◆ Per capita barne produktu gordina: EBko batezbestekoa baino % 40,6 handiagoa da. Hirugarren postua, Luxenburgo eta Irlandaren atzetik.
- ◆ Lanaren produktibitatea langile bakoitzeko: EBko batezbestekoa baino % 35,4 handiagoa. Hirugarren postua, Luxenburgo eta Irlandaren atzetik.
- ◆ Langabezia tasa: 2008ko hirugarren hiruhilekoan, Euskadiko langabezia tasa Euro Zonako herrietako tasa baino lau puntu txikiagoa da. Dena dela, egoera horrek okerrera egin dezake datozen hilabeteotan.
- ◆ Zor publikoa: BPGaren % 7,1 soilik; EBko batezbestekoa, berriz, % 58,7 da. Hirugarren postua Estonia eta Luxenburgoren atzetik.
- ◆ Enpresa-inbertsioa: BPGaren % 25,7; EBko batezbestekoa, berriz, % 18,2 da. Hirugarren postua, Letonia eta Estoniaren atzetik.
- ◆ Goi mailako graduatuak zientzia eta teknologian: 2,7 pertsona 100 pertsona bakoitzeko, 20 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean; EBko tasa, berriz, 1,3 da. Lehenengo postua.
- ◆ Ekonomiaren intentsitate energetikoa: bosgarren postua, Danimarka, Irlanda, Austria eta Alemaniaren atzetik. EBko batezbestekoa baino % 13 hobe.

**Bost ondorio nagusi
Euskadik nazioarteko
testuinguruan duen
egoeraz**

- 1 Adierazle ekonomikoak oso positiboak dira, zeren per capita BPGa, enpleguaren sorrera eta enpresa-inbertsioak handiak baitira. Hala eta guztiz ere, hazkundeak bere horretan iraun dezan, I+G+b-aren aldeko apustu sendoa egin behar dugu, zeren oraindik ere urrun baikaude Europako mailetatik, eta are urrunago Estatu Batuetako eta Japoniako mailetatik. Halaber, euskal gizarte osoaren potentziala aprobetxatu behar dugu oso-osorik, eta bereziki euskal emakumeena.
- 2 Oraingo krisi ekonomiko eta finantzario globalak kalte egin diezaioke euskal ekonomiak azken urteotan izan duen joera positiboari. Prest egon behar dugu garai latzei aurre egiteko. Enpleguaren egoera modu larrian okertu daiteke datozen urteotan –gizartea kohesionatzen duen elementua den aldetik, enplegua lehentasunezkoa izan behar da guretzat-: langabeziaren igoerak prestakuntza maila txikiagoa duten pertsonak ukituko ditu bereziki, edo ekonomia berriaren beharretara egokitutako prestakuntzarik ez duten pertsonak.
- 3 Gizarte babesaren azken hiru hamarkadotan nabarmenki igo bada ere, oraindik ere ez da iritsi erreferentziazko herrien mailara. Gure gizarte babesaren sistema hobetzeko beharrak mehatxu larri bat aurki dezake: gure hazkunde demografiko motel eta desorekatua.
- 4 Hezkuntza gure etorkizuneko garapeneraren zutabe bat izan behar da. OCDEko herriekin alderatuta, gure egoera maila ertainekoa da. Gure historiako gazteriarik prestatuena dugu, baina hobera egin behar dugu alor horretako herri aurreratuenen parean jartzeko. Ingelesaren ezagutza maila eskasa kaltegarria izan daiteke gure garapenerako.
- 5 Euskadik lortu du irudi propio bat sortzea nazioarteko testuinguruan. Gure ondare kulturala eta gure balio kolektibo bereiztuak ezagunak dira Europako biztanle askorentzat, eta baita munduko beste eskualde batzuetako biztanleentzat ere. Irudi propio hori elementu lagungarria da gure enpresak munduan kokatzeko.


Hori guztia ETArekin izurria gorabehera; izan ere, bere indarkeriarekin demokraziari erasotzen dio, gure gaitasunak balaztatzen jarraitzen du eta gure nazioarteko posizionamendua ahultzen du.

4. Nazioarteko joerak 2020ko jokalekurako

Joera handiek aldaketak ekarriko dituzte; zalantzarik gabe, aldaketa horiek eragina izango dute euskal gizartean.

Gizarte joera handiez eta haien ondorioez konturatzea aurretiko baldintza da etorkizunak zer ekarri dezakeen ulertzeko. Joera nagusiak (makro-joera) munduko aldaketen motorra dira gaur egun, eta alor guztietan (administratiboa, ekonomikoa, soziala,...) ukituko gaituzte, gutxienez datozen bi hamarkadotan. Seguruenik gertatuko diren aldaketa handiak itxuratzen dituzte. Epe laburrera badira kontra-joerak, makro-joeren ondorioak moteldu edo alderantzikatu ditzaketenak. Nolanahi ere, epe luzera begira, ia ziurra da joera horiek etorkizuneko gertaerak baldintzatuko dituztela.

Zalantzarik gabe, makro-joera horiek guztiek eragina izango dute euskal gizartearen garapenean. Beraz, beharrezkoa zaigu ezagutzea bai euskal gizartearen etorkizuneko erronkak eta bai erronka horiei aurre egiteko EAJ-PNVk egin behar dituen proposamenak, gure helburu nagusia lortzeko: garapena eta ongizatea Euskadirentzat.



1. Globalizazioa

Pertsona, kapital, produktu, zerbitzu, informazio, teknologia eta kulturaren arteko interkonexioa ematen da hiri, nazio eta eskualdeen artean interdependentzia gehiago nabarmentzen dela.

Pertsona, kapital, produktu, zerbitzu, informazio, teknologia eta kulturaren arteko interkonexioaz ari gara globalizazioa definitzen dugunean. Hazkunde oso azkarra izan duen fenomeno batez ari gara.

Nazio, hiri eta enpresen arteko integrazioa eta interdependentziaren gorakada ikusten ari gara ekonomia, politika eta kultura alorretan. Mugimendu askatasun gehiago, produktu, kapital, eskulan, zerbitzu, ezagutza eta baloreen arteko trukaketaren gehikuntza eragiten du honek.

Ondorio orokorrak

- ◆ “Distantziak amaitu egin dira” ondasun eta zerbitzuen hornikuntzari dagokionez. Enpresak sare globaletan eratu daitezke mundu osoan zehar sakabanatutako lehiakortasun zentroen bidez, externalizazio hobe eta merkeago baten arabera.
- ◆ Kontsumitzaile eta eskulanen mugikortasuna gehitzen da.
- ◆ Ohiko ekonomi monopolioen boterea mugatu liteke.
- ◆ Nazio identitatea zabalagoa eta integratzaileagoa da, era berean, jabetza-sentimenduaren aldaketa.
- ◆ Kostu baxuko merkatuetan aktore berriak agertu dira eskulan, produktu eta turismorako.

Joeren aurka

- ◆ Munduko ekonomiaren egungo atzeraldi ekonomikoak jarraituko balu, ekonomia eta politika protekzionismo fenomeno bat eman daiteke epe laburrera.
- ◆ Petrolio gordinaren salneurrien gorakadak edota CO2zko emisio kuoten murriztasunek nazioarteko garraioaren mugimenduak mugatu ditzakete, handitu egingo lirakekeelarik tokiko produkzioaren eta turismoaren lehiakortasuna.
- ◆ Terrorismoa eta gaixotasun epidemikoak hedatzeak eragiten duen beldurrak murrizketak edo oztopoak jarri diezazkiokete mugimenduen askatasunari.
- ◆ Ekonomiari, eskulanari eta nazio kulturei globalizazioak egindakoa mehatxu modura hartzen denean mugimendu isolazionistak ugartu daitezke.

Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ Nazioarteko komunikabideen eraginak kontsumitzaile gisa ditugun ohituren homogenizatzeko handia ondorioztatzen du. Hala ere, erabileren orokortasun honek, halaber, **gure tokiko kulturaren identitatea indartzea** eragin dezake, ezberdintasunaren eta indibidualizazioaren jatorri gisa, larregizko berdintasunaren eta gure berezko kultur erreferenteen balizko galeraren aurrean.
- ◆ Nahiz eta, alde batetik, enpresek **nazioarteko lehiakortasun** gehiago izango duten, beste alde batetik, **euskal enpresek negozio aukera ugariagoak** izango dituzte, merkatu global batean operatuko baitute.
- ◆ Herritarren mugikortasuna hazi egingo dela itxaron behar dugu, heziketa eta lan aukeren bila.
- ◆ **Talentua erakartzea, gureganatzea eta lotzea** izan beharko dira euskal gizartearen lehentasunetako batzuk.

2. Geo-ekonomia berria

Hazkunderako joerak jarraitu egingo du etorkizunean, Asiako herrialdeetan batez ere

XX. mendean zehar, mendebaldeko herrialde gehienek %2aren inguruko hazkunde mailak izan zituzten. Hurrengo mende laurdenaren hazkunderaren aurreikuspenak %1,5-2 inguruetan izango dira, nahiz eta atzeraldi ekonomikoak, meteorologiak eragindako hondamendiek eta gerra gatazkek gelditu egin dezaketen (eta baita irauli ere) hazkunde ekonomikoaren prozesua zenbait epealditan.

Indiak eta Txinak hazkunde maila oso altuak izan dituzte azken hamarkadan zehar, bere hazkunde ekonomiko moteldu egingo dela aurreikusi daitekeen arren, litekeena da zenbait hamarkadetan zehar mendebaldeko herrialdeen hazkunde tasa baino altuagoa izatea, %6aren inguruko baloreetan kokatu daitekeelarik, agian. Halaber, antzeko hazkunde tasak aurreikusten dira Afrikan eta Ekialde Ertainean petrolio gordinaren eta lehengaien salneurrien gehikuntzaren eraginez. Hegoamerikako hazkundera ere nabarmena izan daiteke, bere bi motorren eskutik (Brasil eta Mexiko), nahiz eta neurri handi batean Ameriketako Estatu Batuen eta Kanadaren eboluzio ekonomikoak baldintzatuko duen.

Ondorio orokorrak


- ◆ AEB-k pisu erlatiboa galduko dute ekonomia globalean. Mundu ez hain hegemonikorako trantsizioa.
- ◆ Garapen bidean diren herrialdeen ekonomien hazkunde ekonomikoak lehengaien kontsumoaren gehikuntza eragingo du aipatu herrialdeotan, presio erantsia suposatuko duelarik planetako baliabide eta klimarengan.
- ◆ Hazkunde ekonomikoak, izatez, beste makro-joera batzuk eragiten ditu, hala nola, individualismoa eta desmaterializazioa. Oro har, heziketa eta merkatal mailen gorakadarekin lotzen da hazkunde ekonomiko, nahiz eta zaila den jakitea zeinen ondorio den zein.
- ◆ Nabarmen igoko dira zenbait gastu (esaterako, osasungintzarekin eta auto-errealizazio pertsonalarekin lotura dutenak).
- ◆ Aberastasunaren gehikuntzak bizi-satisfazioarengan izango du bakarrik eragin erlatiboa.

Joeren aurka

- ◆ Hazkunde ekonomikoak gehiegizko presioa eragin dezake ingurumen, azpiegitura eta osasun zerbitzuengan. Egoera honek zergen bidez lortutako diru-sarrerak gaitutuko lituzketen inbertsio publikoak eskatu ditzake.
- ◆ Beroketa globalak eta lehengaien salneurrien igoerak moteldu egin dezakete, eta baita gelditu ere, hazkunde ekonomiko.
- ◆ Kontsumo-joerak aberastasun materialetik aberastasun ez-materialera aldatzen diren neurrian, bizitzaz gehiago gozatzeko lan gutxiago egitea aukeratu dezaketzen pertsonen multzoa sortu daiteke. Aukera honen alde egin duen lagun kopuru nahikoa izanez gero, negatiboki eragin lezake hazkunde ekonomikoan.

Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ Globalizazioak industria arloan eragiten duen ahuleziak murriztu egin dezake Euskadiren hazkunde ekonomiko.
- ◆ Aldaketak azpiegitura sektorialean, **pisu gehiago izango dute sektore sortzaileak edo diseinuari lotutakoak** eta pisu gutxiago manufaktura-industria tradizionalak. Hala ere, "Euskadin egina" zigilua mantendu dadin borrokatu behar dugu, balio erantsi (balio materiala edo ez-materiala) gehiago duten produktuak eskaini behar ditugu xede honekin.
- ◆ **Balio altuko produktu gisa kokatutako euskal produktuak esportatzeko aukerak**, era honetako produktuen eskaera handiago baten aurrean.



3. Merkantilizazioa

Merkantilizazioa handituz doa, hazi den gure indibidualizazioak bultzatuta eta sektore pribatua tradizionaliki sektore publikoari zegozkion alorretan sartu delako

Merkatal negozioen subjektu bihurtzen diren gizarte arloen kopurua handitzen denean ematen da merkantilizazioa. Ez dagokie bakarrik ondasun eta zerbitzu materialei, baizik eta, geroz eta gehiago, balore ez-materialei, hala nola, kultura, iritziak, komunitatea eta politika. Doakoak (edo ia doakoak) izan ohi ziren gauzak edo norberak egin zitzakeenak, produktu eta zerbitzu gisa merkaturatzen dira egun. Hauetariko adibide dira, hala nola, botilako ura, fitness-a edo harreman pertsonaletarako zerbitzuak. Merkantilizazioa hazkunde ekonomikoarekin lotzen da: gure aberastasun maila handitzen denean handitu egiten da, era berean, indibidualizatutako zerbitzu/produktuengatik edo denbora eta ahalegina aurrezten dugutenengatik ordaintzeko dugun prestutasuna.

Merkantilizazioari bide ematen dion beste eragile bat usadiozko zerbitzu publiko askoren erorketa dugu. Ikastetxe, ospitale eta pentsio publikoak ez nahikotzat edo ez eraginkortzat jotzen direnean, lagun ugarik ez dute zalantzarik izaten alternatiba komertzialak ordaintzeko. Lehen publikoak ziren zerbitzu asko, hala nola, trenbideak, posta zerbitzuak eta hirugarren adineko pertsonen zainketa, pribatizatuz edo askatuz doaz, lehiakortasun handiago bati bide eginez, eta finean, merkantilizazioaren gehikuntza eraginez.

Ondorio orokorrak

- ◆ Ordaindutako lana gizarte boluntarioen lana ari da ordezkatzan.
- ◆ Enpresa pribatuen lehia handiagoa jasaten duten erakunde publikoen pribatizazioa handituz doa.
- ◆ Lehiakortasun handiago honen aurrean, erakundeek eta zerbitzu publikoek geroz eta gehiago erabili behar dute publizitatea.
- ◆ Doanekoak izaten ohi ziren baliabideak merkaturatu egiten dira, esaterako, natura, bertako kultura eta osasuna.
- ◆ Aisialdia eta kultura bete-betean sartu dira kontsumoaren eremuan.
- ◆ Enpresek euren produktu eta zerbitzuei balio ez-materialak eranstean saiatzen dira, hala bola, markaren pertsonalizazioa eta diferentziazioa.
- ◆ Jabetza intelektualari dagozkion eskubideak gehiago babesten dira, lege murriztaileagoak egiten dira *copyright* eta patenteetarako.
- ◆ Geroz eta gehiago erabiltzen dira kanpoko adituak.

Joeren aurka

- ◆ Iturri eta edukiak zabaltzearen aldeko mugimenduak doaneko alternatibak eskaintzen ditu merkaturatzen diren produktu eta zerbitzuen ordez, informatizatu daitezkeenean bereziki. Fenomeno honen adierazleak dira, hala nola, software askea, Creative Commons eta Wikipedia.
- ◆ Enpresa Erantzukizun Sozialaren kontzeptua negozioetan etika merkantilizatzeke saiakera lege hartu daitekeen arren, era berean, negozioak dirua irabaztea baino zerbait gehiago direla zabaltzen ari da geroz eta gehiago.

Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ Euskadiko zerbitzu eta erakunde publikoek **Estatuko eta nazioarteko hornitzaile komertzialen lehia handiago** bati egin beharko diote aurre.
- ◆ Euskadiko erabiltzaileek geroz eta gehiago onartuko dute zerbitzu publikoak ko-ordaintzea, hauek gehiago pertsonalizatzea lortzen bada bereziki.
- ◆ Aisialdi eta kultur produktuen eskaera handiagoa.

4. Teknifikazioa

Garapen teknologikoak gizartean eragin asko duten eremu asko hartzen ditu beregain

Hurrengo hamarkadetako garapen teknologikoaren eremu nagusiak bioteknologia, nanoteknologia, teknologia energetikoak eta Informazio eta Komunikazioaren teknologia izango dira. Produktibitatea hobetzeko giltzarriak izaten jarraituko dute errobotikak eta fabrikazio teknologiek. Hurrengo urteetan garapen indartsua izango duen garapen teknologikoaren beste eremu bat garraio inteligentea izango da.

Oro har, bizitza errazago edo beteago egitea du xede teknologiak. Teknologiak ordezkatu edo erraztu egin dezake lan gogor edo aspergarri bat, aukera berriak eskaintzen dizkigu eta oztopoak ezabatzen dizkio informazio eta ideien trukaketari. Hala ere, teknologiak alderdi negatiboak izan ditzake, xede negatiboetarako erabiltzen denean (armagintzarako teknologia, informatika birusak, gozatzeko xedeekin sortutako drogak ...) Halaber, teknologiak eragin sekundarioak edo asmorik gabe ondorioztatzen direnak sortu ditzake, hala nola, kutsadura, beroketa globala eta langabezi estrukturala.

Garapen teknologikoak "arraila digitalera" eraman gaitzake, garatutako gizarteetan zein hauen artean eta garapen bidean diren herrialdeen artean.

Ondorio orokorrak

- ◆ Lan merkatuan moldatzeko beharrezko diren gutxienezko gaitasunak altuago jarriko dira.
- ◆ Mundu birtualen gorakada, bere ekonomia birtualarekin, bere momentuan errealitate birtualak eta errealak bat egingo dutelarik.
- ◆ Amateurismoa: Zenbait zaletuk, teknologia merkeak erabilia, profesionalek egin ohi zituzten eginkizunez arduratuko dira progresiboki.
- ◆ Garapen teknologikoa dugu garapen ekonomikoaren eragile nagusia eskulana, denbora eta baliabideak askatzen baititu baliabide produktibo berriak garatu daitezken.
- ◆ Informatizazioa: Geroz eta handiagoa da eusgarri fisikoa ordezkatzeko duten produktu eta komunikabideek, bertsio digitala ezartzeko.

Joeren aurka

- ◆ Teknologia berriek arbuioa sortu dezakete arrazoi ezberdinengatik, hala nola, aldaketaren aurkako erresistentzia, langabezia handitu daitekeelako beldurra, edo sinesmen etiko edo moralen aurka egin dezakeelako.

Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ Goi mailako trebakuntza, espezializazioa eta goi mailako heziketa duten pertsona sortzaileen eskakizuna handitzeak **talentua mantentzeko eta erakartzeko programak indartzera behartuko gaitu.**
- ◆ **Osasunari ezarritako teknologiak laguntza handia izan daitezke** populazioa zahartzeak ondorioztatzen dituen erronkei aurre egiteko.
- ◆ Informazio *cluster*, parke teknologiko, eta berrikuntza hazitegien sorkuntza bideratzeak ekonomia suspertu dezake eta lagungarri izan daiteke industria sortzaileetan eta jakintzan oinarritutako ekonomia baterako trantsizioan, iraultza kulturalera eraman gaitzaketenak era berean.

5. Jakintzaren gizartea

Jakintza dugu gizarte eta enpresa baten balio nagusia

Lehengaiak, eskulana eta kapitala jo ohi izan dira baliabide ekonomiko garrantzitsuenentzat. Gaur egun geroz eta garrantzi gehiago ematen zaio jakintzari. Informazio eta komunikazio teknologiei eta interneti esker, gehiengoak erraz eta doan eskura dezake jakintza.

Enpresa baten balio nagusiak ez dira bere makinak eta eraikinak, bere langileen talde gaitasunak baino. Era berean, nazio baten baliabide nagusiak ez dira bere laborantza lurrak edo beste baliagai naturalak, bere herritarren gaitasun harmonizatuak baino.

Ondorio orokorrak

- ◆ Handitzen ari den espezialitate eta espezialisten beharrazana.
- ◆ Beste alde batetik, ezagutza orokorrak dituzten pertsonen beharra dago jakintzaren esparru zabal bat gainbegiratu dezaten, eta halaber, jakintzak uztartu eta espezialitate gama zabal baten pertsonak zuzendu.
- ◆ Jakintzak azkarrago zahartzeko joera du, eta baliabide ugari erabili behar dira ezagutzak gaurkotzeko. Ezin da bizitzaren hastapeneko epe batera heziketa mugatu, bizitzan zehar garatu beharra dago (etengabeko heziketa).
- ◆ Jakintzaren “demokratizazioak” boteretik dagoen distantzia hierarkikoa gutxitzen du.

Joeren aurka

- ◆ Aurkikuntza berrien gogo bizia eta hauen gainean ematen diren eztabaida irekiak erlijio eta beste era batzuetako dogmatismoetarako hazitegia dira.
- ◆ Jakintzaren multzoa hazten den heinean, ezagutzak eranstea dagoen jakintza aztertu bide berrietan erabiltzea baino garrantzi gutxiago izango du. Fenomeno honek trantsizio bat eragin lezake Jakintzan Gizartetik Sormenaren Gizartera.

Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ **Euskadiko gizarteak erabaki publikoen gaineko gardentasun eta publizitate gehiago eskatuko du.** Agintariak euren erabakien erantzukizuna hartu beharko dute beregain eta hartu behar duten jakintzaren arabera oinarrituta .
- ◆ **Adin oso goiztiar batetik barneratu beharko dira heziketa sisteman jakintzak aurkitu, aztertu, ebaluatu eta garatzeko tresnak.** Orotariko tresnek zahartzeko eta zaharkituak geratzeko aukera gutxiago dute jakintza espezifikoak baino.
- ◆ Euskadiko zerbitzu eta produktuek geroz eta lehia gehiago aurkituko dute interneten aurkitu daitezkeen alternatiben partetik, nahiz eta aldi berean aukera berriez gozatu duten.

6. Partaidetza demokratikoa

Geroz eta demokratizazio eta gardentasun gehiago aukera berdintasuna eskaintzen duten gizarteetan eta herritarren partaidetzak gora egiten duen tokietan

Demokratizazioaz ari garenean, funtsean, pertsonen botere politiko, ekonomiko eta kultur gehiago emateaz ari gara, eta halaber, gutxiengoaren gaineko tolerantzia eta onarpena handitzeaz, era honetan, demokrazia ez da gutxiengoaren diktadura bilakatuko. Demokratizazioak ez du esan nahi pertsona guztiak berdinak direnik, guztiak aukera berdinak dituztela baizik. Geroz eta gehiago dira eskubide demokratikoak dituzten herrialdeak, pertsonen eskubideak erdiesten dituzten herrialdeak, hala nola, bere pertsonal eta lan bizitzaren gainean kontrol gehiago edukitzea. Internetek software askea eta artxiboen trukatzeko programak eskaintzen ditu, kostu altuko produktu eta merkatal zerbitzuen alternatiba bilakatu, pertsonen boterea areagotzen dela. Liberalizazioak gobernuak ezarritako murrizketatik enpresak aske uzten dituen bitartean, gobernuak eta enpresek ezarritako murrizketatik salbuesten ditu pertsonak demokratizazioak. Horrela bada, demokratizazioak merkaturako indarrak arautzea eragin dezake demokratizazioak trust eta monopolioak agertu ez daitezela, eta era berean, gobernu eta korporazioetan hartzen diren erabakiak gardentasunez hartu daitezela. Demokratizazioak, halaber, pertsona guztientzako aukera berdintasuna esan nahi du, doaneko heziketa eta osasun zerbitzuak eta kalitatezkoak eskaintzen dituen gizarte sistema batean errazago lortu daitekeen egoera.

Testuinguru honetan, herritarren partaidetza handiago baten eskaera emango da Ordezkapenaren Demokrazia soilaz haratago. Herritarrek euren iritzia agertu nahi izango dituzte bere gizartearen erronken aurrean, eta administrazioek partaidetza hau sustatzeko mekanismoak jarri beharko dituzte, Partaidetzaren Demokraziara eramanago gaituena.

Ondorio orokorrak

- ◆ Pertsonen eta gutxiengoaren botere gehiago izango dute.
- ◆ Lege eta araudi murriztaileen aurkako protestak izango dira, pertsona bakoitzaren erabakitze gaitasun askearen eta bizitzeko moduaren mugaketak direla jotzen denean, guztien ongizatean eragingo lukeen inongo kontra-partida proportzionalik gabe.
- ◆ Konfiantza eta errespetu gutxiago agintariengan, bereziki helduezinak diren botere ekonomiko, erlijio eta politikoengan.
- ◆ Erabaki publikoetan demokrazia zuzen eta gardentasun gehiago.

Joeren aurka

- ◆ Polarizazio ekonomikorako joerak mehatxatu egiten ditu demokratizazio prozesuak, gizarte eta kultur berdintasun eza erakusten duen eskenatoki batera eramaten duenena bereziki.
- ◆ Merkantilizazioa eragiten duen makro-joerak demokratizazioaren aurka egin dezake, pribatizazioek maiz ezabatzen baitituzte erakundearen kontrol demokratikoa.
- ◆ Herrialde askotan, terrorismoak askatasun zibilen gaineko murrizketak ezartzea eragin du eta gutxiengoaren gaineko portaera mesfidatia.
- ◆ Korporazio multinazionalen nazioen beste botere izan dezakete, baina ez dihardute kontrol demokratiko baten menpe.
- ◆ Ekintza positiboa, berdintasun ezak borrokatze ezartzen direnak, aukera berdintasun ezaren arrazoiak izan daitezke.

Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ Pertsona sortzaileek, etorkizuneko ekonomian hain garrantzitsuak izango direnak, gutxiengoaren eta bizitza era originalak dituztenenganako erakarpena sentitzen dute. Horrela bada, **Euskadin tolerantzia eta aniztasuna sustatzea eragile kritikoa izan daiteke etorkizuneko garapen ziurtatu dadin.**
- ◆ **Euskadin bortizkeriaren bideak sostenguak galtzen jarraituko dute eta gizarteak geroz eta gehiago arbuatuko ditu.**
- ◆ Oinarri ideologikoen galera pixkanaka.
- ◆ **Partaidetza bideratuko duten mekanismoak ezartzeko beharrezkoak dago Euskadiko gizartearen, aipatu gizartearen eraikitze lanetan.**

7. Indibidualizazioa

Pertsonak espazioa eskatzen dute euren aukeraketa egin ahal izateko, partaide izan nahi duten komunitateen aukeraketa barne

Gizabanakoa muga eta oztopo natura eta kulturaletatik etengabe aske izatea da indibidualizazioa, gizartearen modernizazioari esker gauzatzen dena. Pertsonak ez dira gehiago behartuta - eta oso arraroa da haietatik espero izatea – euren nagusien karrera profesional, erlijio edo ideologia politikoa aukeratzera. Egun, identitate pertsonala gehiago da pertsonen aukeraketen emaitza kanpoko eraginena baino.

Indibidualizazioa areagotu izana gizabanako modura adierazteko beharizan pertsonal baten ondorioa da, eta gainera, askatasun indibidualerako inguru egokiago bat ematen dela. Mendebaldeko gizartean bizi diren pertsonak geroz eta gehiago balioztatzen dute auto-errealizazioa jabetza sentimenduaren kaltetan. Honek ez du esan nahi pertsona indibidualistek ez dutela komunitate baten partaide izan nahi, baizik eta bere aukeraketa propioak egiten dituztela zein komunitate edo komunitateetako kide izan nahi duten erabakitzerakoan. Handituz doan interdependentzia ekonomikoak ere bide ematen dio pentsamendu, estilo eta kultura interdependentziari. Iraganean, indibidualismoak ostrazismoan geratzeko arriskua erakartzen zuen; gaur egun geroz eta inportanteagoa da gizabanako independente modura “marka” bat sortzea.

Nahiz eta oro har indibidualizazioa askatasun gehiagoren jatorria izan den, “aukeraketaren tirania” eragin du baita ere. Gaur egun, norbanakoak aukeratu behar du zer izan, zer egin, zer adierazi, zein itxura eman, eta honez gain, kide izan nahi dituen pertsonak, kulturak eta ideiak edo euren bazkide egin. Ez baldin baditu aukeraketa hauek egiten, zentzurik gabeko gizarte sarerik gabeko ez-entitate bihurtuko da.

Ondorio orokorrak

- ◆ Langileek arazo gutxiago izango dituzte enpresaren marka eta kultura bereganatzeko, eta gehiago ahaleginduko dira enpresa euren berezko “marka” pertsonal gisa erabiltzeko.
- ◆ Erakunde kolektiboek desgastea jasango dute, hala nola, sindikatuek, alderdi politikoek, eraturako erlijioek, familia nuklearrek eta tokiko komunitateek, sare informal eta pertsonalizatuen onurarako.
- ◆ Errespetu eta dependentsia gutxiago agintariengan; konfiantza gehiago auto-pertsonal eta sare sozial propioetan.

Joeren aurka

- ◆ Erradikaltasun politikoak, erlijioaren berpizkundeak eta gutxiengoenganako ostrazismoaren mota berriek gorantz egin izanak geldiarazi egin dezakete indibidualizazioa.
- ◆ Krisialdi ekonomikoek, sarritan, indartu egiten dituzte tradizioak eta pertsonak modu berberean pentsaraztea eragiten dute.
- ◆ Askatasun indibiduala mugatu egin daiteke ongizate kolektiboaren izenean (horrela gertatzen da baita ere leku publikoetan erretzea debekatzen denean edo zergak igotzen direnean gizarte edo heziketa zerbitzuak finantzatzeko)

Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ Euskal **identitate eta kultura** kontzeptuek rol garrantzitsua betetzen jarraituko dute pertsonen gizabanako identitatearen parte gisa, eta sentimendu indartsuak erakutsiko dituzte kontzeptuoi dagokienez.
- ◆ Zerbitzu publikoak indibidualizatzeko eskaera handitu egingo da, osasun zerbitzuak eta hirugarren adineko pertsonen zainketak barne.
- ◆ Kausa ezberdinak defendatzeko xedez, gorantz egingo dute interes talde txikiak.
- ◆ Familiek menpekotasun gehiago erakutsiko dute independentzia indibidualaren beharizan gehiago izango delako.

8. Desmaterializazioa

Balore berrien bilaketa fisikoaz edo ekonomiaz haratago

Mendebaldeko gizarteek aberatsago egiten diren neurrian, beharizan materialak beteta izatea ziurtzat jotzen da. Era honetan, aldaketa bat eman da eta balore ez-materialetan zentratu da arreta-gunea, sarritan, baliabide gehiago erabiltzen direlarik ondasun ez-materialentzako ondasun fisikoetarako baino. Produktuen ezaugarri sentsual, etiko eta estetikoaren gaineko interesean gauzatu daiteke desmaterializazioa, eta era berean, historia interesgarriak dituzten produktu bakarrak baloratzeko joera, ezaugarri fisiko hobekak dituzten seriean fabrikatutako produktuen kaltetan.

Balore ez-materialek ere eragina dute politikan eta lan merkatuan. Politikan, balore nazionalak eta etnikoak gai ekonomikoak eta azpiegiturakoak baino garrantzi handiagoa izaten dute maiz. Langileek ez dute soldata hobekak kobratzeko interesa besterik, geroz eta arreta gehiago jartzen dute euren enpleguak zentzua izan dezan, zirrargarria eta etikoa izan dadin. Inkestek behin eta berriro erakusten dute lanean diharduten pertsonen gehiengoak zentzua duen lan bat aukeratzeko lukeela, diru sarrera gehiago emango liokeena baino.

Ondorio orokorrak

- ◆ Markek kalitate-zigilua izaten ziren, egun gehiago dira balore ez-materialen ikur bat. Sarritan, produktua baino zerbait inportanteagoa bilakatu da marka, eta enpresako produktu nagusiekin loturik ez duten produktuak saltzeko erabiltzen dira.
- ◆ “Esperientziaren industriak” – komunikazio enpresak, bizitza estilorako produktuak, turismoa, kirolak, jokoak eta kultura biltzen dituenak - ekonomia orokorra baino gehiago hazteko joera erakusten du. Jokoen industriak, bereziki, hazkunde maila oso altuak erakusten ditu.
- ◆ Garrantzia handiagoa ematen zaio balore kateari: produktu bat egiterakoan ingurumena errespetatu ote den, azpikontratutako enpresak edo pertsonak bidezko tratua eta soldata jasotzen duten, enpresak Enpresa Erantzukizun Soziala burutzen duen, etab.

Joeren aurka

- ◆ Kontsumitzaileek era negatiboan erantzun dute faltsutzat edo ez hain benetakotzat jotzen badituzte produktu edo zerbitzu bati lotzen zaizkion baloreak eta esperientziak. Gauza berbera gertatu daiteke produktu bat larri erakusten denean edo honen gaineko publizitatea iruzurtzat jotzen denean. Esperientziak edo kontsumitzaileen emozioetara jotzeko gogorik gabeko saiakerak ezer ere ez egiteak baino emaitza txarragoak izan ditzake.
- ◆ “Oinarriko kontzeptuetara itzultzeko” joera bat ematen da, ezaugarri praktikoetan eta neurgarrietan kokatzen du interesa alderdi ez-materialen kaltetan. Marka baten sorkuntzan zentratzen diren enpresek nolabaiteko arduragabekieraz, bere produktuen ezaugarri fisikoei dagokienez, jokatu dutelakoaren isla izan daiteke joera hau.

Ondorioak Euskadirentzat


- ◆ Produktuak lantzen dituzten industriek gehiago **zentratu beharko lukete bere interesa hauen ezaugarri ez-materialetan**, baina ez, materialen kalitate estandarrak gutxitzearen kontura.
- ◆ Turismo industria esperientziaduna eta sortzailea hazi dadin beharrezko oinarriak ematen dira.
- ◆ Azpiegitura “bereziak” sortzeko jarraituko du laguntzen marka irudi baten sormenean. Eskualde edo hiri baten erakargarritasuna handitu dezakeen eraikin bakar eta kalitate altuko eredu dugu Guggenheim-Bilbao.
- ◆ **Ekonomia sortzaileak** pisu ekonomiko eta sozial handiko sektore bilakatzeko aukera izango du Euskadin .

9. Aldaketa demografikoa

Demografia piramidea alderantziz jarriko da populazioak zahartzeko duen joerarekin eta inmigrazioak pisu handiagoa hartzen duela

Maila globalean, demografia piramidea alderantziz jartzen ari dela ikusten ari gara. Bi eragilek eragiten dute joera hau: jaiotza-tasaren beherakada eta bizitza itxaropenaren gehikuntza. Zahartzeko joera nabarmen ematen da mendebaldean, baina hedatzen hasia da garapen bidean diren herrialdeetan ere. XX. mendearen erdialdean, lehen mailako arazotzat jotzen zen populazioaren hazkundea. Gaur egun, gehiago arduratzen gaituzte populazioa zahartzeak eta gertakari honek etorkizunean eragingo duen eskulan eskasiak. Munduko populazioaren batez-besteko adina 24 urtekoa zen 1950 urtean, baina 38ra iristea espero da (47 Europan) 2050 urtean.

Garatutako herrialdeen populazioaren ia %10 bizi den herrialdea ez den beste batean jaio da, eta zenbait erresistentzia izan arren, etorkizunean inmigrazioa hazi egingo dela aurreikusten da.



Ondorio orokorrak

- ◆ Populazioa zahartzeak dependentzia tasaren igoera eragiten du, eta beraz, jaitsi egingo da lanean den pertsona kopurua jubilatutako pertsona bakoitzeko.
- ◆ Pertsona gazteen kopuruaren jaitsierak handitu egingo du eskulan gaztearen eskaera. Egoera honek zaildu egingo ditu kontratazioak, estatus baxuko eta soldata gutxiko kasuan bereziki, eskulanaren eskaera igoera handia aurreikusten duen sektorean populazioaren zahartzea dela eta.
- ◆ Botoa ematen dutenen zahartzeak kontserbadorismoa areagotu dezake politikan, kontsumoan eta ikerkuntza publikoan.
- ◆ Inmigratioaren gorakadak gutxiengoak handitu eta identitate nazionalak gainbehera egingo dutela eragingo dute.
- ◆ Urbanizazioak handitu egingo ditu azpiegituraren beharrianak metropolietan, eta hauen artean, hauetatik kanpo geratzen diren eskualdeen despopulazioa.

Joeren aurka

- ◆ Bizitza itxaropena igotzeak populazio aktiboaren adinaren antzeko gorakada islatzen du. Litekeena da etorkizuneko hirugarren adineneko pertsonak (heziketa maila altuagoa dutenak bereziki) denbora gehiago ematea lan merkatuaren barruan.
- ◆ Epe luzera begira, jaiotza-tasaren gehikuntzarako politikek (haurrak zaintzeko zerbitzuen hobekuntza, amatasun baxak edo laguntza ekonomikoak) gutxitu egin dezakete zahartzearen ondorio negatiboak, baina, epe laburrera, dependentzia mailak igo ditzakete, lanean ari diren pertsonak oso gazteak direnen eta adinean asko sartutakoaren sostengu direnean.
- ◆ Esaterako, Asia, Afrika eta Ekialdeko Europatik datozen langile gazteen inmigratioak konpentsatu egin dezake Mendebaldeko Europako jaiotza kopurua.

Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ Euskadiko egungo jaiotza-tasa Europako baxuenen artean aurkitzen da, berriz, bere bizitza itxaropena altuenen artean kokatzen da. **Populazioaren zahartze joera honen aurrean bereziki ahul egiten du egoera honek Euskadi.**
- ◆ Egun, Euskadik ez du inmigratio fluxuak arautzeko eskumenik, Estatuari baitagokio aipatu eskumena. Hala ere, eta Europako Batasunak pertsonen eta eskulanaren zirkulazio askea laguntzen duenez, litekeena da Euskadik borrokatu behar izatea EB-ko beste herrialde batzuetatik **ekartzeko eskulan gaztea eta espezializatua**, esaterako, Irlandak egin duen modura.

10. Osasunaren rol berria

Osasunak hartuko ditu baliabide inbertsio geroz eta gehiago, osasuntsu egotearen gaineko kontzeptu zabalago batekin

Geroz eta baliabide gehiago inbertitzen dira, pertsonalak zein publikoak, osasunean. Badira zenbait arrazoi honetako:

- ◆ Aberastasun maila handitzerakoan, baliabide gehiago erabili ditzakegu egoera osasungarrian mantentzeko.
- ◆ Baldintza ekonomikoen hobekuntza eta desgaste fisiko handia eskatzen zuten lanpostuen automatizazioak handitu egin dituzte gure bizitza-moduari lotutako gaixotasunak, hala nola, gizentasuna, janariak jateko gehiegikeriak, droga gehiegi hartu etab. OMEren kalkuluen arabera, 2020an osasun-sektorearen gastuen %70 gure bizimoduarekin lotutako gaixotasunei aurre egiteko erabiliko dira.
- ◆ Medikuntzako teknologiak hobetzen diren neurrian, geroz eta gehiegikeria kopuru handiagoa eta tratatzeko gai diren gaixotasunak agertzen dira, eta honen ondorioz, herritarrek aipatu tratamenduak eskatuko ditu hauen kostua kontutan hartu gabe.

Gaur egun, gaixotasunak ez izatea baino zerbait gehiago da osasuna; bizitasuna, energia, oreka eta norberaren bizitzaren gaineko kontrola izatea, fisikoa zein mentala, barneratzen duen kontzeptu positiboa bilakatu da osasuna. Etorkizunean, gure osasuna artifizialki hobetzea normala den egoera batean izan gaitzke, eta botikek, kirurgia eta terapia genetikoek giza arrazaren muga naturalak gainditzeko gaituko gaituzte. Goitik ez da existitzen osasunaren kontzeptu zabal hau mugatuko dezakeenik, beraz, geroz eta handiagoa da kontzeptu honi zuzendutako baliabideen sortaren handiena.

Ondorio orokorrak

- ◆ Lantokiak bermatuko lukeen onuratzat jotzen da gero eta maizago, hala nola, gimnasio, janari osasungarriak dituzten kafetegi, eta tabakoaren aurkako politiken bidez.
- ◆ Osasun-sektorearen gastuek geroz eta karga handiagoa dira herrialdeen aurrekontuetarako, pertsona adinduen kopurua handitzen den neurrian bereziki.
- ◆ Estresa bilakatzen ari da behin-behineko ez gaitasunak eragindako bajen ohiko arrazoia.
- ◆ Geroz eta arreta gehiago ematen zaio norbanakoentzako konponbide genetikoei, esaterako, profil genetiko pertsonalak.

Joeren aurka

- ◆ Forman diren pertsonen eta ez direnen arteko polarizazioa geroz eta handiagoa da. Gertakizun honek osasun gutxiago dutenak sozialki laidoztatzea eragin dezake, borondate faltaren eta zenbait okerreko erabakien ondorioz jotzen baita osasun txarra.
- ◆ Lanean ari den populazioa gutxitzeak lan karga gehiago suposatu diezaike pertsonari, era berean, osasuna kaltetzea eragin dezakeelarik.

Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ **Osasun gastu publikoaren gehikuntza** populazioa zahartu egiten delako eta ez hain osasungarriak diren bizimoduek eragindako gaixotasunak direla eta.
- ◆ Epe luzera, ohitura osasungarriak **sustatzeko kanpainetan eta heziketan** egindako inbertsioek gutxitu egin ditzakete aipatu gastuak.

11. Polarizazioa

Gizartearen alderdi ugariatan ematen da polarizazioa

Guztien kontura muturrak hazi egiten direnean ematen da polarizazioa. Gizarte modernoetan polarizazio mota ugari aurkitzen ditugu:

- ◆ **Politika:** muturreko talde politikoek hazten direnean eta iritziak edota botoak elementu komun gutxi dituzten bi hegalen artean banatzen direnean.
- ◆ **Arraza:** arraza gutxiengoak ez direnean integratzen edota handitu egiten denean bazterketa maila.
- ◆ **Erlijosoa/kulturala:** gizarte bateko erlijio edo kultur taldeek era bortitzean aurka egiten dutenean politikaren esparruan.
- ◆ **Jeneroa:** emakume eta gizonen arteko eskubide eta aukeren arteko (formalak edo informalak) desberdintasuna handitzen denean.
- ◆ **Ekonomikoa:** diru-sarrera edota aberastasunaren arteko desberdintasuna handitzen denean.
- ◆ **Osasuna:** osasun onaren edo txarraren mailen gehikuntza ezberdina denean.
- ◆ **Urbanizazioa:** hirietako populazioa hirikoak ez diren zonaldeen kontura hazten direnean.
- ◆ **Kontsumoa:** luxuzko produktuen eta eskaintzan diren produktuen kontsumoa handitzen denean salneurri eta kalitate arrunteko produktuen kaltetan.

Ondorio orokorrak

- ◆ Polarizazioaren gorakadak pertsona bakar batzuk bakarrik izango direla hazkunde ekonomikoaren onuradun adierazi dezake, honek gizartearengan eragiten dituen ondorio positiboak gutxituko ditu. Joera honek mehatxatu egiten du gizarte kohesioa eta ekonomia ezegonkor eta murgildutakoak ugaritzea eragin dezake.
- ◆ Polarizazio ekonomikoak gizarte ondasunaren garapen negatiboa ondorioztatu dezake; hau da, prestakuntza gutxiko pertsonen seme-alabek aukera gutxiago izatea eta heziketa egokirik ez izatea.
- ◆ Urbanizazioaren gehikuntza hiri azpiegiturak gain zamatuz ditzake eta biolentzia, hondakin eta kutsadura arazoak sortu. Oro har, hirietara lekuz aldatzen diren pertsonak gazteak direnez, biztanleria landatarraren zahartze latza eragin dezake baita ere.
- ◆ Familia, asoziazionismoa eta gizarte laguntzaren baloreak ahuldu egingo dira.

Joeren aurka

- ◆ Polarizazio ekonomikorako joera globala ematen dela egia izan arren, ez da ahaztu behar herrialdeen arteko berdintasun ekonomikoaren aldeko mugimendu bat dagoela, garapen bidean diren herrialdeek garatutako herrialdeek baino hazkunde tasa handiagoak izateko joera dutelako.
- ◆ Ordenagailu merkeek eta interneterako konexio merkeek (edo doanekoek), eta halaber software askeak eta eduki irekiek jakintzaren gizartera sartzeko baliabideen eskakizuna gutxitzen dute, polarizazio ekonomikoaren ondorioak gutxiagotuz.
- ◆ Komunikazioaren teknologiek albisteak, ezagutzak eta kultura hedatzera laguntzen dute, isolazionismo kulturalari eta politikoari aurre eginez.

Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ Polarizazio ekonomikoaren gehikuntzak (adibidez, etorkinen eskulan merkea sartzen delako) mehatxatu egin dezake gure gizarte kohesioa.
- ◆ Orokorrean, soldata altuetan ematen den desberdintasunak zergen bidez finantzatutako berdintasunezko zerbitzuak pertsona guztiei eskaintzen dizkien ongizatearen estatuaren aldeko laguntza gutxiago eragiten du.
- ◆ Laikotasun eta erlijiotasunaren arteko polarizazioak ezinegon gehiago eragin dezake erlijioaren garrantziaren galeraren aurrean, tradizionalki erreferentzia gunea izan dena.
- ◆ Inmigrazioaren gehikuntzak, ez baitu izan etorkinak integratzeko ahalegin proportzionalik, arraza, erlijio eta kultur polarizazio egoera eragin dezake.
- ◆ **Familiaren berezko balioa mantendu behar dugu** Euskadiko gizartean.

12. Hiri kontzentrazioa

Hiri handiak gure habitat nagusi ari dira bilakatzen, XXI mendeko erronka garrantzitsuenetariko bat delarik

Hirien munduak, hau da hiriak, mundu mailako erronka bat dugu, hazkunde etengabea jasaten duelako. 1.900 urtean munduko populazioaren %10 besterik ez zen hirietan bizi, 2.030rako 5.000 milioi biztanle hirietan biziko direla aurreikusten da, osotara 8.000 izango direlarik.

Neurri handian, bizitza kalitatea hobetzeko bilaketak eragiten du hau. Horrela, heziketa, osasuna, hobeto ordaindutako lan, kultura eta aisialdirako gune gisa ikusten dira hiriak. Kultur aniztasun gehiena biltzen dute, sormena, gizarte sare eta hiritarren partaidetzaren garapenerako giltzarri.

Hiri-desafioa aurrekaririk gabeko erronka izango du XXI mendeko gizarteak, ingurumenarekin eta epe luzerako gizarte eta ekonomia bideragarritasunarekin lotutako arazoei egin behar izango baitie aurre. Urbanizazioa eta jasangarritasuna bateratu beharko dira.

Ondorio orokorrak

- ◆ Hirietako populazioaren igoerak dagokion azpiegitura, zerbitzu eta etxebizitzaren hazkunderarekin joan beharko luke lotuta.
- ◆ Urbanizazioak ondorio ez desiratuak eragin ditzake, hala nola, kutsadura atmosferikoa, *ghetho* edo ez legezko asentamendu modura garatutako auzo periferikoen sorkuntza, laborantza lur emankorrenen suntsiketa, hondakin kopuru handien sorkuntza, baliabide energetikoen gehiegizko kontsumoa, arnasketari dagozkion gaixotasunak agertzen direla, alergiak, estresa, etab.
- ◆ Hirietan erabakiko da gizatasunaren patua eta bertan erabakiko da biosferaren etorkizuna. Ez da mundu jasangarririk izango hiri jasangarririk gabe.
- ◆ Urbanizazioak estrategia eta politika publikoen koordinazioa eskatzen ditu lurraldearen planifikazioari honako kontzeptuok erantsi ahal izateko: garapen jasangarria, aldaketa klimatikoa, mugikortasuna, irisgarritasuna, paisaia, birziklatze sarea edo ekonomia sortzailerako espazioen garapena.

Joeren aurka

- ◆ Hiriguneak izan dira hazkunde ekonomikoaren eragileak eta zibilizazioaren sorlekuak, baina masifikazioak, zaratak, hondakinek etab. mehatxatutako toki bilakatu dira.
- ◆ Auzo marjinaletan naturarekin ematen den deskonexioa, oztopo arkitektonikoak, arriskua duten zonaldeetan etxebizitzak eraikitzea pobrezia poltsak sortzen ditu hondamendietan izaten den segurtasun eza dela eta, ingurumenaren degradazioa eta berdintasun eza.
- ◆ Landa garapena eta “*slow*” mugimenduek, esaterako “*Slow Cities Sarea*”, gehiegizko hiri garapenarekin bateraezina den bizimodua sustatzen dute.
- ◆ Giza aztarna eta espazio fisikoaren okupazioa gutxitzeko eskaera handiagoa.

Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ Hirietan energia xahutu ez dadin eta kutsadura gutxitzeko alternatibak gehitu behar dira .
- ◆ **Partaidetza, sormena eta kultur aniztasunaren gozamenerako foroen eraketa.**
- ◆ Etxebizitza egokia sustatzea pertsona guztientzako eta ingurumen osasungarria eta segurua. Honetarako beharrezkoa da arreta berezia eskaintzea eraikuntza ekologikoari, eraikuntza tradizionalaren ezaugarrien azterketan oinarrituta: norabide egokiarekin eta material teknologikoak erabiltzea (isolamendu egokiak eta eguzki panelak), ura profitatzeko teknikak gutxienezko erasanarekin, lekua errespetatuz, sarbideak zainduz etab.
- ◆ **Eko-hiri edo ekologiarren hiria** kontzeptua ezartzea auzoak eraikitzerakoan.
- ◆ “**Euskal Hiria**” kontzeptuaren garapena, hiria bizikidetzaren paradigma bihurtu dadin. Gizarte eta politika eremu gisa, hiria da hurbiltasunezko demokrazia baterako baldintzak ematen diren eremua.
- ◆ Garapen eta hazkunde plangintzak berraztertzeko beharrezana, giza aztarna gutxituz.

13. Denbora pertsonala baloratzea

Egungo ongizatearen gizarteek pertsonen auto-errealizazioa bilatzen dute

Ongizatearen gizarteak, bizitza kalitate hobea baten bila, pertsonak gizaki gisa nabarmentzen ditu. Pertsonak “ekoizteko” duten gaitasunaz gain, garapen ekonomikoan parte hartzen duten eragile gisa, azken urteotan, geroz eta arreta handiagoa eskaintzen zaio pertsonen giza dimentsioari.

Sarritan alde batera uzten da esparru hau, abiadura oso bizkorrean ematen baitira aldaketa sozialak, eta ez dute espaziorik uzten bakoitzak bere denbora izan dezan. Gizakiaren alderdia baloratzeko beharrian honek pertsonen auto-errealizazioaren garapena du berekin.

Ondorio orokorrak

- ◆ Gizakiaren lehenetsuneko xedea errealizazio pertsonala dela, izatea eta ez edukitzea, defendatzen duten gizarte mugimenduen agerpena. Horrela bada, “kontrakorrante” diren mugimenduak agertzen dira, hala nola, “slow food” janaria eta “slow cities” hiriak, alderdi humanistetan zentratuak eta alde batera uzten dutela garapen sozio-ekonomikoaren alderdi ekonomikoa.
- ◆ Enfasi gehiago ematen zaio lan eta familia bizitza bateratzeari, pertsona bakoitzak bere jardueraren parte bat esparru pribatuago bati eskaintzeko duen beharrian gisa.
- ◆ Aisialdiak geroz eta garrantzi gehiago hartu du gure eguneroko bizitzan, eta honi esker gure jarduera profesionalean lar lekurik ez duten gaitasunak erabiltzen dira.
- ◆ Kultura kontzeptu tradizionalaren aldaketa.

Joeren aurka

- ◆ Aldaketa sozialen abiadurak ahalik eta azkarren hauetara egokitzea bultzatzen gaitu, oso azkar bizitzera eramaten gaituela, dugun aisialdiaren ordainetan.
- ◆ Teknologien aurrerapenak gai kopuru handi bati berehala erantzuteko gaitasun handiagoan du eragina, honek ere azkar bizitzera eramango gaitu eta lehenetsuna duena edo ez duenaren ikuspegia galtzea.
- ◆ Erosotasun gehiago eskaintzen digu hirietako bizitzak era guztietako zerbitzu eskaintza baten bidez, baina, pentsatzeko denbora ere kentzen digu eta gure auto-satisfaziori eskaini ahal izateko.
- ◆ Egungo munduaren konplexutasunak espazioa kentzen dio eguneroko usadiozko jarduerari, hauetako askok hartu-eman pertsonal gehiago eragiten zituzten. Esaterako, denda txikietan erosketa egitea moduko hain eguneroko gauzak pertsonak balioztatzen zituzten harreman sozialak bideratzen zituen, lotura sozialak sortzen zituelako saltzailearen eta eroslearen artean. Gaur egun “gizatasun ezaz” hitz egin dezakegu zentzu honetan, honako hau ezin baita egin superfizie handi batera goazenean.

Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ **Ohitura berriak** agertu daitezke, beste mota bateko jarduera tradizionalen kaltetan. Esaterako, “*txikiteo*” desagertzen ari da, belaunaldi berrien bizimodu aldaketa dela eta batez ere, zeintzuk kirol jarduera edo interneten bidez komunikatzea lehenesten dituzten.
- ◆ **Hiritargoaren eskakizun ezberdinei egokitutako aisi eskaintza garatzeko aukera:** kirola, kultura, turismoa, etab. Kultura eta aisialdiari lotutako sektore ekonomiko berria indartzea.
- ◆ Espazio fisikoetarako eta aisialdiko jardueretarako eskakizun gehiago.
- ◆ Gizarte kohesio gehiago lortzeko giza potentzialaren askapena, boluntarioek sare sozialetan egiten dituzten praktiken eta lan komunitarioen bidez etab.

14. Protekzionismo bio-klimatikoa

Pertsona eta gizarte kolektiboek geroz eta gehiago eskatuko dute bio-aniztasuna babestu dadin eta aldaketa klimatikoaren ondorioak saihestu daitezzen

Bereziki, “Berotegi efektuaren gasek” sortutako planetaren beroketak eragiten dituen ondorioez jabetzen ari da geroz eta gehiago gizartea. Aldaketa klimatikoa eta aniztasunaren pixkanakako galera dira adituek XX mendean zehar, baina bereziki azken 20 urte hauetan, egiaztatutako egoera honen bi ondorio nagusiak.

Ondorioz, pertsonak era pertsonalean eta gizarte taldeek geroz eta gehiago jabetuko dira gertakari honetaz, eta handitu egingo da kontzientzia soziala, nazioarteko mugimendu garrantzitsu bilakatu delarik “protekzionismoa” edo planetaren defentsaren kariaz, klima-aldaketaren eta aniztasunaren galeraren aurrean.

Ondorio orokorrak

- ◆ Ugaldu egingo dira kolektibo eta mugimendu protekzionistak, nazioarte mailan zein maila lokalean, egoera klimatikoak eta bio-aniztasuna mantentzea izango dute xede nagusia.
- ◆ Handitu egingo dira ingurumenaren gaineko eskakizunak eremu guztietan, eta proiektu berriei aurre egiteko moduan aldaketa suposatuko dute eta baliabide naturalen ustiaketa eta industri produkzioak suposatzen dutenari aurre egiteko moduan.
- ◆ Tentsio latzak sortuko dira mugimendu protekzionisten eta ekonomia eta enpresa interesen artean, gatazka sozial bihurtuko direlarik.
- ◆ Ikerkuntza eta baliabideetarako inbertsioak handituko dira espezie naturalak mantentzeko, eta aukera berriak sortuko dira esparru honetan.

Joeren aurka

- ◆ Garapen ekonomikoa, eta zehatzago industrializazioa, berotegi efektua eragiten duten gasen jatorria da. Garapen bidean diren herrialdeek, Txina eta India bereziki, geroz eta indartsuago direnak ekonomikoki, ez diete benetako arretarik eskaintzen aniztasuna gordetzeari eta aldaketa klimatikoari, bere ekonomien hazkundera eta ondorioztatzen den baliabideen kontsumoaren gehikuntza lehenesten dituztelako.
- ◆ Ugaldu egingo dira presio ekonomikoa eragiteko taldeak; ekoizpen eta baliabide naturalen kudeaketa eskema berbera mantentzeko xedez.
- ◆ Nazioarteko komunitateak erakutsitako kontsentsuak lortzeko gaitasun faltak kalte egingo dio politika protekzionista global eta errearen sormenari.
- ◆ Ekologia mugimendu erradikalak hazi egingo dira; ekologia soziala, ekologismoaren eta anarkismoaren eskola gisa, ingurumenaren kudeaketa humanista bilatzen dute eta uste dute naturaren ordenak ez duela behar agintaririk ezta aginte zentralizaturik, deszentralizatutakoa dela eta sareetakoa baizik. Ekologismo erradikalak politika kontserbatsionistekin uztartzen ditu ekologismo inkorformistaren teoriak eta praktikak eta “eko-zentrista” edo ekologismo “ez humanista”-rako joera agertzen du, muturreko inplikazioak eta autoritarioak izan daitezkeenak eraginez.


Ondorioak Euskadirentzat

- ◆ Itsasoko espezieen ustiaketa mugatuko da espeziak agortzeko arriskua dela eta, honek eragina izango du **ekonomia sektore tradizionaletan**.
- ◆ Lehenetasuna izango du **energia alternatiboen erabilera**, hala nola, eolikoa, eguzki energia eta bioerregaien sorkuntza, aldi berean negozio aukera berriak eta jarduera sektore berriak sortuko direlarik.
- ◆ **Administrazio Publikoak geroz eta rol handiagoa izango du** Aldaketa Klimatikoaren ondorioak gutxitzeko **estrategietan**.
- ◆ **Konpromiso partekatua erakunde, eragile ekonomiko eta sozialen artean**, aldaketa klimatikoaren aurkako politika komunari emango dio bide.
- ◆ **Aliantzak** ezartzea beharrezkoa izango da zeharkako taldeen artean eta **lankidetzan** lanari ekitea
- ◆ Euskadiko berezko bio-aniztasuna mantentzeko politikak izango dira beharrezko.
- ◆ Euskadin babes maila altuetako gune naturalak sortzeak bermatuko egingo du gure inguruko berezko bio-aniztasuna mantentzea.



**5. Gure ikuspegia Euskadirentzat.
2020rako Euskadiren erronkak**

Euskadirentzat dugun ikuspegia



Euskal gizartearen balioak 2020ko Euskadin

Ekintzailtza

Hobetzeko aukerak identifikatzeko interesa, eta aukera horiek aprobetxatzeko beharrezkoak diren baliabideak antolatzeko gaitasuna.

Talentua eta eskortzua baloratzea

Talentu gehien dutenek eta ikasteko eta hobetzeko –"Euskadi sortzeko"- ahaleginak egiten dituztenek gure gizartearen ongizate komunari egiten dioten ekarpena baloratzea. Gauzak ondo egiteko interesa.

Aldaketara egokitzea

Eboluzio-prozesuaren metafora: "ahalik eta arinen egin behar dugu korrika leku berean iraun ahal izateko"

Kanpoaldera irekitzea

"Euskadi munduan kokatzea" ahalbidetzen duen ikuspegi bat. Espezializaioaren eta trukearen lehiakortasun-abantailak eta onurak hobeto aprobetxatzea ahalbidetzen duen ikuspegi bat.

Networking

Beste pertsona eta erakunde batzuekin akordioak lortzeko eta haiekin modu bateratuan lan egiteko gaitasuna, sinergiak aprobetxatzeko eta erronka berriei heltzeko.

Elkartasuna

Gainerako pertsonen ongizateari ekarpen aktiboa egitea, batez ere premiarik handiena duten pertsonei, bai Euskadi barruan eta bai munduko gainerako herrietan.

Pertenentzia sentimendua

Kultur eta gizarte lotura sendo eta konpartituak dituen komunitate baten partaide izatearen sentimendua.

Balioak transmititzeko hezkuntza

Familiaren balioa zaintzea, bere dibertsitatearekin. Errespetua, pluraltasuna eta desberdinen arteko elkarbizitza izan behar dira gizarte harreman eta jokabideen gidaria.

Askatasuna

Pertsona bakoitzak askatasuna izan behar du bizi-eredua, familia-unitatea, erlijioa, kultura eta horrelakoak aukeratzeko, eta horrek ez dio murriztu behar gainerakoen aldean berdintasun baldintzetan bizitzeko aukera. Askatasun pertsonala askatasun kolektiboaren oinarritzko zutabea da.

Erakuntzuzun pertsonala

Zerbitzu publikoak eskatzeaz gain, pertsonak kontzientzia izan behar dute eta gizarte osoarekin dituzten erantzukizun eta betebeharrak bete.

Euskal gizartearentzako erronkak

Ondorioztatutako jokalekuak
erronka garrantzitsuak
planteatzen ditu euskal
gizartearentzat. **Bost erronka**
nagusi identifikatu dira.

1. erronka

BERRIKUNTZA: Gizarte eta Ekonomia lehiakorrek eraikitzea, nazioarte mailan.

2. erronka

GIZARTE POLITIKAK: Gizarte kohesio eta ongizatea hobetzea, ekonomikoki bideragarria den gizarte babeseko eredu baten bitartez.

3. erronka

IRAUNKORTASUNA: Garapen orekatua bermatzea ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorrean.

4. erronka

KULTURA: Garapen pertsonal eta kolektiboa nazioarte mailan.

5. erronka

EUSKADI-EUROPA: Gure autogobernua osorik garatzea eta bakea lortzea.

1. Erronka: **BERRIKUNTZA. Gizarte eta ekonomia lehiakorak eraikitzea nazioarte mailan**

Oraingo testuinguru globalizatuan, Euskadik aurrez aurre duen erronka nagusia da jakitea nola lehiatu behar den etorkizunean. Beharrezkoa zaigu euskal enpresak lehiakorak izatea jokaleku ireki eta globalizatuan. Bestela, ez gara gai izango gure aberastasun mailari eusteko, eta horrek eragina izango du gizarte politketan. Enpresa lehiakorak izateko, euskal gizarte osoak ere izan behar du lehiakorra (sare sozial eta instituzionala barne sartuta). Beharrezkoa zaigu gizartea eta enpresak irekiak eta malguak izatea, helburu handinahiekin; aldi berean, arduratasunez jokatu behar dute beren gizartearekin.

Ahuleziak

- ◆ Kulturaren alorrean barrurantz begiratzen duen gizarte bat gara (gure pertenezia-sentimenduaren ondorio negatiboa). Hizkuntzen alorrean dugun lehiakortasun-desabantailari lotuta, errealitate hori oztoppo da gure internazionalizaziorako.
- ◆ Jakintza maila handia dugun arren, zaila gertatzen zaigu hori emaitzetan islatzea (adibidez: patente gutxi).
- ◆ Oso ondo mugitzen gara gauza ukigarrien alorrean (ekoizpen industriala), baina txartoago gauza ez-ukigarrien alorrean (diseinua, ekonomia sortzailea).
- ◆ Garapen profesionalaren alorrean bada nolabaiteko “erosotasun” sentimendua (eroso egotea); horren ondorioz, lan-mugikortasuna txikia da (geografikoa eta funtzionala) eta gutxi baloratzen da etengabeko prestakuntza.
- ◆ Gure lan harremanen ereduaren oinarria enfrentamendua da, eta horrek mugatzen du gure baliabideen potentzialaren aprobetxamendua.
- ◆ Gure I+G+b inbertsioa motela da oraindik ere, eta ez dugu nazioarteko mailan erreferentzia den unibertsitaterik.

Mehatxuak

- ◆ Lan-kostu txikiagoak dituzten herrien ugalketa eta nazioarteko lehiaren maila handia (Asiako hego-ekialdea, India eta Latinoamerika); horietako batzuek, gainera, prestakuntza handiko biztanleria dute (Ekialdeko Europa).
- ◆ Gazte prestatu eta koalifikatuak beste merkatu batzuetara joan litezke, Euskaditik kanpo garapen profesionalerako aukera hobeak aurkituz gero.
- ◆ Indarkeria-egoerak bere horretan iraunez gero, zaila izango da talentuak eta inbertsioak erakartzea eta Euskadiren irudia nazioartean hobetzea.
- ◆ Unibertsitateek balioa galtzea eta merkatuko joera eta beharretatik urruntzea -merkatua etengabe eraldatzen ari da eta beharrak aldatzen dira-.

Indarrak

- ◆ Gure enpresariak aurrerako urrats nabarmena egin dute kudeaketaren alorrean. Kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren eremuan gehien aurreratu diren ekonomietako bat dugu.
- ◆ Euskadik Europar Batasuneko beste eskualde batzuek baino itxaropen hobeak ditu, bere lehiakortasuna, langabezia tasa txikia eta hezkuntza maila onak oinarritat hartuta.
- ◆ Euskal ekonomia saneatuta dago.
- ◆ Euskal unibertsitateen presentzia.
- ◆ Sektore publikoaren, pribatuaren eta berrikuntza sistemako eragileen arteko lankidetzaren ahalmen frogatua.
- ◆ Bada arkitektura instituzional bat, lehiakortasuna sustatu eta aldaketa-prozesuak gidatzen dituena.

Aukerak

- ◆ Gure enpresa nagusiek inbertsio estrategikoak egin dituzte gorantz doazen merkatuetan, eta horrek bidea ematen du egitura lehiakorrago izateko.
- ◆ Lankidetzaren eta koordinazio publiko-pribatua enpresen eta instituzioen artean, eta gizarte osoaren mobilizazioa.
- ◆ Industria sendotzea, bereizkuntzan eta berrikuntzan oinarrituta, eta sostengua gorantz doazen sektoreentzat (biozientziak, nanozientziak, energia berriztagarria eta garraio adimentsua), talentua erakarriz eta ikerkuntza enpresetan txertatuz.
- ◆ Enpresak Euskadin kontzentratzeko aukerak, sektore ekonomiko kritikoen finkapenari lagunduz eta merkatu globalean lehiatzeko ahalmena hobetuz..
- ◆ Ikasleen eta profesionalen mugikortasuna gure gazteen prestakuntza hobetzeko formula izan daiteke, Euskadira itzultzea eta bertan lan egitea erakargarri egiten badugu.

2. Erronka: **POLITIKA SOZIALAK. Kohesio eta ongi-izate soziala hobetzea ekonomikoki bideragarria den babes sozialerako eredu baten bitartez.**

Azken hamarraldietako eraldakuntza ekonomiko eta sozialak beste inguruabar garrantzitsu batzuk ditu alboan: familiaren batez besteko tamainak eta kide kopuruak behera egiten dute, familia zahartuz doa populazioarekin batera, familiak kiderik behartsuenak (adingabeak, nagusi dependenteak, gaigabetuak,...) zaintzeko ahalmen txikiagoa du. Ordaindutako lana gizarteratzeko tresna unibertsaltzat hartzea ere aldatu egin da; enplegu faltarik ez dago eta badago, kausak kausa, bazterketa-egoeratik edo txirotasun arriskutik atara ezinik dagoen jendea.

Horren guzti horren ondorioz gizarte-babesaren ardura gero eta gehiago pasatzen ari da familiarengandik eta enplegutik arlo publikora. Erantzukizun publikoari buruzko diskurtsoa aldatu da subsidiaritate-printzipioaren (familiak ezin duen tokian eta unean jardutea) inguruan izatetik familiaren osagarri jardutearen inguruan izatera (familiari lagundu, bere zeregina osatu, bere funtzio soziala egiten jarraitzeko moduan izan dadin); familia modurik zabalenean ulertuta: familia zabalak, guraso bakarrekoak, pertsona bakarrekoak...

Garapen handiagoa lortzeko, gizarte-ongizatearen bermea eskaini behar diogu aldi berean euskal gizarteari. Babes sozialaren ereduak efikaza eta efizientea izan behar du, beharizanak hazkorak izango direlako eta baliabideak mugatuak izango direlako (demografia-piramidearen eboluzioak tentsioak eragingo ditu sisteman eta mundu globalizatuan presio fiskala handiagotzeko marjina txikia da).

Ahuleziak

- ◆ Azken hamarraldian hazkuntza etengabea izan arren badira oraindik talde ahulagoak, lan-merkatutik kanpo. Baztertutako talde horiei beste batzuk elkartzen zaizkie (generoa, droga-menpekoak, gaixotasuna, gaigabetasuna, etorkinak,...)
- ◆ Enpleguak oinarrizko rola du orain ere gizarteratzeko eta langabezia gorantza doa.
- ◆ Etorkinak gizarteratzeko prozesuetan ahul-guneak.
- ◆ Familia-erantzukizunetan gizonezkoek dagokiena baino gutxiago hartzen dute euren gain.
- ◆ Eskumen-mailak koordinatzean ahul-gunea

Mehatxuak

- ◆ Gizarte-zerbitzuen eskaera eta eskaintza orekatzea. Eskaera eskaintza baino arinago hazten da.
- ◆ Gizarte-zerbitzuek finantzazio txikiegia.
- ◆ Epe luzean sistema iraunkorra ote den mehatxua.
- ◆ Jaiotza-tasa txikia.
- ◆ Populazioa zahartzen ari da.

Indarrak

- ◆ EAEk krisialdiaren eragina atzeratzea lortu du eta beste herrialde batzuek baino hobeto prestatuta dago eta horregatik krisialdiak eragindako kalte gutxiago pairatuko du.
- ◆ Euskal gizartean familiaren laguntza eta laguntza soziala balio gisa mantentzen dira, banakokeria eta hedonismo soziala gora-behera.
- ◆ Programa sozialetan erakundeen aldeko inplikazio handia.

Aukerak

- ◆ Etorkinen ekarpena BPG hobetzeko.
- ◆ Emakumeen ekarpena (populazio aktibo handiagoa, erantzukizun-maila handiagoa) BPG hobetzeko.
- ◆ Gizarte Segurantzaren transferentziak eta enplegu-politika aktiboek gure beharrianetara doitutako babes sozialeko ereduak burutzea ahalbidetuko luke.
- ◆ Kohesio- eta babes-sozialean laguntzen duten enpresa eta antolakunde pribatuen erantzukizuna.

3. Erronka: IRAUNKORTASUNA. Ekonomia-, gizarte- eta ingurumen garapen orekatua bermatzea

Euskadik bere herritarren oinarrizko beharrianak ase behar ditu eta haren bizitza-kalitatea hobetu behar du hurrengo belaunaldien bizitza-kalitatea arriskuan jarrigabe. Era berean bere natur-gune eta –baliabideak zaindu behar ditu.

Ezinbestekoa da horretarako proiektu bideragarriak definitzea eta ekindako edozein proiektutan komunitateek, enpresek eta banakoek kontuan hartu behar diren giza-jardueraren alde ekonomikoak (ekonomia-ekitate) eta ekologikoak uztartzea.

Natura-baliabideak mugatuak dira, agorgarriak eta gero eta handiagoa den jarduera ekonomikoak irizpide ekonomiko hutsak gidatzen badu arazo larriak (konponezinak ere izan daitezke) sortzen ditu bai tokian bertan bai mundu-mailan..

Orain arte gobernuek hartutako neurriak ez dira nahikoak izan eta politikak eta neurriak aldatu behar dira laster.

Iraunkortasunaren aldeko ekimenak honako arlo hauetan zentratu behar dira: lurralde ereduan, garraioan, energia-ekoizpena eta –kontsumoa, ur-baliabideen kudeaketa eta hiri-hondakinen tratamendua.

Ahuleziak

- ◆ Hiri “hedatuak” eraikitze joera, bizitokizat, lanerako eta aisialdirako balio duten eta elkar topatzea errazten duten hiri zurrunen ordez.
- ◆ Jendea mugitzeko gehiegi erabiltzen da oraindik ere norberaren ibilgailua.
- ◆ Gaurko eredu energetikoa iraunezina da hiru aldetik: natura-baliabide asko kontsumitzen duten energia-motak, gehiegiko kontsumoa eta Euskadi dugun menpekotasun energetiko handiegia.
- ◆ Hondakin gehiegi sortzeak iraunkortasun kontuetan eragiten du, baina, aldi berean, hondakin horien tratamendurako eta balorizaziorako sistema partekaturik lortu ez izanak eragiten dio.
- ◆ Ur-baliabideak gaizki erabiltzen eta hornitzen dira oraindik ere, ur gehiegi kontsumitzen da eta ez daukagu azpiegitura segururik, nahikorik eta eranginkorragorik.

Mehatxuak

- ◆ Erregai fosilen menpekotasun handiegia.
- ◆ Lurraldeko zonalde batzuen desertizazio arriskua eta biodibertsitatea galtzea.
- ◆ Ingurumen arrazoien hegalpean, garapenaren aurkako muturreko mugimenduak.

Indarrak

- ◆ Euskadik kokapen estrategikoa du ardatz estrategikoen erdigunean.
- ◆ Euskal gizarteak bere ekonomia- eta ekoizpen-ereduan krisialdi askori egin dio aurre eta hartu die gaina arrakastaz, unean uneko beharrian berrietara moldatuz. Ekintzaile-kultura handia dago Euskadin.
- ◆ Oso ur-baliabide maila ona, eskualde gisa hartuta oro har, bere klimatik.
- ◆ Ekonomia- eta enpresa-sektore garrantzitsua proiektu iraunkorrak garatzera zuzendua.
- ◆ Aldaketa klimatikoak eragindako prozesuen zuzuan egoera hobean dago bere kokapen geografikoagatik.

Aukerak

- ◆ Hiru garapen-ardatzen erdigunean kokatuta egoteak abantaila eta aukera nabarmenak dakartzkie garraioari eta logistikari lotutako jarduerari.
- ◆ Energia berriztagarriak.
- ◆ Ingurumen-oreka handiagoaren zuzuan sentibilizazio eta mobilizazio soziala faktore bat izan daiteke garapen-proiektuak hobetzeko.
- ◆ Energia berriztagarrien, HHSen, tratamenduaren eta ur-industrien arloetan enpresa-proiektu ekonomikoak sortzea.

4. Erronka: KULTURA. Garapen pertsonala eta kolektiboa nazioarte mailan

Kultura oinarritzeko kontua da aberaste eta jardun pertsonalean, baina aldi berean hazkunde ekonomikorako eta sozialerako bidea da. Zalantzarik gabe, herritarren artean nabarmenki ezartzeko, sorkuntza artistikoak eta kultura-kontsumoak abiapuntu bat behar dute: hezkuntza ona.

Sorkuntzak bere esparru guztietan (eszena, musika, plastika, literatura) sortzea sustatzen duten eta esparru horietan euren gaitasun guztiak garatuko dituzten pertsonak agertzea erraztuko duten inguruneak eta erakundeak behar ditu. Gero eta garrantzitsuagoak dira kultura-trukeak eta “kultura-aniztasun sozialean” oinarritutako kultura mistoak.

Euskal identitatearen eta euskararen (kultura-uniformizazioarako joera duen mundu globalizatuan guztion ondare dira horiek) garapena bermatu behar dugu, bestalde, Euskal identitatea eraikitzen egin behar dugu lan herritar guztiak elkartzen gaituen horretatik: ezberdinarekiko errespetutik eta gure talde-ondare eta –memoriatik. Eraikitze-prozesuak irekia, dinamikoa eta iragazgarria izan behar du eta barnera eta nazio-artera proiektatzeko bokazio argia izan behar du. Euskal identitate irekia eta zaharberritua eraiki behar dugu, partekatua eta kohesio sozialaren eta garapen demokratikoaren akuilu izango dena.

Ahuleziak

- ◆ Euskotar gaien esparru komunari buruzko kontsentsurik ez dago. Akordio zabala eta partekatua lortu beharra dago.
- ◆ Identitate zabal eta partekatua sortzearen aurka doa indarkeria, identitate-gaiak erabili egiten dituelako eta jarrerak aldentzen dituelako bata bestetik. Konfrontazioa eragiten du, ez kontsentsurik.
- ◆ “Barnerantz” begiratzen dugu kulturari dagokionean (gure izaera-sentimenduaren ondorio negatiboa. Kanporantz gehiago begiratzen hasi behar dugu. Nola hautematen gaituzten jakin behar dugu, non egon nahi dugun eta nola posizionatu.
- ◆ Kultura-erakunde maila baxua eta euskal gizarteak kultura gutxi kontsumitzen du.

Mehatxuak

- ◆ Globalizazioa eta inguruko kultura indartsuagoen aldeko kolonizazioa.
- ◆ Euskadira bizitzen eta lanera datozen pertsonak ezin integratzea.
- ◆ Euskadi eta bere kultura gaizki hautematen da kanpoan indarkeriaren eragin negatiboagatik.

Indarrak

- ◆ Euskadik bere marka du mundu globalizatuan. Baditugu gure identitate-gaiak: hizkuntza, bizitzeko estiloa, kultura, kirolak. Gastronomía, ohiturak, ondarea, etnografia,...
- ◆ Aurrera egin du euskarak azken 25 urteetan. Identitatea indartzen du. Orain euskararen gizarteko erabilera berrindartzeko garia da.
- ◆ Lurraldearen egiturak identitatea berrindartzen duen kultura-sarea ezartzea ahalbidetzen du.
- ◆ Badago EITB gure kultura eramateko eta dinamizatzeko gai gisa.

Aukerak

- ◆ Balioak sustatzea identitatearen oinarri gisa (solidaritetea, errespetoa, tolerantzia, kooperazioa) eta konpromiso komunitarioa sustatzea identitate kontzeptuaren gizarte-dimentsioa berrindartzeko.
- ◆ Euskadira iritsi berri diren pertsonak integratzea eta laguntzaile berriak lortu.
- ◆ Gure kultura-gaiak balioetsi eta aberastasuna lortzeko tresna gisa erabili.

5. Erronka: EUSKADI-EUROPA. Gure autogobernua guztiz garatu eta bakea eskuratu.

Euskadiren politika orokorra eta erakundeetako etorkizunari buruzko hausnarketa sakona izan beharko litzateke. Euskal herri gisa garena eta asimetrikoki eta pluraltasun politikoz artikulatzen dena: gizarte honek arrastaka daraman indarkeriarik ezean izan gintezkeena eta hitzartutzat jotzen genituen ahalmen politiko guztiak eskura izanez gero izan nahi izateko moduan gaudena. Horren guzti horren helburua normalizazio politikoa da.

Bakea, elkarbizitza eta normalizazio politikoa dira gure lehentasuna, gure erronka eta gure konpromisoa euskal gizartearen aurrean.

Berresanez, guztiz baztertzen dugu indarkeria eta terrorismoa. Euskal gizarteak etorkizunerako planteatutako helburuak lortzeko bide politiko eta demokratikoak erabili behar dira huts-hutsik. Etengabe ari da ETA bizi politikoan sartu nahian, bide ugaritatik, esaterako politikariei, enpresariei eta kazetariei (eta ondorioz, euskal gizarte osoari) mehatxu egiten zaien adierazpenak,

ETAren egitura operatiboa apurka-apurka ahuldu egin da eta gero eta bultzada txikiagoa du herrian, lehenago helburu politikoekin indarkeria erabiltzea justifikatu dutenen artean ere. Horrek terrorismoa bide polizial hutsetik amaitu daitekeela pentsarazi lezake, ETA guztiz amaitu daitekeela edota ETA, pizgailuari eragiten zaion moduan, gauek egunera jaio zela uste dutenen interpretazioen arabera.

Polizia- eta epaiketa-efikaziaz gain eta gizarteak legitimitatea kentzeaz gain Euskal Herriak erabat asumitutako bakea izan dezan indarkeria behin betiko uzteko konpromisoa egon behar da eta uko egin behar dio ETAK edozein zaintza politiko egiteko gogoari. Gero elkarrizketa bidez arrakasta handiagoaz bermatuko litzateke Euskadin indarkeria terrorista amaitzea, bizikidetzaz erraztuko luke eta, kasua balitz, etorkizunean euskotarren arteko harremanak sendatzea. Hori guztia demokratikoki, azkenean, politikaren sasoia ahalbidetuko duen markoaren baitan, erabakiak herritarren eskutan soilik egonda.

Ahuleziak

- ◆ ETAREN indarkeria.
- ◆ Erakundeen, konstituzioaren eta estatutuaren markoa ez da aski gizartearen eskaerei erantzuteko.
- ◆ Euskal gizarteko sektore batzuk zapuztuta daude estatutua betetzen ez delako.
- ◆ Aurrez aurrekoak euskal gizartean: akordio politikorik ez eta akordioetara iristeko gaitasunik ere ez.
- ◆ Euskadiri eragiten dioten erabakietarako zentralismoa.

Mehatxuak

- ◆ Estatuko alderdi politiko nagusietan aldatzeko inongo jarrerarik ez.
- ◆ Alderdi politiko gehienek ohiko eskemak jarraitzen dituzte: neozentralismoa.
- ◆ Euskadi eta estatuaren arteko alde biko hitzarmen berezia hautsita.
- ◆ Euskadi eta estatuaren arteko menpekotasun politikoa: blokeoa.

Indarrak

- ◆ Euskal gizartearen portzentaje handi batek euskal nazio-identitatea sentitzen du nabarmenki.
- ◆ Oraingo ongi-izate maila: aldaketari ekiteko egoera ekonomiko, politiko eta sozial ona.
- ◆ Kontzertu ekonomikoa: esperientzia positiboa.
- ◆ Herriaren erakundetzea: azken 30 urteetan euskal erakundeek kudeatutako autogobernuaren balantze positiboa.
- ◆ Euskal gizartearen ongi-izatera bideratutako erabakiak hartzeko autonomia-maila altua.

Aukerak

- ◆ Beste topagune baten bilaketa: bigarren transizio demokratikoa.
- ◆ Politika-eremuan herritarrek gehiago parte hartzea.
- ◆ Elkarrizketa politikoko prozesua hastea.
- ◆ Erabakitzeko eskubidea aitortzea.
- ◆ Berrikuntza politikoa.



6. EAJ-PNVren helburuak Euskadirentzat, 2020rako

1. Zeharkako ardatza: nazio-artekotzea

- Globalizazioak aukera estrategikoak eskaintzen dizkie herriei eta enpresei. Gaur eguneko ekonomian lehiakortasuna ez dago bakarrik lan-eskuaren esparruan edo lehengaiaren esparruan. Batez ere ideien eta gaitasunen esparruan dago.
- Nazio-artekotzeak zera esan nahi du: globalizazioak berarekin dituen abantaila guztiak (teknologia berriak, komunikatzeko erraztasuna) probestea eta strategiaren (kasu honetan “herri-estrategia”) barne sartzea.
- Euskadik produktibitatea, gauzak balio erantsi handiagoz egiteko gaitasuna eta ekoizketa-fase bakoitzerako tokirik aproposenak bilatzeko gaitasuna hobetzen zentratu beharko luke.
- Nazio-artera irekitzeak ikastea, dibertsitatea eta orotariko aukerak ulertzea eta berrikuntza- aukerak sortzea ahalbidetzen du. Barne-garapena behartzen eta bikaintasuna bilatzen ere lagundu egiten du.
- Euskadi nazio-arteratzea ikuspuntu zabalaz, ekonomikoki, sozialki eta kulturalki herri lehiakor bihurtzeko tresna gisa ulertuta.
- Lehiakortasuna hobetzera bideratuta izateaz gain, nazio-arteratzea “herri-marka” eraikitzea ere bideratu beharko litzateke eta horrek Euskadi nabarmenki bereiztea ekarriko luke bere enpresa-, merkataritza- eta turismo-estrategien arrakasta lortzeko.

Nazio-arteko praktika onak

Alemania, Japonia eta Estatu Batuak

Munduko hiru ekonomia handienak esportatzaile handienetakoak dira eta zientzia eta teknologiari egindako ekarpenean ere puntakoak dira, bai eta balio erantsia eta ideiak sortzeari (sormena) egindakoan ere.

Kanada

Gobernuen gaitasuna eta zintzotasunari, nazio-arteko segurtasunari eta bakeari, ingurumenaren babesari eta munduko txirotasuna murrizteari begiratuz gero eredugarriak dira. Gainera bere bizi-kalitateagatik ere eredu izatea lortu du.

Frantzia, Italia eta Erresuma Batua

“Kultura” orekatua adierazten dute, hau da, kultura-tradizioa, kirola eta kultura garaikidea biltzen dituztelako herri gisako herentzien.

Europa Hegoaldea

Oporretan joateko toki ospetsu asko dituzte natura-edertasuna, monumentuak, eraikin historikoak eta erakarpinak biltzen dituztelako.

Txile

Bere egoera bikaina Amerika latindarraren testuinguruan, lehiakortasun handiagoa eman dion bere ekonomia irekitzean eta munduko ia ekonomia-bloke guztiekin sinatutako merkataritza-hitzarmen aurreratuetan oinarritzen da.

2. zeharkako ardatza: Hezkuntza eta berrikuntza

- Berrikuntza enpresek eta lurraldeek eredu sozioekonomiko berriak egokitzeko eta lehiakorak izateko duten ahalmena determinatzen duen faktore bat dela jotzen da.
- Berrikuntza zentzu zabalean ulertu behar da, eta enpresen berrikuntza teknikoak, merkatukoak edo antolamenduzkoak ez ezik, berrikuntza soziala, kulturala eta instituzionala ere hartu behar ditu.
- Herrialde berritzailea da, mundu globalizatu eta erlazioatuan, bere ingurunearekin alderatuta abantaila lehiakorak eraikitze eta haiei eusteko gai dena. Horretarako, gai izan behar du ezagutzak, kualifikazioak eta talentuak eraldatzeko --tokiko eta nazioarteko eragileak integratuz-- eta baliabide estrategikoak erakarriko dituen eta haiei eutsiko dien abantaila lehiakor eta iraunkor bihurtzeko.
- Sormen teknologiko-zientifikoa, artistiko kulturala eta ekonomikoa da berrikuntzaren oinarria; horrenbestez, gizarte moderno batek sormena sustatu eta balioa eman behar dio.
- Gizarte aurreratuetan, informazioaren gizartetik ezagutzaren gizartera pasatu gara, eta azken horretatik gizarte sortzaile eta berritzaile. Gizarte hori sozialki eta sarean eraikitzen da gero eta gehiago. Horregatik, gizartearen sormen kapitalaren kontzeptua sortu da.
- Sormenetik berrikuntzarako pausoak azpiegira bat edukitzea eskatzen du, sormena emaitzetan bilakatzeko behar den euskarria eskaini dezan.
- Euskadiren bigarren eraldaketa ekonomikoa berrikuntzaren bidez lortu behar da. Zeharkako ardatz bat da, gizarte osoa ukitzen duena, zeren eta berritzen dutenak pertsonak baitira, eta Euskadi lehiakorra lortzeko erronkara iristeko --gizarte babes egokiarekin, iraunkortasuna kontuan hartuz, identitate propioarekin, autogobernuarekin eta bakean-- gauza izan behar baitugu gure onena herrialdi honi emateko. Euskadi berriz asmatu behar dugu.
- Berrikuntza da aukera bakarra Euskadiren lehiakortasunari eusteko eta, horrenbestez, gaur egun daukagun bizi-kalitateari eusteko.
- Mundu lehiakor batean, gako berrikuntza zabala da: bereizten jakitea, balioa ezagutzaren bidez sortzea, beste inork eskainiko ez duen balio erantsia ematea. Balio erantsi hori honakoetan oinarrituko da: ezagutzaren kudeaketa bikaina; pertsonen gaitasunak ahal den guztian garatzea; produktu eta zerbitzuetan gauzak egiteko modu desberdinak eta sistematikoak; prozesuak; antolaketa; merkatuak. "Made in Euskadi" leloa zabaldu eta "thought in Euskadi" leloa iritsi behar dugu.
- Berrikuntzak gizarte osoa, erakundeak, sektore pribatua eta hezkuntza- eta kultura-sistema osoa busti behar du. Ikuspegi zabala, integrala eta eraldatzailea da, esparru eta sektore guztietara iristen dena, bai eta enpresa osatzen duten sail eta pertsona guztietara ere, zuzendaritza karguetatik hasi eta langileetaraino. Lehiakorak izateko, konpartitu behar da, lankidetzan jardun behar da, elkarrekin erlazioatu behar da.

Nazioarteko praktika zuzenak

Suediarren berrikuntza eredua

Suediarren berrikuntzarako tradizioa dela eta, herrialde hori planetako garatuenetako bat da. Haren berrikuntza-ardierazlea 0,73 da, Japoniako 0,60 eta Estatu Batuetako 0,55 adierazleen gainetik. Suediak BPGaren % 3,7 inbertitu du I+G arloan, eta inbertsio horren lautik hiru ekarpen pribatuekin egin da.

Suedia bereziki efizientea da ezagutza eta ekimen berriak sortzeko. Suediako enpresariengune indartsuenetako bat da gai direla taldean lan egiteko, ideiak partekatzeko eta berrikuntza sistematika bat aplikatzeko, halako moduan non etengabeko berrikuntza batean ari baitira. Suediako enpresek beren ingurune premien etengabeko jarraipena egiten dute.

Singapur

Nazioarteko txostenen arabera, Singapurreko hezkuntza eredua eraginkorrenetako bat da. Gainera, berezitasun bat dauka: erlatiboki ez da kostu handikoa, hari esker lortzen diren emaitzak ikusita. Hezkuntzarekin ez ezik, ikerketarekin eta berrikuntzarekin ere lotura zuzena dauka.

3. zeharkako ardatza: Konpromiso iraunkorra

- Garapen iraunkorrak garapen ekonomikoa, ekitate sozialaren garapena eta garapen ekologikoa uztartzen ditu. Herrialde guztiek Kyoton klimaren aldaketaren aurka egiteko adostu ziren konpromisoak bete behar dituzte. Ingurumenaren eta gizartearen iraunkortasun-irizpideak sartu behar dira plan ekonomikoetan eta azpiegitura-planetan. Bizi garen lurraldea zaindu beharra daukagu.
- Hirigintza berri bat sustatu behar dugu. Hiri berrietan, izan ere, etxebizitza, lana eta aisia integratu behar dira. Hiri “topatzen errazak” egin behar ditugu, pertsonen arteko topaketak erraztuko dituztenak eta zoruan, energian eta materialetan kontsumo txikiagoa edukiko dutenak.
- Garraio publikoak mugigarritasunaren eredia izan behar du, bide desberdinak (trena, metroa, tranbia, autobusa eta abar) elkarrekin konektaturik dituen sare zabal batekin.
- Gizarte modernoek efizientzia energetikoa sustatu behar dute.
- Uraren azpiegiturak eta haien erabilera arrazionala bultzatzea da gure erronka.
- Euskadik birziklatze-tasak handitzen jarraitu behar du, hondakin guztiekin. Herrialde aurreatuenen buruan jarri behar dugu.

Nazioarteko praktika zuzenak

Singapur, hirigintzaren plangintza eta garraio publikoa

Singapur adibide bikaina da erakusteko zoruen erabilerari buruzko epe luzeko plangintza egiteak hiriaren antolamendua eta mugigarritasuna ordenatzen laguntzen duela, eta hori guztia XXI. Mendeko hiri iraunkorra sortzeko lagungarria dela. 700 kilometro koadro baizik ez duen uharte batean lau milioi pertsona pilatuta edukita ere, estatu-hiriaren plangintza egin duten adituek hiriaren zabaltzea kontrolatzea lortu dute, eta parkeak eta naturgune babestuak zabaldu dituzte. Horretarako, errepideen eraikuntza mugatu da, garraio publikoko sareak eraiki dira eta zonifikazio-legeak egin dira, jendeak esparru berean bizi eta lan egiteko modua izan dezan.

Garraio publikoaren erabilera da kutsadura atmosferiko txikiaren arrazoi nagusietako bat. Singapurreko 10 biztanletatik batek baino ez du ibilgailu pribaturik, hura erosteko eta erabiltzeko ordaindu beharreko zerga handiengatik. Halaber, estatu-hirian dagoen landaredia joriak –uraren eta lorategien hiria deitzen dute– nabarmen hobetzen ditu ingurunea eta hiriko paisaia.

Birziklatzea Alemanian

Alemania ere ingurumen-politiken bultzatzaile handia da. 1991ko Ontzien Legea aitzindaria izan zen hondakinak gutxitzea, berrerabiltzea eta birziklatzea batera batzen zituen helburua lortzeko egin beharreko urratsetan. Lege horren eta ondoren etorri diren beste batzuen aplikazioaren emaitzak oso positiboak izan dira, eta Alemania munduko sailkapenen buruan agertzen da hondakinen zati handi bat birziklateko tasengatik.

4. zeharkako ardatza: berdintasuna

- Berdintasuna XXI. Mendeko erronkarik eta helbururik erakargarriena da. Zalantzarik gabe, askatasun balioaren adierazpen zuzenena da, banakako adierazpen gisa nahiz adierazpen kolektibo gisa. Printzipio unibertsal bat da, gizateriaren ehuneko berrogeita hamarrengan eragina duena. Inongo kolektibo, elkarte edo talde –handia nahiz txikia izan– ezin da zuzena izan berdintasunaren balioaren inguruan antolaturik ez badago.
- Berdintasunaren ardatzak, gainera, jarduketa eta politika publikoak eskatzen ditu, eta banakako konpromisoa eta konpromiso pertsonala ere bai. Horietan bereziki gizonen berdintasunaren eragile aktibo gisa duten balioaren kontzientzia hartu behar dute.
- Berdintasunaren balioaren barruan, ezin gainditu daitekeen oztopo bat badago, funtsezko eskubide oinarrikoetan gainditzen duelako zalantzan ezin jar daitekeen gutxienekoa: generoko indarkeriaren orbana. Erankudeen erantzukizun politikotik abiatuta, biktimak babesteko eta haiek erreakzionatu dezaten eta pertsona gisa beren etorkizuna eraiki dezaten sortu den sare sozialak integrala eta muturrekoa izan behar du.
- Berdintasuna nahitaez bete beharreko nazioarteko printzipio juridiko bat da. EAEn, agindu hori Eusko Legebiltzarrak onetsitako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean arautu zen.
- Lege horren I. Tituluak Euskal Herri Administrazioen arteko Erakunde Antolaketari eta Koordinazioari buruzkoa da, eta ekintza positiboko eta **genero-ikuspegia txertatzeko** berriazko neurriak jasotzen ditu.
- Botere publikoek **genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintzetan**, halako moduan non horietan guztietan helburu orokor bat ezarriko baitute: desberdintasunak deuseztatzea eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea. Genero-ikuspegia txertatzea honakoa izango da: “emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.” (3.4 art.)
- Sexu aniztasunarekiko errespetua oinarriko zutabe bat da gizarte askeagoa eta zuzenagoa lortzeko, eta hartan pertsona guztiek eskubide berak edukitzeko.
- Gay, lesbiana, bisexual eta transexualen eskubideen legezko aitorpena eta aitorpen soziala, eta eskubide horien normalizazioa, gizarte zuzen eta berdinzalea izateko ezinbesteko baldintza baitira.

Nazioarteko praktika zuzenak

Europa iparraldeko herrialdeak

Europa iparraldeko herrialdeak aitzindariak izan dira berdintasun politiketan. Berdintasunari buruzko legeak 70eko hamarkadatik hasi ziren ezartzen, eta eragin handia izan dute emakumeen eta gizonen egoera hobetzeko, lan arloan nahiz arlo sozialean.

Genero-ikuspegia politika publiko guztietan txertatzeak berdintasunaren aldeko politiken sistematizazioa eta ainguratzea ekarri ditu.

5. zeharkako ardatza: Lankideza eta adostasun soziala

- Herritarren baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalen hobekuntzak ondorengoaren marka gero eta nabarmenagoa dauka: gizarte bakoitzean esperientziak trukatzeko eta lankidetzaren eta adostasun soziala bilatzeko sareetan sartzeko dagoen gaitasuna. Helburuak gainditzeko ideiak elkarri ematea, esperientziak trukatzea eta batera lan egitea dira lankidetzaren oinarria.
- Aitzitik, banakako eta taldekako isolamenduak geraraztea eta etorkizuneko aukerak galtzea ekarriko ditu, mugigarritasuna gero eta lortzen errazagoa den aro batean.
- Halaber, lankidetzaren aritzeaz eta ikuspegiak elkarrekin trukatzeari gainera, adostasun sozialak honakoa ekarriko dio hura lantzen duen gizarteari: adostutako hobekuntzak eta aldaketa-prozesuak bilatzeko oinarri sendoak edukitzea.
- Gizarte osoaren eginkizuna den gaia bada ere, botere publikoek beren gain hartu behar dute adostasuna sustatzeko eta dinamizatzeko erantzukizuna.
- Sare sozialak ez dira Internetek eta teknologia berriek sorturiko fenomeno bat, baina egia da gaur egun horiek bideratzen dutela sareetan elkarrekin errazago jardutea. Gainera, sare batek efizientziaz erabil ditzakeen konexioen kopurua handiagoa izan dadin bideratzeaz gainera, sareko kideen arteko trukeen kalitatea askoz hobea da. Hori guztia, noski, denboran eta espazioan inongo oztoporik topatu gabe. Honakoak dira gizarte sareak sortzeko espazio berri horien ezaugarri nagusiak: behetik gora eraikita daude eta pertsona da haien erdigunea; gainera, termino espazialeetan deszentralizaturik daude eta beren burua antolatzen dute.

Nazioarteko praktika zuzenak

Adostasunaren tradizioa Europa iparraldeko eremuan

Europa iparraldeko eremuak garapen teknologikoaren eta enpresen ekimenaren aldeko apustua egiten du, baina ongizatearen estatua hobetzera bideraturiko estatu-politikekin.

Eredu horren oinarria gobernuen, sindikatuen, enpresaburuen eta gizarte zibilaren arteko adostasun sozial handia du oinarri. Horixe da adostasun sozial handiaren ideia. Horren ikurra honako ideia da: pobrezia duintasunaren aurkako eraso bat da, eta gizarte batean errotik kendu beharreko lehenbiziko gauza da.

Europa iparraldeko herrialdeek ulertu dute adostasun soziala funtsezkoa dela mundu moderno batean, halako moduan non eragile sozialek askotan hitzarmenak lortzen dituzten gizarte osoari onurarik ekartzen dioten funtsezko gaietan. Testuinguru horretan, helburu hori lortzeko eskura dauden tresna ugari eraibli dituzte; esate baterako, itun sozialak (oro har, gobernuaren, sindikatuen eta enpresa-elkarteen arteko hiru aldeetako itunak, interes handiko gairen batean lortutakoak), parte-hartze irekia (halako kultura bat non itunetan gai ugari hartzen baitira, gizarte osoaren parte-hartzearekin; etengabe gerritzen joaten dira, uste baita haien eraginak positiboak direla gizarte osorako) eta kontseilu ekonomiko eta sozialak (oro har, lan harremanen erregulazioan zentratuak, nahiz eta askotan beste arlo batzuk ere landu).

1- Enplegua norberaren errealizatorako eta enpresa lehiakorrenzat

Gakoak

- ◆ Enplegua gizarteratzeko faktore nagusia da.
- ◆ Nazioarteko joerak direla eta, **biztanleria aktibo kualifikatuagoa, malguagoa eta mugigarriagoa** behar dugu. Langileek beren gain hartu behar dituzte malgutasunaren, mugigarritasunaren eta aldaketei egokitzearen premia.
- ◆ Euskal enpresek ekonomia globalean arrakastaz eragiteko behar den lehiakortasuna bilatu behar dute, baina beren estrategien barrenean jarduten duten **gizartearekiko konpromisoa** hartu behar dute beren gain.
- ◆ Enpresek honako behar honen inguruan antolatu behar dute beren burua: pertsonak beren lanean errealizatzea eta lanean **norberaren bizi-tza eta familia-bizi-tza bateragarri egitea**. Enpresek **etenik gabeko prestakuntza sustatu behar dute**, epe ertain eta luzean eduki beharreko lehiakortasuna bermatzeko.
- ◆ Lan-harremanen eredia honakoak izan behar ditu oinarri: **elkarrizketa** eta gizarte-eragileen arteko **elkarrizketa eta hitzarmen soziala**.
- ◆ **Aukeren berdintasunak** izan behar du ereduaren oinarria, eta oso bereziki emakumeen eta gizonen lan-aukerak eta –baldintzak berdintzeak. Ezagutzak eta talentuak ezberdintasunak markatzen dituzten mundu batean, erakundeek ezin dituzte gizon-emakumeen gaitasunak alferrik galdu.
- ◆ Euskadik **gizarte ekonomiako enpresen tradizio** interesgarria dauka (kooperatiben mugimendua), eta enpresa horiek erakutsi dute eredia enpleguei eusteko eta krisi-egoerei egokitzeko gaitasunaren bermea dela.

Nazioarteko harremanak

“Flexikuritatearen” eredu daniarra

Orain arte sekula erabili ez den nahasketa bat da: lan merkatuaren malgutasun handia, langilearen babesa eta enplegu-politika aktibo eraginkorra. Lan merkatuaren malgutasuna honakoan datza: kontratazioak eta kaleratzeak erraztasun eta arintasun handiz gertatzen dira eta ez dute enpresarentzako kosturik. Horrek bidea ematen du enpresek gaitasuna eduki dezaten koiuntura jakin batean lan eskua premien arabera ia berehala egokitzeko.

Daniarren “flexikuritatearen” ereduarekin lortzen da lan merkatuak berehala eskuratzea desregulazioaren abantail handien onura; aldi berean, langileari segurtasuna ematen dio, zeren eta babes ekonomiko handia baitu langabezia kasuetan, eta, bestalde, berriz kualifikatzeko aukera bikainak ere badauzka (etengabeko prestakuntzako jardueretan parte hartzea hiru aldiz handiagoa da UE-27koa baino), efizientzia handiko zerbitzuen bitartez.

Eredu honekin, zeina kontzertazio sozialeko eredu batean bermatuta baitago –elkarlan handia dago enpresa-elkarteen eta sindikatuen artean– lan merkatu daniarraren adierazleak munduko onenen artean jarri dira.

EAJ-PNVren helburuak

- Langabezia kasuetan estaldura hobea ematea, langileak berriz laneratzean eta berriz kualifikatzean (ereu daniarra) kontrol handiagoa jarriz eta laguntza pertsonalizatu handiagoa emanez. Langabeziarengatiko estaldura erregulazio-oinarriaren % 80raino handitzea irauten duen denbora guztian (gaur egun, % 70 da lehenbiziko 6 hiletan eta % 60 gainerakoetan). Prestazioa jasotzeko eskubidea dagoen epeak luzatzea (gutxienez ere urtebete izatea urtebetez lan egin duenarentzat).
- Lehenengo enplegua eskuratzen laguntzea: Urtebeteko praktikak Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasketak bukatuta edukitzeari dagozkion lansariekin.
- Gizarte ekonomia sustatzea eta laguntzea (gure egitura ekonomikoaren bereizgarrietako bat da).
- Gizarte erantzukizuna sustatzea euskal enpresetan, bai eta kokatuta dauden inguruneko bizi-tza sozial, ekonomiko eta kulturalarekiko konpromisoa. Halaber, emakumeak zuzendaritza taldeetan sartzea sustatuko da.
- Hiriko merkataritza finkatzea, hiriaren eta hiriko eremu publikoaren egitura ekonomikoaren ardatza delako eta enplegua sortzen duelako.

2- Etengabeko prestakuntzaren sistema

Gakoak

- ◆ Hezkuntza lehiakortasunerako elementu estrategiko bat da. Prestakuntza duten pertsonak baditugu, baina kosta egiten zaigu ezagupenak emaitza bilakatzea.
- ◆ Nazioarteko joerak direla eta, biztanleria aktibo kualifikatuagoa behar dugu, eleaniztuna, analisirako gaitasunarekin eta ezagupen tazituekin.
- ◆ Haurtzarotik honako balioak sustatu behar dira, besteak beste: parte-hartzea, sormena, arriskuak onartzea, jakinmina, lankidetzeta, elkartasuna eta ekimenak abiarazteko zaletasuna.
- ◆ Prestakuntza ematen duten pertsonak gizartearen eta administrazioaren aitortzea eta laguntza behar dute, duda-mudarik gabe, eta ongi ordaindutako enplegua eduki behar dute. Postu horietara iristeko, gaitasun-maila handiagoa eskatu behar zaie, bai eta erakutsitako kualifikazioa ere. Ezagupenetan gaurkotuta daudela erakusteko azterketak egingo zaizkie aldizka.
- ◆ Etengabeko ikaskuntza enpresek sustatu behar dute, eta haien epe ertain eta luzeko lehiakortasunaren bermea izan behar du ikaskuntza horrek.
- ◆ Unibertsitateak gizartetik eta enpresatik isolatuta dagoen toki bat izateari utzi behar dio, eta ikasi behar du ezagutza aplikatzen. Sektore pribatuarekin eta administrazioarekin elkartasunak sortu behar ditu. Horien guztien arteko koordinazioak bidea emango du premiak identifikatzeko eta erantzun gaurkotua, efizientea eta *ad hoc* emateko.
- ◆ Karrera tekniko eta zientifikoen irakaskuntza sustatu behar da eta lortu behar da Euskadi izatea talentuari eusten dion eta talentua lotzen eta harrapatzen duen ingurune bat. Horretarako, bitartekaritzako azpiegiturak sustatuko dira, eta enpresetan doktoretza egin duten ikerlariak sartuko dira, eta nazioarteko sareetan integratuko dira.
- ◆ Hirueletasuna, gutxienez, eta bikaintasuna informazioaren eta komunikazioaren teknologien eta interneten erabileran eta aprobetxamenduan.

Nazioarteko erreferentziak

Finlandiarren hezkuntza eredua

Hezkuntzaren arloan, Finlandia nazioarteko kalitate-sailkapenen buruan dago. Eskola bertan behera uzten dutenak % 0,5 dira eta ikasleen % 2 baino gutxiagok errepikatzen dute. PISA txostenaren arabera, ikasle finlandiarrak dira helduaroari aurre egiteko prestakuntza onena dutenak. Bi hizkuntza ofizialak (finlandiera eta suediera) menperatzeaz gainera, oso goian daude beste hizkuntza batzuen –batez ere ingeleraren– ezagupen-mailetan.

Bat baino gehiago dira eredu finlandiarraren arrakastaren gakoak. Funtsezkoa den bat da irakasleek gizartean duten izen ona eta balorazioa. Irakasle lanbidea da bigarren hezkuntzatik ateratzen direnean ikasleek hautatzen duten lehenbiziko jardura. Hainbeste dira irakasle lanetan aritu nahi diren pertsonak, non agintari finlandiarrek onenak hautatzeko luxua izaten baitute. Finlandian irakasle lanpostua da gizartean hobekien baloratuta dagoena, eta oso ongi ordaintzen da. Irakasleek, aldizka, beren gaitasunak demostratu behar izaten dituzte ebaluazioen bitartez.

Irakurmena, idazmena eta matematikako trebetasunen erabilera da ikasgelako lehentasuna. Gaitasunetan oinarriturik ikastea da bilatzen dena, edukietan oinarrituta ikastea baino gehiago, eta irakasle bakoitzak autonomia-tarte zabala du bere lanean jarduteko.

Talde txikiek aukera ematen dute ikasleen premiak ezagutzeko eta gaitasun pertsonalak ahal den modurik onenean garatzeko.

EAJ-PNVren helburuak

- Gure gizartean, erabakitasunez, hirueletasuna sustatzea. 2020an, gazteek gauza izan behar dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez arintasunez hitz egiteko.
- Lehentasuna ematea unibertsitate-ikasketa teknikoei eta lanbide heziketari, Unibertsitatearen eta enpresa-munduaren arteko harremana indartuz.
- Euskal unibertsitateak indartzea. Horretarako, apustu sendoa egingo da nazioarteko maisutzak eta gradu-ondoko ikasketak ezartzeko.
- Ikasleen eta irakasleen mugigarritasuna sustatzea.
- Lortzea euskal unibertsitateak “TOP 100”era irits daitezen, nazioartean izena duten unibertsitateak eta unibertsitate arin eta modernoak izateagatik, Euskadirekin eta haren erakunde eta enprekin konprometituta egoteagatik, ekimen publikoak eta pribatuak integratzeagatik, kalitatezko prestakuntza eskaintzeagatik eta garrantzi handiko enpresak inplikatzeagatik.

3- Aukera ekonomikoetarako esparru berriak

Gakoak

- ◆ Gaur egungo ekonomian, hiri handiek eginkizun garrantzitsua dute jarduera ekonomikoaren eta sormenaren eragileak izateagatik. Lanbide berrien gorakadak berarekin ekarri du hiriak elkarrekin lehian aritzea aberastasuna sortzen duen eta joerak markatzen dituen klase sozial berri hori erakartzeko.
- ◆ Elite kultural eta ekonomiko berri horrek lanaren etorkizuna markatuko du, eta batera bilduko ditu profesional independenteak, enprekin lotura egonkorra duten *freelance* erako langileak eta enplegatu klasikoak. Mugigarritasun fisikoa eta psikikoa eskatzen du.
- ◆ Hiri irekiak dira, pertsona kualifikatuak eta industria berritzailea erakartzen dutenak, zeren eta unibertsitate-zentro eta ikerketa-zentro garrantzitsuak baitituzte.
- ◆ Ezagutzaren ekonomia globalean erantzukizuna, ikaskuntza eta izpiritu kritikoa saritzen dira. Garrantzia duena berritzailea izateko eta sortzeko gai izatea da. Klase sortzaile berria lan-munduko nomada berriak dira, “mobile professionals” edo “just in time” erako langileak izenez ezagutzen direnak. Izan ere, proiektu zehatzetan esku hartzeko kontratatzen dira.
- ◆ Aisiaren balorazioa edo osasunarengatik kezka bezalako joera handiek beste merkatu eta eskari batzuk sorraraziko dituzte, eta horiek jarduera ekonomikoetarako aukera garrantzitsuak zabalduko dituzte.
- ◆ Hiri berrien urbanizatzeko eta ugaltze progresiobak aukerak sortuko ditu hirietarako eredu iraunkorrak bilatzeko eta behar diren zerbitzuak emateko.

Nazioarteko erreferentziak

Londres

Londresko ekonomia sortzailea urteko % 5 hazten joan da. Hiriburu britainiarrak 200 herrialdeetatik etorritako hiritarrak biltzen ditu. Sektore sortzaileak (arkitektura, publizitatea, eszena-arteak, argitaletxeak) enplegu-sailkapenetan hirugarren postua betetzen du, eta 525.000 langile hartzen ditu. Londresek aktibo handiak ditu; esate baterako, lan indar eleanitza, mundu mailako komunikazio kultural eta sortzailea ahalbidetzen diona.

Londresko alkateak, 2004an, “Creative London” abiarazi zuen, Londresko Garapen Agentziak lideraturiko ekimena. Haren helburua zen hiriaren izen handia aprobatazea mundu mailan sormenaren lidergoaren erdigunea izateko.

Hanburgo

Hanburgok bere burua metropoli intelektual gisa definitzen du. Argitaratzaileak, diseinatzaileak, kazetariak, musikaren munduko enpresaburuak eta abokatuak bizi dira bertan. Alemaniako hiriburu mediatikoa da, eta komunikazioaren arloko 12.000 enpresa biltzen ditu; horiez gainera, telekomunikazioaren arloko 5.000 enpresa daude bertan. Horietan guztietan, 130.000 pertsonak egiten dute lan (*freelance* erako profesionalak alde batera utzita). Hanburgon 9.259 publizitate-agentzia daude, eta haietan 17.000 sortzailek egiten dute lan. Klase sozial berri hori hiriaren luxua da, eta hiriko politikariek ahalegin handiak egiten dituzte kulturaren eta aisiaren arloko azpiegituretan inbertsioak egiteko.

EAJ-PNVren helburuak

- Hiri-bikaintasunari buruzko ikerketa eta aplikazio zentro bat sortzea, esparru horretako euskal enprekin lan egingo duena eta lurraldean aukera berriak sorraraziko dituena; halaber, nazioarteratzeko bide berri bat urratuko du.
- Euskal enpresen eta entitate finantzarioen lehiakortasuna eta kontzentrazioa erraztea, eta laguntza ematea haien premiak asetzeko ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko prozesuetan, horren bidez enpresen gaitasun produktiboari eusteko.
- Teknologiaren eta ikerketaren arloko esparru berriak aztertzea eta definitzea; izan ere, epe ertain eta luzean horiek izango dira ekonomiaren motorrak. Halaber, erabakitasunez, haien aldeko apostua egitea, eta indar guztiak biltzea Euskadi erreferentziako lurraldea izan dadin.
- Lankidetzako publiko/pribatuko sareak bultzatzea, laguntzea eta indartzea, hazkunde ekonomiko indartsua bidera dezaten eta kalitatezko azpiegituren eraikuntza erraztu dezaten, betiere hiritarren eta enpresen sektorearen premien arabera.
- Bultzatzea enpresek, unibertsitateek, zentro teknologikoei eta erakundeek nazioartean eragina duten esparruetan parte har dezaten. Horretarako, bideak jarriko dira kanpora ateratzeko, Euskadiren eta bertako enpresen garapen ekonomiko eta sozialerako aukera gisa hartuta.

4- Euskadi design and digital area

Gakoak

- ◆ Etxebizitzak, lantegiak, bulegoak eta unibertsitateak muga argiak eduki dituzte orain baino lehen, baina iraultza digitala dela medio, gure lurraldeko fluxuak eta korapiloak eraldatzen joan dira. Bidenabar, iraultza digitalak bidea ematen du gizartea modu trinkoagoan eta malguagoan antolatzeko.
- ◆ Sareko lana, ingurune berritzaileen garapena edo lanpostuen berregituratzea, teknologia berriek egungo eta etorkizuneko hirian duten eragina ulertzeko bidea ematen duten erreferentziak dira.
- ◆ Honakoak dira sormena arinago zabaltzeko bidea ematen duten eremuak: artea, diseinua, komunikabideak eta
- ◆ Hori ez da soilik periferiekin lotutako gauza bat; izan ere, gure hirietako bihotzean, teknologia berrietarako leku egokiak badaude, eta aukerako tokiak ere bai. Halaber, sinergiarako bideak, erabileren eta espazioen nahasketa eta balio handiko eraikinak ere badaude. Sormena eta berrikuntza hobeki gauzatu ohi dira nortasuna duten lekuetan, horiek baitira gure gizarteko klase sortzaileak bizitzeko aukeratzen dituenak.
- ◆ Lanaren eta etxebizitzaren arteko erlazioa aldatu da. Denboraren erabilera beste modu batera ulertzen da. Etorkizunean, herritarrak gehiago hurbilduko dira klimarengatik, paisaiarengatik edo giroagatik erakargarriagoak diren tokietara.
- ◆ Ekipamendu komunitarioen eraldaketaren barruan, intranet edo tokiko erkidego digitalak diseinatuko dira.

Nazioarteko erreferentziak

Malasia: “Multimedia-korridore handiaren” garapena eta “Ciberjaya” hiriaren diseinua

Multimedia-korridore handiaren garapena mundu osoan herrialde bat Informazioaren Aroan azkarrago sartzeko garatu den ekimen garrantzitsuenetako bat da. Eremu teknologiko bat da, korridore berde batean kokatua. Korridoreak 15 kilometro ditu zabal eta 50 kilometro luze. Bertan, besteak beste, etxe adimendunen, ikastetxe adimendunen, hiri adimendunen, erkidego adimendunen eta partainer-esparru adimendunen ingurune bat garatu nahi da. Proiektu horren atal bat Ciberjaya hiria da, Kuala Lumpurretik 40 kilometrora dagoena.

Raleigh, Ipar Karolina

Triangelu zibernetiko bat sortu da, eta hartan asmatu da batetik teknologia berriak eta bestetik Estatu Batuetako finantzen sektorearen tradizio ekonomikoa uztertzen.

Dublingo Hub Digitala

Gune edo korapilo digitalaren helburuetako bat da hirian erabiltzen ez zen zati bat – lantegi zaharren eremu bat– berreskuratzea, Etorkizuneko proiektu bat da, informazioaren teknologia berriak garatzen dituzten nazioarteko enpresa-eremu bat ezarri nahi duena. Ekimen publikoa da, berrikuntza, sormena, ikerketa eta ikaskuntza sustatzeko bikaintasun-gune bat sortzeko asmoa duena. Gune horren helburua da komunikazio digitalarekin lotutako enpresak garatzea. Inkubagailuaren eta barneko sarearen kontzeptua, berriz, hiriaren auzo oso batera eraman nahi dira.

EAJ-PNVren helburuak

- Euskal hiriburuetan “sormen-barrutiak” sortzea, jarduera ekonomiko berria sortzeko polo gisa. Talentudun jendea erakartzeko eta bertan errotzeko moduko ingurune erakargarriak sortuko dira, teknologia garatzeko, sormenerako eta ikerketarako.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta Internet derrigorrezko hezkuntzatik erabiliko dira, eta ahalegin berezia egingo da “eten digitala” saihesteko. Azpimarra berezia egingo da udalak, enpresak, landa-eremuak eta gizarte osoa teknologia horietara egokitzeke.
- Lurraldea bikaintasunaren uharte bilakatzea: gaitasuna, teknologia, azpiegitura, legedia, politika eta lehiakortasuna.
- Ingurune adimendunak garatzea: eraikinak, ikastetxeak, hiriak, erkidego adimendunak...
- Gune orokorrak erraztea, eta haietan sareko konexioa bermatzea.

5- Familia eta pertsona adindunak: gizarte kohesioa

Gakoak

- ◆ Familiak gizarte politiken subjektu nagusia dira. Familien premia guztiak ezagutzeak bidea emango du erantzun hurbila, berritzailea eta eraginkorra emateko behar diren prestazio eta zerbitzu egokiak artikulatzeko.
- ◆ Familia gizarte-kohesioaren eta belaunaldien arteko elkartasunaren bermatzaile gisa laguntzea. Familiaren kontzeptua, betiere, zentzu zabalean ulertuko da; alegia, modu desberdinetako familiak, – premiak ere desberdinak dituztenak– daudela ulertuta. Berme hori gauzatuko da jaiotzak sustatuz eta laneko eta familiako bizitzak uztartzea bideratuko duten neurriak abian jarriz gauzatuko da.
- ◆ Gero eta gehiago gertatzen ari da babes soziala ematearen erantzukizuna familiatik eremu publikora aldatzen ari dela. Horren ondorioz, herritarren premia berriak eta eskari zehatzak sortu dira.
- ◆ Aurreko guztiak berarekin ekarri du gizarte zerbitzuak eskubide subjektibo gisa hartzea eta modu horretan finkatzea.
- ◆ Erantzukizun publikoari buruzko diskurtsoaren bilakaeran, oinarria subsidiarotasunaren kontzeptua izatetik familiarekiko osagarritasuna izatera iritsi da.
- ◆ Menpekotasuna dutenei laguntzeko euskal sistema bat sortzea, menpekotasuna duten pertsonen laguntzeko itun sozial batean oinarrituta. Horretarako, berriazko funts bat sortuko da, langileen eta enpresen kotizazioekin finantzatzeko dena.
- ◆ Familietan gertatu diren aldaketak, biztanleriaren zahartzea eta migrazio prozesuak dira herritarren eta gizarte politiken eskariak modu determinantean baldintzatuko dituzten hiru joerak.
- ◆ Teknologia berrien aplikazioa bitarteko bat izango da gizarte babeseko sistemak hobetzeko. Etxebizitza egokituak eta adimendunak sortuko dira eta menpekotasuna duten pertsonen segurtasuna areagotuko da.

Nazioarteko erreferentziak

Europa iparraldeko eredu

Luzaz, eta bereziki hirurogeiko hamarkadan, Suediako Welfare State aurkeztu izan da “hirugarren bidea” deitutakoaren eredu egokienaren gisara. Hirugarren bidea kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko bide bat da, eta ongizatean eta berdintasunean maila gorenak lortu izan ditu, neoliberalismoari uko egin gabe. Ongizatearen estatuaren zabalpena harrotasun eta poztasun iturri bat izan da Suediako gizartearentzat. Oparotasun ekonomikorantz eta gizarte ongizaterantz doan “bide suediarra” prototipo bat izan da beste herrialde batzuentzat zenbait hamaradatan zehar. Gaur egun ereduaren nolabaiteko krisia dagoela esaten ari bada ere, Suedia da Europar Batasunean gizartearen babeserako baliabide gehien bideratzen dituen bigarren herrialdea (8.529 euro 2005ean).

Hona eredu sudiarraren ezaugarria: berdintasun sozioekonomikoaren eta eraginkortasun ekonomikoaren bateragarritasuna eta are elkarren osagarritasuna ere. Hori guztia aurreneurrien gizarte-politika batean gauzatzen da; hain zuzen ere, berdintasuna sustatzeaz gainera, jarduera ekonomikoaren efizientzia determinatzen duen politika bat. Hezkuntzaren eta osasunaren arloko gastuak ezin dira produkzioaren gaineko zamatzat hartu, baizik eta giza-kapitalaren arloko inbertsioz. Sindikatu suediarren tesia izan da epe luzearako hazkunde ekonomikoak eta efinzientzia ekonomikoak berdintasun soziala ekartzen dutela.

EAJ-PNVren helburuak

- Enpresetan lan ordutegiak alda daitezzen sustatzea, lanaldiko orduak bil daitezzen errazteko (horrekin, denbora gehiago eduki ahalko da familia ingurunean egoteko). Hezkuntza sistemako eta enpresa munduko ordutegien koordinazioa sustatzea,
- Seme-alaba baten jaiotzarengatik edo adopzioarengatik baimena urtebetetera arte luzatzea, eta lan baldintza guztiak bermatzea baimen horretaz baliatzen diren pertsonentzat. Baimena ezkontideen artean banatu ahalko da. Bestalde, 0 eta 2 urte arteko hezkuntza lehen hezkuntzaren sarean sartuko da, eskola-postuen eskaintza bermatzeko eta integrazio pedagogikoa errazteko.
- Menpekotasuna duten pertsonak dituzten familiei laguntza emateko zerbitzu integrala sortzea, eta etxeetan pertsonen prestazio ekonomikoak eta zainketa profesionalak bermatzea, beren ingurunean geratu ahal izan daitezzen. Zaintzaileen atsedena ere bermatuko da, etxeko laguntza guztiz garatuz. 80 urtetik aurrerakoentzat prebentzio-araubide bat ezarriko da eta egoitza-postuen eta eguneko zentroen sare bat garatuko da, eskualdeen arabera. Izan ere, eskualde guztietan behar diren postu guztiak bermatuko dira, % 5 eta % 1 bitarteko gutxieneko estaldura-adierazlea erreferentziatzat hartuta.
- Ezgaitasunen bat duten pertsonen bizimodu independentea izateko proiektuak garatzea. Haien bizi-kalitatea eta lan-garapena bermatuko dira, bai eta pertsonarengan zentratutako plangintza bat ere.
- Adindunen parte-hartzea erraztea eta “zahartze aktiboa” sustatzea, garapen pertsonalerako elementu gisa.

6-Gizarteratzerako gutxienekoak bermatzea

Gakoak

- ◆ Euskal gizarteak garapen ekonomiko eta sozial handiak lortu ditu, eta Europar Batasunean garatuen dauden herrialdeetara hurbildu da. Gaur egun ere, krisialdi finantzario eta ekonomikoari aurre egiteko abantaila-egoeran dago; hala eta guztiz ere, pertsona batzuek zailtasunak dauzkate bazterkeriatik edo pobrezia arriskutik ateratzeko; hori dela eta, beharrezkoa da kalitatezko babes sozialaren aldeko apustua egiten jarraitzea.
- ◆ Alargunak dira egoera txarrean dagoen taldeetako bat; izan ere, haien pentsioak, askotan, lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitik daude. Hala eta guztiz ere, kolektibo horren duintasuna dela eta eta, erakundeek ahaleginak egin behar dituzte, haientzat partaide diren gizartean bizitzeko gutxieneko onargarri bat erdieste aldera.
- ◆ Beste gizarte aurreratu batzuetan bezala, Euskadin migrazio prozesu handi bat gertatzen ari da azken urte hauetan. Horrek esan nahi du pertsona ugari Euskadira iristen ari direla bizimodu hobe baten bila. Horrek, askotan, trantsizioaldi konplexuak ekartzen ditu pertsona horientzat; aipatu aldietan, izan ere, pertsona horiek bizi-egoera zailtan aurkitu ohi dira, beren egoera hobetzeko bideak aurkitzen dituzten bitartean.
- ◆ Ezinbestekoa dugu etorkinen kolektiboentzako berariazko harrera-politika bat, integrazioa baino gehiago bizikidetasuna bilatuko duena, enpleguan oinarrituta.

Nazioarteko erreferentziak

Kanada

Immigrazio gehien hartzen duen herrialdeetako bat da, eta jakin du egoera horri integrazioaren bitartez aurre egiten. Sistemari gutxieneko sozialen oinarri bat eman dio, eta horren bitartez normaltasuna eta kultura desberdinekiko errespetua bermatu dira.

Danimarka

Danimarkak, etorkinen kolektiboaren integrazioa lortzeko, enplegu politikak garatu ditu arrakasta handiz, eta jakin du enpleguari buruzko bermeak aplikatzen.

EAJ-PNVren helburuak

- Premia-egoerak irauten duen bitartean, oinarritzko errenta bat bermatzea, baliabiderik ez duten pertsona guztientzako duintasun-tresna gisa. Horretarako, enplegu-politika aktiboak sustatuko dira oinarritzko errenta jasotzen dutenentzat, gizarteratzeko tresna nagusia enplegua dela jotzen baita Alarguntasun pentsioak jasotzen dituztenen kasuan, aurrera egitea, harik eta pentsioak ezkontidearen pentsioaren % 70eraino iristea lortu arte.
- Gizarte languntzak jasotzen dituzten pertsonen gaineko kontroleko eta etengabeko jarraipeneko sistema bat garatzea, eta arlo horretan baliabide publikoen erabilera zuzena bermatzea.
- Enpresen munduan prestakuntza, laguntza eta bitartekaritza programak egitea, praktikak edo lehen kontratazioak egitea lortu arte (enpresaren barreneko kulturen arteko gatazkak ere landuko lirateke).
- Enpresen munduan bitartekaritza lanak egiteko laneratze-ibilbideak garatzea. Lan hori gauzatzeko, honakoak bete beharko lirateke: merkatuaren prospekzioa egin, kontratazio publikoan baldintza sozialak sartu, enplegu-eskaintzak jaso eta eskaintza horien beharkizunei egokitzen zaizkien pertsonak hautatzea; betiere, nabarmendu behar da oso garrantzitsua dela kultur aniztasuna dela-eta enpresetan sensibilizazioa lantzea eta arlo hori ongi kudeatzea.
- Neurri batzuk sartzea laguntza eta lansari sozialak lanerako prestakuntzari eta laneratzeari buruzko programekin lotuta egoteko.

7-Gazteen emantzipazioa

Gakoak

- ◆ Gazteak herrialde guztien etorkizuna dira; hori dela eta, gazteei laguntza ematea gizarte politiken funtsezkoa ardatza da.
- ◆ Gaur egun, gazteek oztopo handiak izaten dituzte emantzipazioa lortzeko, batez ere etxebizitza lortzeko eta kalitatezko enplegua lortzeko dauzkaten arazoengatik.
- ◆ Etxebizitzak garestiak izateak eta ordaintzeko moduko alokairuetan oinarrituriko etxebizitza politika malgu bat falta izateak berekin ekartzen dute gazteak beranduago emantzipatzea.
- ◆ Gainera, gutxieneko dirusarrera batzuen bermea izatea ezinbesteko baldintza da emantzipazioa lortzeko. Hala eta guztiz ere, enpresetan praktikak egiteko ohitura behar bezain errotuta ez egotea eta enplegua ezegonkorra izatea gazteei beren independentzia familiarra lortzeko behar diren bitartekoak ematea zailago egiten duten faktoreak dira.
- ◆ Gazteen enplegua gaizki ordaintuta egoteak eragotzi egiten du emantzipazioa lortzeko banakako proiektuak gauzatzea. Hori dela eta, proiektu partekatuak edo bikote-proiektuak behar dira helburua lortzeko.
- ◆ Ezinbestekoa da alokairua sustatuko duen etxebizitza-politika publiko bat, alokairuko etxebizitzaren merkatua bideragarria egiteko. Politika horretan, etxebizitza-eredu anitz eskaini beharko lirateke.
- ◆ Alokairuko etxebizitzari buruzko politika udalen gaitasun ekonomikoaren eta kudeaketa-gaitasunaren mende egoteak zailago egiten du alokairuko etxebizitza publiko bat gauzatzea.

Nazioarteko erreferentziak

Alemania, Frantzia, Danimarka eta Erresuma Batua

Herrialde horietako gazteen emantzipazioa hiru aldiz handiagoa da Euskadiko gazteena baino; izan ere, Euskadiko gazteak gurasoen etxean geratzen dira. Horretarako arrazoiak ugari dira. Hartara, behin-behinekotasun txikiagoko lan-merkatua izateaz gainera, alokairuko etxebizitzaren eskaintza handia dago. Horrek guztiak berarekin ekarriko du gazteek ekonomikoki bere burua aski izatea.

Baina herrialde horietan, bestalde, gazte-gaztetatik emantzipazioaren kultura hezkuntzaren bitartez sustatzen da. Horren ondorioz, gurasoen etxean urte askotan geratzen diren gazteak sozialki ez daude oso ongi ikusiak. Horretan, lagungarria da herrialde horietan gazteentzako azpiegiturak izatea (esate baterako, ikasleentzako egoitzak eta jantokiak), adinez nagusiak diren unetik edo unibertsitate-ikasketak egiten hasten direnetik gazteek emantzipazioa lortzea ahalbidetzen dutenak.

EAJ-PNVren helburuak

- Etxebizitza publikoen behar adinako parke bat lortzea, malgua, gazteen alokairu-premiei aurre egin ahal izateko eta “alokairuan oinarrituriko mugigarritasun” politika bat sustatzeko. Politika horren arabera, alokairuak bizitzaren etaparen eta familia-ereduaren arabera egokituko lirateke, eta maizterrak ordaindu beharrekoa ez litzateke dirusarreraren % 25a baino handiagoa izango.
- Babes publikoko etxebizitzaren kuota handi bat bermatzea, etxebizitzak eraikitzeko jarduketara guztietan. Bestalde, babes ofizialeko etxebizitzak eta prezio tasatuko etxebizitzak eskaini beharko dira.
- Etxebizitza oinarritzko eskubide bat denez, aukera sortzea udaletan etxebizitzari buruz onesten diren tokiko planen arabera ekipamenduetarako lurzorua direnetan etxebizitzak eraiki ahal izateko.
- Gutxienez ere 3 urteko kontratuak sustatzea beren ikasketak bukatzen dituzten gazteentzat. Urte horietan, beharrezkoa izango da lan merkatuan jarraitu ahal izateko behar duten prestakuntza hartzea. Bide horretan, etengabeko kontratazioa sustatuko da.
- Lanaldi partzialeko kontratuak bideratzea, gazteek enplegua errazago lortu ahal izan dezaten.

8-Bizikidetasunerako hezkuntza

Gakoak

- ◆ Bizikidetasunari buruzko ikaskuntza gazte-gaztetatik bultzatuko da, eta hezkuntza-prozesu osoaren ardatz nagusia izango da. Izan ere, haur hezkuntzatik hasi eta bigarren hezkuntzara bitarteko prestakuntza-ziklo guztia hartuko du.
- ◆ Bizikidetasun harmoniatsuen aldeko hezkuntza gizarteko bizitza gidatzen dituzten balioetan oinarritu behar da: errespetua, demokrazia, elkartasuna, bazterkeriarik eza eta indarkeriarik eza.
- ◆ Honakoak dira era horretako hezkuntza batekin lortu nahi diren helburuak: gizarte modernoetan presente dauden kolektibo desberdinen guztizko integrazioa eta gatazketarako konponbide baketsuak bideratzea.
- ◆ Gaur egungo gizartea konplexua da, eta eskatzen du hura osatzen duten pertsonen gainerako pertsonekin bizitzen jarraitzea, eta, gainera, beste pertsonekin modu egokian jarduteko gaintasunak eta trebetasunak izatea. Horrek guztiak honakoak ekarriko ditu berarekin: auto-estimua handiagoa izatea, indarkeria-ekintza gutxiago gertatzea, enpatia, justiziaren zentzua, heldutasun maila eta herritartasunaren, demokraziaren eta bakearen aldeko balioak eta jarrerak garatzea.
- ◆ Banaka nahiz kolektiboetan gatazkei modu positiboan konponbidea ematen jakitea bilatzen da.

Nazioarteko erreferentziak

Hezkuntza eredu finlandiarra

Finlandiako hezkuntza maila handia da. Nazioartean egiten diren konparazioetan –esate baterako OECDk 2004an egindako PISA txostenean–, Finlandia mundu mailako lehen tokiak betetzen ditu. Nabarmentzekoa da, batez ere, oinarrizko hezkuntzan lortzen duen maila. Irakasleen prestakuntza da gakoetako bat. Finlandian lehen hezkuntzako irakaslea izatera iristeko, Hezkuntzako Master titulua eduki behar da, eta, gainera, 2005etik irakasleen prestakuntza-orduen kopurua handitu da. Bestalde, eskoletan praktikak egiten dira: 800 ordu baino gehiago, hain zuzen. Bigarren hezkuntzako irakasleek beren espezializazioko fakultateetan lortzen dute behar duten prestakuntza, eta gero 1.400 ordu baino gehiagoko ikasketa pedagogikoak egin behar dituzte.

Medellín (Kolonbia)

Musika-eskolen eta musika-banden sarea Medellingo alkatezaren programa bat dira, 1996an sortua: sare horretan hiru mila ikasle baino gehiago daude 26 eskoletan. Eskoletan ikasleek hari- eta haize-instrumentuak jotzen ikasten dute, eta erreperitorio klasiko eta herrikoiko talde eta orkestretan hartzen dute parte. Sareak, bakean oinarrituriko haziak erein dituzte, giza prestakuntzan oinarrituriko hezkuntza proiektu bat eraiki du, indarkeriak jotako erkidegoetan musikaren ikaskuntza sustatzeko. Halaber, beste esparru batzuetara ere iritsi da, eta errespetuzko eta tolerantziako giroak bultzatzen dituztenek jarraitu beharreko ereduak bilakatu da.

EAJ-PNVren helburuak

- Administrazio publikoak kalitate handiko hezkuntza unibertsala bermatzea, gizartearen errespetua eta prestigioa duten irakasleengan oinarrituta.
- Hezkuntzari buruzko ereduak eta planak egonkortzea, eta haiei buruzko adostasun batera iristea. Horren bidez, kalitatezko hezkuntza euskal gizarte berriaren funtsezko zutabeetako bat izango da.
- Ikastetxeetan aldeko giroa izan dadila babestea, hartara bizikidetasun konstruktiboaren praktika bideratzeko. Errespetuzko eta lankidetzazko jarrerak bilatuko dira, eta autoritatearen eta gizartearekiko erantzukizunaren printzipioak bereziki landuko dira.
- Eskola-curriculumetan integratzea bizikidetasun positibo batean behar diren trebetasun pertsonal eta sozialak lortzeko ikaskuntzak; horren bidez, gure ingurunekei erronkei eta arazoei aurre egiteko moduan egongo gara (drogen kontsumoa, sexu-ohiturak, heldutasun pertsonala lortzea...).
- Pertsonen osasuna, ongizatea eta bizitza-luzera hobetzea elikagaien bitartez: hezkuntza osasungarriaren kultura sustatzea eta arriskuko jokabideei aurrea hartzea (esate baterako, drogamenpekotasuna edo gaixotasun benereko eta kutsagarriak).

9- Garapenerako punta-puntako azpiegiturak

Gakoak

- ◆ Punta-puntako azpiegiturak izatea Euskadiren garapen ekonomikorako gakoetako bat da.
- ◆ Azpiegitura fisiko handiak jada eginik daude edo eraikitzen ari dira.
- ◆ Ez ditugu ahaztu behar gure garapenerako funtsezkoak izan diren beste azpiegitura fisiko batzuk: parke teknologikoak (zeinak zabaldu behar baitira, beren gaitasunaren mugan baitaude), unibertsitatea eta kultur azpiegitura handiak.
- ◆ Azpiegitura fisiko horiekin batera, azpiegitura birtualak behar ditugu; hau da, gure garapen ekonomikoa laguntzeko estrategiak; bereziki, hazteko ahalmen handiak dituzten sektore ekonomiko berrien garapena laguntzekoak.
- ◆ Horretarako, zenbait alderdi osagarri landu behar dira. Esate baterako, ikerlariak erakartzea eta talentudun pertsonak bertan geraraztea, berrikuntzaren kulturaren balioak gizarte osoan zabaltzea eta haiei buruzko sentsibilizazioa lantzea, eta ikerketa sustatzea.
- ◆ Guztiz ezinbestekoa da mundu mailan hazkunde-ahalmen handikoak izango direla aurreikusi diren sektoreak bultzatzea; esate baterako, biozientzien eta osasunaren esparruak, energia (biomasa, itsas mugimenduetan oinarrituriko energia...), informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (Internet, banda zabala, wi-fi, lurreko telebista digitala, adminisitrazio birtuala, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarrituriko gizarte sareak). Horretarako, ikerketa-azpiegiturak behar ditugu (unibertsitateetako bikaintasun-guneak), sareak (klusterrak sektore estrategikoetan), mugigarritasun inteligentea eta iraunkorra (poligono, unibertsitate, zentro teknologiko eta konexio intermodaletarako lineak)... Horiek guztiak euskal ekonomiaren lehiakortasuna erraztuko duten elementuak dira.
- ◆ Halaber, areagotu behar dira ezagutzak zentroetan pilatzeko eta talentudun pertsonak erakartzeko eta gerarazteko ahaleginak, eta sarean lankidetzan eta lanean jardun behar da.

Nazioarteko erreferentziak

Singapur, uharte adimendun gisa: sareak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, parke teknologiko espezializatuak eta portu efizientea

Singapurren garapenaren arrakasta, 60ko hamarkadan independentzia erdietsi zuenetik, ikuspegi estrategiko batean du oinarria; izan ere, ikuspegi horrek batera biltzen ditu eraginkortasuna eta lehiakortasun baldintza aldakorretarako egokitzapena. Estatu-hiria garapen ekonomikorako azpiegitura onenaren parean finkatu da, hain zuzen ere honako ardatz hauek erabilia: Singapur “uharte adimendun” gisa ikustea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak lehiakortasun ekonomikorako eragile gisa erabiltzea (esate baterako, sare telematikoak ezar daitezzen bultzatzea, e-Governement deitutakoa edo TradeNet sistema, inportazio eta esportazio prozesuak arintzen dituen).

Singapurrek azken belaunaldiko parke teknologikoen aldeko apustua egin du. Estatu-hiri horren beste ekimen garrantzitsuenetako bat One North proiektua da. One North bioteknologian eta multimedian espezializatutako azken belaunaldiko parke teknologiko bat da, Zaha Hadid izen handiko emakume arkitektoak proiektatua: “Proiektu horren berezitasunetako bat da enpresen, bititokien eta aisia-guneen espazioak fusioko arkitektura batean batzen dituela, eta egoera horrek ideien trukea indartzen duela”.

Singapurreko portua, gaur egun Asiako onenen artean dagoena, tokiko enpresentzako beste laguntza-elementu bat da, kostu lehiakorrek eta zerbitzu puntualagoak eta kalitatea handiagokoak eskaintzen baititu.

EAJ-PNVren helburuak

- Euskadiko Abiadura Handiko Trena, “Y” deitutakoaren bitartez, “euskal trenbide-portua” bilakatzea, eta haren bidez euskal lurraldeetako enpresen eta sektoreen arteko konexioa eta lankidetzara areagotzea.
- Pasaian portu-ingurune berri bat egiteko proiektua guztiz garatzea.
- Parke teknologikoak eta berariazko berrikuntza poloak eraikitzen jarraitzea, epe ertainean etorkizuneko garapen ekonomikoaren gakoa izango diren esparruetan (energia, garraio sistemak eta mugikortasuna, biozientziak, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak...). Bide horretan, hiri-jardueran integrazio hobea bilatuko da, eta “hirigunean” beste zentro batzuk ezarriko dira. Garraio-sare eraginkor bat garatuko da, zentroetako langileen eta bisitarien mugigarritasuna laguntzeko.
- Euskadiren guztizko garapen teknologikorako behar diren azpiegituren aldeko apustua egiten jarraitzea (informazioaren gizartea, teknologiak...).
- Bikaintasunaren Unibertsitatea sortzea, ekimen publiko/pribatua oinarritua, eta garrantzi bereziko enpresen inplikazioarekin.

10- Autosufizientzia energetikoa eta energia berriztagarriak

Gakoak

- ◆ Energia berriztagarriaren kontzepzio berria energia-iturri hibridoetan oinarritzen da (gehienak berriztagarriak, baina iturri anitzekoak: biomasa, energia eolikoa, eguzki-energia, uraren bitartez lorturikoa eta abar). Energiaren biltegitzea eta sorkuntza eskaria duen toki-eremura aldatuko da, eta banaketarako beste sare eta tresna batzuk egituratuko dira.
- ◆ Energia gako-sektorea da Euskadin, daukan bolumenarengatik eta garrantzi estrategikorengatik. Jarduera ekonomikorako oinarritzko inputetako bat izateaz gainera, haren erabilera zuzeneko eragina du gizartearen iraunkortasunean; halaber, garrantzi handiko industria-sektorea da, termino ekonomikoetan aberastasuna sortzen duena.
- ◆ Funtsezkoa da gizarte gisa honako balioak barneratzea: energia aurrezte, erabilera efizientzia, hornikuntzaren bermea, energia berriztagarriak babestea eta nazioarteko erreferentzia izango diren ikerketan, garapenean eta berrikuntzan oinarrituta egotea.
- ◆ Horri dagokionez, batetik energia-politika propio bat diseinatzea eta bestetik Energiaren Euskal Erakundea sortzea lagungarri gertatu dira efizientzia energetikoan eta energia berriztagarrietan oinarrituriko energia-politika bat lantzeko. Izan ere, energia horren helburua da negutegi-efektuko gasen igorpenak gutxitzea eta Kyotoko helburuak lortzea.
- ◆ Energia berriztagarrien arloan, Euskadik industria teknologiko garrantzitsua dauka, batez ere energia eolikoari dagokionez. Gainera, eguzki-energia fotovoltaikoaren eta eguzki-energia termoelektrokoaren arloetan garapen-bideak badaude. Halaber, aukera handiak daude landaketa energetikoak egiteko (algak) eta itsasoaren energiarekin lan egiteko. Ez dugu hidrogenoa ahaztu behar, etorkizuneko sistema energetikoan bere tokia baitu.
- ◆ Efizientzia energetikoarekin loturiko teknologietan funtsezko hiru alderdi biltzen dira: etxebizitza eta hirugarren sektorea, industria eta garraioa.

Nazioarteko erreferentziak

Estatu Batuak

Pennsylvania estatuak legez gutxieneko batzuk ezarri ditu energia berriztagarrien produkzioan eta erabileran, eta Oregon estatua ere aitzindaria da energia berriztagarrietan, bereziki ozeanoko olatuetan oinarrituriko energian, energia eolikoan eta eguzki-energian. Oregongo fabrikazio fotovoltaikoaren (PV) industriak bere buruari erronka bat ezarri dio: 2009rako 600 MW-ko produkzio-gaitasuna gainditzea

Alemania

Alemanian, 2005ean, energia berriztagarriek herrialdeko hornikuntza elektrikoaren % 8 gainditzen zuten. Gobernu Federalaren planen arabera, 2010erako % 13 egingo dute eta 2020rako % 20ra iritsiko dira. Industria horren garrantzi ekonomikoa nabarmen handitu da, eta 2004an 130.000 pertsonei ematen zien lana. Lege batek ezarria du enpresek, energia erosterakoan, lehentasuna eman behar diotela iturri berriztagarriekin sorturiko elektrizitatea erosteari. Beren etxeetan energia sortzen dutenei, berriz, bermatu egiten zaie beren "produktua" 20 urtez prezio finkoekin saldu ahal izango dutela.

Erresuma Batua

Gaur egun, Erresuma Batuan sortzen den energiaren % 23 zentral nuklearretatik heldu da. % 2,3, berriz, iturri berriztagarrietatik. Gainerakoa, azkenik, zentral termikoetatik. Gobernuaren helburua da 2010ean energiaren % 10 iturri berriztagarrietatik lortzea; 2020rako, berriz, % 20 aurreikusi da. 2050erako, azkenik, CO₂ren igorpenak % 50 gutxitu nahi dira. Horretarako 500 milioi libra hitzartu dira energia berriztagarriak garatzeko. Uharteek Europako baliabide eolikoaren % 40 biltzen dute.

EAJ-PNVren helburuak

- Euskal energia esparruaren arloan ikerketa sustatzea, energia berriztagarrien arloan nazioarteko lidergoari eusteko. Aldi berean, erraztasunak ematea euskadi aitzindaria izan dadin energia berriztagarrien inguruko azken teknologien ezarpenean.
- Euskadi energia sortzen duen lurralde gisa finkatzea. Produkzio sistemen aniztasunean oinarrituko da eta energia berriztagarriak bultzatuko ditu energia-eskariaren % 25 energia berriztagarriekin asetzeko, sistema eko-energetikoen bitartez. Horrekin, bioerregaien menpekotasun energetikoa gutxituko da eta Kyoton CO₂ren igorpenak direla eta hartutako konpromisoak beteko dira.
- 2020rako energiaren kontsumoa % 20 gutxitzea.
- Euskadin kontsumitzen den energiaren ahal den kopururik handiena sortzea. Horretarako, iturri berriztagarriei emango zaie lehentasuna eta sortutako energia horren kontsumo arduratsua bultzatuko da.
- Lortzea Euskadi, energiaren ikuspuntutik, lurralde efizientea izan dadin. Garraio-bideetan, erregai fosilen kontsumoa gutxitzea eta auto elektrikoaren, bioerregaien eta hain kutsagarriak ez diren beste teknologia batzuen erabilera sustatzea.

11- Lehen sektorearen kalitatea

Gakoak

- ◆ Lehen Sektoreak balio estrategiko handia du Euskadiko garapen ekonomikoan; hori dela eta, beharrezkoa da haren alde behar diren defentsa-tresna guztiak jartzea, hura indartzeko eta, gainera, egituraren eta egokitzapenaren aldetik dauzkan defizitak berdintzeko. Izpiritu hori Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legean jasota dago.
- ◆ Lehen Sektoreak denbora darama ekonomiaren osotasunean daukan garrantzi espezifikoaren etengabeko galerari aurre egiten. Horren guztiaren arrazoia zenbait faktore dira: besteak beste, produkzio kostuen handitzea (hidrokarburoak) eta nekazariak, abeltzainak eta arrantzaleak beren produktuen truke jasotzen dituzten prezio merkeak. Horrek guztiak ustiatzearen errentagarritasun eskasa eragin du.
- ◆ Gainera, sektore horrek konpontzen zailak diren egiturazko arazoak ere badauzka; esate baterako, arrantzaleen flotaren gutxitzea, arrantza-sektorea berregituratu izatearen ondorioz. Gehiegizko atomizazioak ere berarekin ekarri du zail gertatzea ustiatze txikiarekin eskala handiko ekonomian sartzea.
- ◆ Kalitatearen apustuak eta “Kalitatea” labelako produktuek prezioa eta balio erantsia orekatu nahi izan dituzte, eta baserriaren inguruan eraikitako ustiatze familiarri laguntzen diote.
- ◆ Sektoreko honetako etorkizuneko erronken artean, honakoak azpimarra daitezke: ustiatzeak tamaina handiagokoak izatea, elkartegintza sustatzea eta merkaturatzea eta marketinga hobetzea. Nekazaritza zoruen defentsa, bestalde, berme bat da biodibertsitatearako, paisaiarako eta uraren kalitatearako.
- ◆ Ardogintzaren sektoreak goren uneak bizi izan ditu azken urteetan, modernizazio politika bati esker. Politika hori dela medio, kalitatea indartu da (jatorrizko izendapenak). Halaber, gero eta lotuagoa dago turismoaren sektorearekin, besteak beste nazioartean izen handia duten arkitektoen parte-hartzearen ondorioz (ardandegi berriak eraiki dira eta lehengoak berri, eta horien inguruan aisiarako azpiegiturak ere egin dira: hotelak, spa, jatetxeak eta abar).

Nazioarteko erreferentziak

Frantzia

Lehen sektorea oso produktiboa da, neurri batean ustiatze ertainak unitate handiagotara kontzentratu direlako.

Frantziako produktuen nazioarteko arrakasta handia (esate baterako, Bordeleko, Alsaziako edo Behe Loirako ardoak edo txanpaina) erakundeen babesari eta jatorri izendapenei zor zaie, bai eta zenbait hamarkadatan zehar aurrera eramanez diren merkaturatze eta marketing politika bikainak ere.

Marketingaren gakoak, produktuetan kalitate handia lortzeaz gainera, honakoak izan dira: etiketatara kontu berezia jartzea, pakete erabiltzea eta ustiatze indartzea.

Aldi beran, azpiegitura batzuk eratu dira, sortutako produktuak indartzen eta sustatzen laguntzen dutenak. Hori, bereziki, ardoaren kasuan gertatzen da. Izan ere, ardo-ustiatzeak hotel xarmangarri, jatetxe, museo eta konbentzio-gune bilakatu dira, eta horrekin, produkzio-jarduera bera dinamizatzeaz gainera, kokatuta dauden aldeetako garapen ekonomikoa lagundu dute (mahastigintza Bordel inguruetan; barazkien eta frutaren produkzioa Probenzan; gaztak lurraldearen alde askotan eta abar).

EAJ-PNVren helburuak

- Elikagaien industriaren arloko ikerketa eta berrikuntza sustatzea, merkaturatu produktu berriak merkaturatzeko, gaur egungo produkzio eta merkaturatze eredurako eta baliabide naturalak agortzearen aurkako alternatiba gisa
- Euskadin elikagaiak landu, manipulatu eta saltzeko gune handi bat sortzea, sektorearen bideragarritasunari laguntzeko eta merkaturatzearen aldaketa etengabearen prozesuari egokitua.
- Sektoreko independentzia ekonomikoaren ehunekoak handitzea, profesionalizazioari, espezializazioari eta kalitatez produktuei lagunduz; hartara, funts publikoekiko gehiegizko menpekotasuna gutxituko da
- “Kalitatezko produktuen” merkaturatze indartzea, eta haiek merkaturatu hobeki integratzea. Ekoizle eta kontsumitzaileen harremanak eta ekoizle, prestatzaile eta sukaldarien harremanak hurbilduz.
- Basoak ustiatzeko eredu ekonomiko berriak bideratzea, bioerregaien produkzioan, eraikuntza bioklimatikoan eta “CO2 bankuetako” produkzioan etorkizuneko aukerak aztertuz.

12- Oinarrizko zerbitzu aurreratuen kudeaketa

Gakoak

- ◆ Herritarrek administrazio publikoei egiten dieten lehenbiziko eskakizuna da kalitatezko zerbitzu publikoak izatea beren premiei erantzuteko eta bizi-kalitatea hobetzeko: osasuna, garraioa, segurtasuna edo hornidura bezalako zerbitzuez ari gara.
- ◆ Azken hamarkadetako hazkunde ekonomikoak berarekin ekarri du administrazioek baliabide publiko handiagoak edukitzea eta haiekin zerbitzu publiko nabarmen hobeak eskaini ahal izatea. Halaber, hobekuntzak ekarri ditu kudeaketa publikoan eta aurrerapen teknologikoetan.
- ◆ Hala eta guztiz ere, zerbitzu berrien edo egun daudenen zabalpenaren inguruko eskakizunak etengabeak dira. Horren oinarria halako pertzepzio sozial bat da, zeinak aurreikusten baitu eremu publikoak ia esparru guztiak hartu behar dituela, baita pertsonen, erkidegoen edo entitateen arlo pribatuetan sartzeraino ere.
- ◆ Zerbitzu publiko onak eskaintzea, herritarren bizi-kalitatea hobetzeaz gainera, funtsezkoa da lurralde lehiakorra finkatzeko eta inbertsioak, bisitariak eta aukera berriak erakartzeko.
- ◆ Arlo publikoen eta pribatuen kontzentrazioak, zerbitzu publikoak kudeatzeko eredu mistoekin, emaitza onak eman ditu zerbitzu horiek emateari begira. Edonola ere, horrek ez du esan nahi administrazioak erantzukizunak edo zerbitzuetan esku hartzeko gaitasuna galdu behar dituenik, hautatzen den kudeaketa-eredua gorabehera.

Nazioarteko erreferentziak

Ubiquitous government, Korea e-Government

Gaur egun Hego Korea teknologikoki aurreratuenak diren eta ikuspuntu digitaletik hobekien konektatuta dauden herrialdeetako bat da. Azken urteetan, Hego Koreako gobernuak e-gobernuaren sustapen estrategiko eta aktiboa abiarazi du, herritarrei eskaintako zerbitzuak hobetzeko eta administrazioaren efizientzia areagotzeko.

E-gobernua ezartzeko, Koreako Gobernuak plan zabala garatu zuen, halako errepede-mapa batean oinarritua. Mapa horretan, plana gauzatzeko 31 ekintza definitu ziren. Korean e-gobernua ezartzearen arrakastaren gakoa honakoa izan da: errepede-mapan zehaztutako ekintzak zuzen garatzea. Horren ondorioz, gaur egun, gobernuaren zerbitzu gehienak linean eskaintzen dira.

Egindako ahaleginen ondorioz, Koreak lortu du munduan e-gobernuaren aitzindarietako bat izatea, Janponiaren eta Europako herrialde askoren aurretik.

EAJ-PNVren helburuak

- Osasun publikoaren sistemari eustea, laguntza medikoaren oinarri gisa. Kalitatea eta guztientzako sarbidea bermatzea. Medikuntza pertsonalizatua bultzatzea eta tratamenduak herritarren ezaugarri pertsonalen arabera egokitu ahal izatea.
- Euskadi eremu seguru gisa zaintzea, Ertzaintzaren eta tokiko polizien laguntzarekin. Bikaintasunaren eta berrikuntzaren aldeko ahalegina egingo da.
- “Euskadiko Garraio Operatzailea” eratzea, merkatugaien eta bidaiarien arloan jardun dezan, errepedeetan zein trenbideetan. Garraio sare integral bat eratzea, Euskadin garraiorako “txartel bakarra” eratzuz.
- Hondakin solidoen tratamendurako azpiegituren sare orokor bat sor dadin sustatzea. Erregenerazio irizpideak hartuko dira abiapuntu, hondakin horien gutxitzea eta birziklatzea oinarri hartuta. Aldi berean, saneamendu sarea sendotzea Euskadiko bizileku-eremu guztietan, eta araztegiak sortzea, euskal ibaietako uren kalitatea hobetzeko. Uraren hornidura-sistemen efizientzia handitzea, uraren kontsumo arduratsua sustatuz.
- Erantzukizun pertsonala sustatzea, pertsonengan jokabide zibiko eta arduratsua bultzatzeko, eta zerbitzu publikoen prestazioan kontrolik gabeko eskaria izan dadin saihestea.

13- Garapen ekonomiko, sozial eta pertsonalerako kultura

Gakoak

- ◆ Kultura aberastasun pertsonalerako eta garapen ekonomiko eta sozialerako gakoetako bat da.
- ◆ Garapen ekonomikoa: berezko marka bat eduki behar da barnean zein nazioartean proiektuak egiteko. Kulturaren industria aukera ekonomikoa eta irudiaren esparruko aukera da, zeren eta bidea ematen baitigu irudi berezitua, bakoirra eta alaia emateko, garapen ekonomikoa eta bizi-kalitate handia islatuko dituena. Besteak beste, turismo kulturalaren aldeko apustua egiten dugu.
- ◆ Euskal kulturari buruzko ezagupena indartu behar dugu euskal gizartean, eta kultur ondareari buruzko kontzientzia sortu behar dugu komunikabideen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bitartez, halako ekintza bateratu eta kolaboratzaile batez, non kultur elementuak kudeatzen dituzten erakunde guztiek leku komun bat partekatuko eta eskainiko baitute, gizartearen onerako eta gu ezagutzeko interesa duten munduaren gainerako jendearen onerako. Lortu beharra dago herritarrak harro sentitzea eta euskal kulturaren eta bizimoduaren enbaxadore izatea.
- ◆ Sormen-industrien garrantzia aberastasun ekonomikoaren beste elementu bat da: argitalpena, musika, ikus-entzunezkoak, posta elektronikoa, bideo-jokoa, Internet. Nazioartean duten dimentsioagatik, elementu erabakigarria dira adierazpen askatasunerako, kultur dibertsitaterako eta garapen ekonomikorako. Tokiko gaitasunak eta munduko merkatuetarako sarbidea indartu behar dira elkarte berrien bidez, adituen laguntzaren bidez, prestakuntzaren bidez eta marketingaren bidez.
- ◆ Garapen soziala: kulturak gizarte kohesioa lortzeko balio du. Lortu behar dugu etorkinek euskal kultura ezagutzea eta haietan partaideak izatea, benetan integra daitezen. Lehendabiziko urratsa euskara ikastea da. Eguneroko erabilerarako euskara ikasteak doakoa izan behar du.

Nazioarteko erreferentziak

New York

New York hiriak kultur gaietarako departamentu bat dauka, non hiriko kultur bizitza zirrargarria laguntzen eta garatzen jarduten duten. Departamentu horren xedeetako bat da irabazi asmorik gabeko kultur erakundeek hiriko auzo guztietan sustatzen dituzten kultur jardueren finantzaketa bermatzea.

Kultura hiriri aberastasun handia eman dion sektore bat da. New Yorkeko eskaintza kulturalaren aniztasuna munduko handienetako bat izango da, agian, interes eta gustu guztiak hartzen dituzten jarduerak egiten baitira.

EAJ-PNVren helburuak

- Euskadi arte-sorkuntzarako polo gisa finkatzea, artearen esparruko unibertsitate arloak handituz, "Elkartegi" kulturalen sare bat sendotuz eta enpresa artistiko eta sortzaileen "klusterrak" sustatuz.
- Nazioarteko mugigarritasun plan bat prestatzea, artistak eta kultur kudeatzaileak elkarrekin trukatzeko. Arte ederren, arte eszenikoen eta arte musikalen arloetan, unibertsitate-beken programak garatzea, nazioartean erreferentziakoak izango diren zentro akademikoetan.
- Nazioarteko kultur erakundeak erakartzeko plan bat abian jartzea, Guggenheimen ereduari jarraituz. Hori guztia, Euskadin gaur egun dagoen eskaintzarekin osatuko da.
- Euskal herritarren irakurzaletasun mailak areagotzea, biztanleriaren kultur hobekuntzarako oinarri gisa eta berezko hizkuntzetan lan egiten duten euskal egile eta idazleak ugal daitezen.
- Euskadin, "murgiltze kulturalako" programak ezartzea 18 urteko gazteentzat. Euskadi guztian, urtebetez, kultur kontsumo librea eskainiko da.

14- Ondare kolektiboa eta identitatea

Gakoak

- ◆ Ondare kolektiboak **euskal identitatearen oinarria** izan behar du, **gizarte kohesioaren eta demokraziaren motorra baita**. Eleaniztasunean oinarritu behar da (betiere euskara berariaz zainduz), eta balio berrietan, memoria kolektiboaren sustapenean, kultur ondareari buruzko sentsibilizazio publikoan eta tokiko identitate anitzak batera biltzean.
- ◆ **Kultura despolitizatu** behar da, eta balio eta jokabide demokratikoetan sakondu beharra dago. Protagonismo kulturala herritarrei eta gizarte zibil antolatuari dagokie.
- ◆ Ondare kolektiboa –horixe da lotzen gaituena eta beste lurralde batzuetatik bereizten gaituena– **garapen ekonomikoaren eragingarri** bihurtu behar da. Eduki eta balio ukiezinen industria bultzatu behar dugu. Horretarako, azpiegiturak srotu behar dira ondarea sortzeko eta ondareaz gozatzeko. Bestalde, berariazko politika fiskalak behar dira, ondarea mantendu, defendatu eta hedatzeko, sarean euskal ondarea eta kultura laguntzeko dauden erakundeak koordinatzeko eta publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak areagotzeko. Kultur sorkuntzako eta ondare kulturala zabaltzeko enpresei balio sozial berria eman behar zaie; behar adinako dimentsioa erdietsi behar dute, eta betetzen duten tokia hobetu behar dute nazioarteko proiektzioa jasotzen duten marketing estrategien bitartez.
- ◆ Ondare kolektiboa **barneko eta nazioarteko komunikaziorako tresna gisa**. Elkartasunak bilatu behar ditugu nazioarteko kontzertuan, eta lan publikoa eta pribatua koordinatu behar ditugu.
- ◆ **Globalizazioa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien ahalmena aprobetxatu** behar ditugu, eta ondarea sarearen bitartez eskaini behar dugu. Gure kultur erreferenteen nazioarteko proiektzioa sustatu behar dugu.
- ◆ Berezko marka bat daukagu, eta abiapuntuko abantaila hori aprobetxatu behar dugu. Europan jarraitu beharreko adibide oso egokiak daukagu.

Nazioarteko erreferentziak

Frantzia, Italia eta Erresuma Batua: identitatea eta ondarea motor ekonomiko gisa

Hiru herrialdeek apostua egin dute beren kulturari balioa emateko eta sektore hori ekonomiaren oinarrietako bat bihurtzeko. Kultura baliagarri izan zai “herrialde-marka” bat sortzeko, mundu osoan erraz identifika daitekeena.

Ondarearen zaintza Norvegian

Norvegia herrialde txikia da, gutxi gorabehera Euskadikoa bikoizten duen biztanleriarekin. Tamaina txikikoa bada ere, Norvegiako kultur aniztasuna azken urte hauetan loratu da, eta politika publikoen xedea da talde etniko desberdinak integratzea eta tolerantzia sustatzea.

Norvegiako kultur politikaren beste ezaugarrietako bat da kanpora zabalduta dagoela. Nazioarteko mugigarritasuneko programek artisten eta kultur-kudeatzaileen trukea sustatzen dute, berariaz Europa Iparraldeko Kontseiluaren esparruan (Europa iparraldeko bost herrialdeen –Islandia, Danimarka, Suedia, Finlandia eta Norvegia– eta Feroe, Groenlandia eta Åland uharteetako lurralde autonomoen arteko lankidetzarako parlamentuen arteko antolaketa). Horrelako programek kultur dinamismo handia ahalbidetzen dute.

EAJ-PNVren helburuak

- Ondare kolektiboaren digitalizazioa eta hura sarean eskuragarri egon dadila sustatzea, eta baliabideen euskal datu base bat sortzea, honakoak jasotzeko: ondarea, hizkuntza, kultura, erritoak eta legendak, etnografia, arteak, historia, heraldika... Ondare hori eta bertako kultura sarean zabaltzea.
- Ondare kolektibo partekatuan sakontzea, identitatea, gizarte kohesioa eta demokrazia sakontzeko.
- Gure ondarea eta identitatea esportatzea: euskal ondare kolektiboa nazioarteratzeko eta euskal sortzaileen produktuak jakitera emateko programak. Euskal Etxe Digitala sortzea, euskal edukien eta ondare-ondasunen euskal leihoa, munduari zabaltzen zaiona. Euskadiko kultur enbaxadoreen sare bat sortzea, gure ondarea munduan ezagutzera emateko (nazioartean izen handia duten pertsonekin abiatuta). Euskal enbaxadore horiek globalki konektaturik egongo lirarteke. EITBk euskal identitatearen eta ondare kolektiboaren balioetan eragingarria, batetatzaila, zabaltzaile eta sentsibilizatzailea izaten jarraitu behar du, are indar handiagoarekin ere.
- Taldeko eta sareko lan gehiago. Kultur erakundeen, ondarea zaintzeko erakundeen, artisten, sortzaileen eta kontserbatzaileen arteko koordinazioa indartzea, Museoen, kulturguneen eta ondare kolektiboarekin lotutako euskal esparru desberdinen kultur sareak sortzea, barnean eta nazioartean proiektzio handiagoa izatea bideratzeko.
- Identitatearen funtsa (elkartasuna, errespetua, tolerantzia, lankidetzak) bezalako balioak sustatzea eta identitatearen kontzeptuaren dimentsio soziala indartzeko erkidegoaren konpromisoa sustatzea, Euskadira iritsi berriak diren pertsonak gure errealitate kultural eta linguistikoaren partaide eginez.

15- Euskara Lurraldea

Gakoak

- ◆ Gaur egun, gure planetan, 200 estatu inguru daude, eta uste da hizkuntza biziak 6.000 inguru direla, eta horien erdia desagertzeko prozesuan dagoela. Gero eta joera handiagoa daukagu gaitasun eleaniztun eta kultur aniztun handiagoak bilatzeko, zeren eta eleaniztasuna baliagarria baita beste kultura batzuk ezagutzeko eta dibertsitatea errespetatzeko, gizarte kohesiorako eta bakerako. Hizkuntza erkidegoaren identitate-zeinu garrantzitsuena da, gizateriaren ondare garrantzitsuenetako bat eta mundua ulertzeko modu desberdinen arrazoia.
- ◆ **Euskal identitatearen** zati handi bat hizkuntza propioa izatean datza. Eleaniztasuna sustatzen badugu ere, euskara zaintzen eta defendatzen dugu bereziki, bai eta haren erabilera soziala ere. Horretarako, beharrezkoa da euskara ondare komuna eta partekatua izatea.
- ◆ Gaur egun Euskadin dauden toki-identitate anitzak erakarri eta barneratu behar dira, eta hizkuntza integratzeko eta errotzeko elementu bat izan daiteke. Bakearen aldeko hezkuntza.
- ◆ **Informazioaren eta komunikazioaren teknologien indarra aprobetxatu** behar da euskararen erabilera bultzatzeko.
- ◆ Eleaniztasunaren aberastasuna zaintzearen aldeko kontzientzia kolektibo bat lortu behar dugu. Herritar guztiak zerbitzuetarako sarbidea izango dutela bermatzea. Zein hizkuntzatan mintzatzen diren alde batera utzita, horixe izan beharko litzateke hizkuntza politika ororen oinarritzko helburua.

Nazioarteko erreferentziak

Papúa Nueva Guineakoa, Guatemalako edo **Eritreakoa** bezalako irakaskuntza eredu eleanitzek ongi erakusten dute hizkuntza aniztutan hezteko posiblea izateaz gainera –baita erkidego modestoetan ere– hezkuntzarako aurrekontuak errespetatuz ere egin daitekeela, behin programak abian direnean. Eleaniztasunean oinarrituriko hezkuntza lagungarri gertatzen da munduko Eleaniztasuna zaintzeko eta berarekin ekartzen du hiztunek beren hizkuntzen balioa aitortzea eta haien funtzio sozialak zabaltzea. Gainera, ikasleei aukera ematen die mundua modu desberdinetara ikusteko eta, horrenbestez, egokitze eta ikasteko gaitasun handiagoa izateko. Horrenbestez, kulturaren kontserbazioa indartzen du, ekonomikoki bideragarria da eta emaitza didaktiko oso onuragarriak lortzen ditu, **“Voluntaris per la llengua”** proiektuan etorkinen eta katalan hiztunen bikote linguistikoak osatzen dira. Catalunyako Generalitateko hizkuntza normalizazioko departamentuaren ekimen bat da. Etorkinen pertenezia-borondatea sustatu eta haien identitatea sendotzen du; ikasteko motibazioa sortzen du eta batasun emozionalerako pizgarria da; gizarteratzea errazten du; ikasgelako lana kalean osatzen du; eta hizkuntzaren erabilera soziala bultzatzen du. Proiektuaren oinarria etorri berrien erantzukizuna ez ezik, haiei abegi egiten dieten herritarrena ere bada. Etorkinen gizarteratzea guztion konpromisoa da. **“Asteburuko eskola hungariarrak”** hungariarren erkidegoak Australian aurrera eraman duen neurri bat da, beren kultura zaintze aldera. Eredu horren arabera, erkidego batek bere egiten du adituek babestutako ekimen baten konpromisoa.

EAJ-PNVren helburuak

- Euskara identitatea eta bizikidetasuna indartzen dituen ondare komun eta partekatua izan dadin lortzea. Hizkuntzarekiko atxikimendu boluntarioa sustatzea.
- Euskararen ofizialtasuna lortzea Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa osoan.
- Taldeko lan gehiago eta sareko lan gehiago. Euskararen irakaskuntzaren eta erabileraren arloan diharduten erakundeen arteko koordinazioa indartzea. Teknologia beriak euskara zabaltzeko erabiltzea.
- Euskararen ikaskuntza Euskadiko berezko esparrutik kanpora zabaltzea, eta nazioarteko hizkuntza zentroetan irakats dadin bultzatzea.
- Aisiarako euskarazko eremuak eta aukerak sortzea, hizkuntza hezkuntzaren esparruaz haratago erabil dadin. Hizkuntzaren erabilera soziala sustatzea.

16- Aisiarako eremu berriak

Gakoak

- ◆ “Aisiaren zibilizazio” baterantz goaz, norberaren balorazio pertsonalarengatik eta banakoarengatik, bai eta garrantzi ekonomikoarengatik ere. Izan ere, herrialde garatuetan BPGaren % 20ra ere irits daiteke.
- ◆ Aisia, jarduera kolektibo bat izan badaiteke ere eta eremu sozialetan garatzen bada ere banakako esperientzia bat, norbera asetzekoa edo norbera errealizatzekoa, baina aldi berean, aisiak balio handia dauka maila indibidual eta kolektiboan.
- ◆ Aisiadia lurralde propioa da eta askatasunerako esparru bat, zeren eta buk bilatzen dugun eta nahi dugun jarduera bat baita, eta aske sentitzen gara gure denbora horretan ematen dugunean.
- ◆ Aisiaren kontsumo handia dago, baina aldi berean, kontsumoarekin berarekin nahastu da aisia. Horrek berarekin ekarri du aiaren halako merkantilizazio bat.
- ◆ Kolektibo batzuek aisia ugari eskatzen dute; gazteek esate baterako. Beste batzuk, berriz, orain hasi dira hazten: familiako aisiaren edo adineko pertsonen aisiak ari gara. Azken horri dagokionez, esan beharra dago zaharte aktiboa sustatu behar dela, eta hori bide izugarri egokia izan daitekeela.
- ◆ Euskadin aisiaren kontsumo handia dago, bertako garapen ekonomiko handiaren ondorioz, baina eskasia handia dago aisialdirako eta jardueretarako esparruetan. Horrek esan nahi du eremu horretan hazteko aukera handiak daudela.
- ◆ Kirola egitea eta hura ekitaldi edo gertakari gisa jarraitzea aisiaren elementu bat da, berarekin dakarren gratifikazio pertsonalarengatik. Kirola egiten den kasuetan, gainera, horrek onura argiak ekartzen ditu norberaren osasunerako eta ongizaterako.

Nazioarteko erreferentziak

Melbourne, Australia

Melbourne askotan aipatzen da Australiako lorategi-hiria delako. Hirian parke eta lorategi ugari daude, horietako asko Barruti Finantzariotik hurbil. Oinezkoentzako kaleak eta erdian zuhaitzak dituzten etorbide zabalak dauzka,

Estatu Batuak.

Estatu Batuetan, zinemaren, parke tematikoen eta eremu publikoen inguruan aisiaren industria handi bat sortu da. Haren xedea da herritarren eskakizunari erantzuna ematea. Aisiarekin loturiko jarduerak, zeinetan turismoa ere sartzen baita, BPGaren % 25 egiten dute.

EAJ-PNVren helburuak

- Euskadi arku atlantikoko erreferentziako gune bihurtzea aisiako jardueretan, musikaren eta kultur jardueren bitartez eta eskaintza, eremu eta aisiarako parke berriak sortuz
- Familien eta belaunaldien arteko aisiarako eremuak bultzatzea, familien kohesiorako elementu gisa, elkarrekin egitekoak diren jarduerak susatzen dituenak. Ordutegiak familien premien arabera egokituko dira eta familientzako tarifak eskainiko dira.
- Hiri diseinuetan eremu libre eta zabalak jasotea, haietan aisiako eta kiroleko era guztietako jarduerak gin ahal izatea, familiarekin nahiz taldean.
- Garraio publikoa berariaz planifikatzea, aisiako eta kiroleko eremu eta ekitaldi garrantzitsuetarako sarbidea errazteko.
- Kirola sustatzea, oro har, biztanle gehienentzat, eta horretarako behar diren azpiegiturak eta eremu egokiak eskaintzea.

17- Erakundetze partekatua

Gakoak

- ◆ Euskadiren subiranotasun osoaren bidean, horixe baita EAJ-PNVren politika gidatzen duena, bere txosten politikoan ezartzen denari jarraiki, autogobernuak nabarmen hobetu ditu euskal herritarren bizi kalitatea eta ongizatea.
- ◆ Hala ere, 30 urte eta gero, estatu espainiarreko gobernu desberdinen erabaki politikoei jarraiki, Gernikako Autonomia Estatutuan xedatutako eskumen esparrua ez da garatua izan Estatutuan bertan ezarritako itun politikoa aldebakarki apurtuz eta Eusko Legebiltzarrak 2004ko abenduaren 30ean onartutako Estatutu berria bezelako aukerei betoa jarriz.
- ◆ Itun politikoa berraztertu behar da, halako moduan non marko berri bat eratuko baita, honako printzipioak buruan izango dituen: identitate nazionala, berezitasuna, aldebikotasuna eta Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidearen aitortzea. Hori guztia erakundeetan egonkortasuna emango duten eta Itun Politikoaren alde bakarreko irakurketak eta murrizketak saihestuko dituzten berme egokiekin.
- ◆ Lurraldearen osotasuna: Euskadi osatzen duten erkidego desberdinekiko –hau da, EAE, Nafarroako Foru Komunitatea eta Iparralde– harremanak ezarteko gaitasuna izatea.
- ◆ Kontzertu ekonomikoaren printzipioak politika instituzionalean isladatu, kontzertu politiko baten bidez: Berezitasuna, aldebikoatasuna eta berezko inizatiba printzipioak isladatu behar ditugu Estatuarekiko politika orokorrean eta bereziki autogobernuan.

Nazioarteko erreferentziak

Erabakitzeko eskubidea Kanada-Quebecen

Nazioarteko jurisprudentzia bat badago, Kanadako Auzitegi Gorenak emaniko epaiaren harira, Kanadaren eta Quebecen arteko gatazka politikoaren konponbide demokratikoaren inguruan. Jurisprudentzia horrek jasotzen du herri bezala erabakitzeko eskubidea printzipio demokratiko bat dela.

Printzipio hori Irlandako gatazkari bake-konponbidea emateko oinarria izan da.

EAJ-PNVren helburuak

- Estatus politiko berri bat lortzea, 2004ko abenduaren 30ean Eusko Legebiltzarrean onartutako Estatutu Politikoa oinarritzat izanda eta Kontzertu Ekonomikoaren ereduari jarraituz. Estatutu horrek Euskadiren berezitasun instituzionala bermatuko da, nazio anitzen estatuaren izaeraren arabera. Hartara, Euskadiren eta estatuaren arteko alde bitako bermeen sistema bat finkatuko da, lortutako hitzarmenen urraketa eragotziko duena: Kontzertu Politikoaren sistema berria izango da.
- “Euskal estatu gehiago” izatearen printzipioa gauzatzea, euskal erakundeen ekimen propioa sustatuz, eta bermatuz erakunde horiek politika publiko guztiak gauzatzeko erantzukizuna, pardaidetza eta esku-hartzea izango dutela
- Euskal gizartearen erabakitzeko eskubidea bermatzea, galdeketa moduak edo/eta euskal erakundeen proposamen edo/eta erabaki politikoak aintzatesteko moduak erregulatuz
- Euskal lurralde guztietarako arkitektura instituzional orokor bat proposatzea, gaur egun duten estatutu juridiko-politiko gorabehera, betiere, Nafarroako eta Iparraldeko biztanleen erabakia errespetatuz. Egitura horrek berdintasun-egoeran jarriko ditu bi errealitateak eta Euskal Autonomia Erkidegoa, lurraldeen batasun politikoa lortzeko aukera ere aurrean dela. Lehenengo urrats gisa, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko ,lankidetzarako organo iraunkorra eratzearen aldeko apustua egiten dugu. Iparralderekin “euroerregio” bat sortzeko aurrerapausoak ematea.
- Euskal administrazio desberdinen arteko eskumenen egokitzapena sustatzea, eskumen horiek gauzatzeko bidea emanez oinarrian askitasun eta elkartasun printzipioak dituen sistema baten bitartez.

18- Normalizazio politiko eta soziala bakea lortzeko

Gakoak

- ◆ Giza eskubideen defentsa eta errespetuak zutabe nagusia izan behar du. Zalantzarik gabeko moduan eskatu behar da indarkeriarik ez izatea Euskadiren normalizazio politiko eta soziala lortzeko.
- ◆ ETaren terrorismoa desagertzea lehentasun bat da Euskadiko bizitza demokratikoa berreskuratzeko, eta ezinbesteko puntu bat da bizikidetasun baketsuko edozen proiektu abiarazteko.
- ◆ Inongo helburu politiko ezin izango da lortu indarkeriaren bitartez, eta indarkeria erabiltzen dutenek inolako zilegitasun sozial edo politikorik ez dute.
- ◆ Memoria eta terrorismoaren biktimen aitortzea beharrezko eta funtsezko elementu bat dira Euskadiren normalizazio politiko eta soziala lortzeko.
- ◆ Euskadi herrialde anitza da, eta bertan sentsibiltate politiko eta sozial desberdinak dituzten herritarrak daude. Aniztasuna eta dauden sentsibiltate desberdinak aitortu eta errespetatu behar dira.
- ◆ Herritarren parte-hartzea bakea eraikitzeke eragile gisa.

Nazioarteko erreferentziak

Irlandako bake-prozesua

Irlandako bake-prozesua inspirazio bat da munduan barna dauden antzeko gatazketarako. Nahiz eta egoera guztiak desberdinak izan, elementu unibertsal batzuk badaude nazionalitate, identitate eta estatutasun gaiei buruzko gatazketan.

Irlandako prozesuak Euskadin aplikatu daitezkeen gako batzuk iradokitzen dizkigu. Lehenbizikoa da bakea lortzeko talde armatuek beren indarkeriazko estrategiak bertan behera uzteaz gainera, alderdi demokratikoei konpromiso ausart eta mingarri batzuetara iritsi behar direla. Bigarrena da gatazkan dagoen gizarte baten etorkizuna soilik erabaki daitekeela erkidego-banaketa gaindituko duen benetako adostasun sozial baten oinarriaren gainean. Hirugarrena da nazioarteak egin dezakeen ekarpena prozesuak arrakasta izateko faktore erabakigarria izan daitekeela.

Hegoafrika

Hegoafrikako bake prozesua eta berradiskidetzea ezinbesteko nazioarteko erreferentzia da bakea bilatzeko, daukan dimentsio integral eta berritzailearengatik. Bazterkeriarik gabeko eztabaida politikorekin batera, Hegoafrikako indar politikoak gauza izan ziren egiaren berreskurapena eta indarkeriaren biktimentzako ordaintza integratzeko. Nazioarteko erkidegoak bake-konponbide bat ezinezkoa ikusten zuen arren, Hegoafrikako liderrek erakutsi zuten egoera zailenetan ere adiskidetzeak gaitasun eraldatzailea duela.

EAJ-PNVren helburuak

- ETaren terrorismoa errotik kentzea.
- Indarkeriaren deslegitimazio soziala.
- “Memoria kolektiboko” eta “indarkeriaren biktimen aitortzako” planak finkatzea, bakezko eta bizikidetasunezko giroa ahalbidetzeko.
- “Bakerako hezkuntzako” programa egonkorra finkatzea, giza eskubideen, demokraziaren eta bizikidetasun baketsuaren aldeko sentimendu kolektibo bat sorrarazteko.
- Bizikidetasuneko programen tokiko esparru bat sortzea, indarkeriaren ondorioz sorturiko bazterkeria-giro guztiak gainditu ahal izateko.

19- Gobernantza berria eta herritarren parte-hartzea

Gakoak

- ◆ Demokrazia ordezkatailearen akatsa da herritarren inplikazio gero eta txikiagoa dagoela esparru politikoan.
- ◆ Herritarren parte-hartzea erronka globalei erantzuna emateko bide baten gisara sortzen da, eta gizartearen eskariei behar den bezala erantzuteko herritarrei etengabe kontsulta egitean datza.
- ◆ Euskadiko demokrazia parte-hartzaileak honako helburuak dauzka: gardentasuna, auto-kritika, elkarrizketa, kalitatea, sormena eta berrikuntza. Parte-hartzerako mekanismoak biltzen dituzten eztabaida- eta adostasun-prozesuak lagungarriak izan daitezke gure gizartean negoziazioaren eta kontzertazioaren kultura zabaltzeko.
- ◆ Herritarren parte-hartzeak berarekin dakar herritarren iritzia ezagutzea eta, gainera, hura kontuan izatea eta haren arabera jokatzeko.
- ◆ Gaur egun, teknologia berriek aukera ematen diote administrazio publikoari herritarrengandik hurbilago jarduteko, eta parte-hartzean eta demokrazian oinarrituriko eredu bat garatzeko aukera ematen dute. Gobernu-lanetan teknologia berriak erabiltzeak aukera ematen du administrazio gardenagoa, efizienteagoa eta parte-hartzaileagoa garatzeko.

Nazioarteko erreferentziak

Zuzeneko demorazia Suitzan

Suitzako herriak bi aukera dauzka bere herrialdeko legegintza politikoan esku hartzeko: alde batetik, erreferendum bidez eragotzi dezakete Parlamentuak onetsitako lege batek legezko indarra har dezan; bestalde, herri-ekimenaren bitartez lege proiektu bat edo konstituzio federalaren aldaketa bat proposa dezake.

Suitzako gizartea, gainera, oso pozik dago zuzeneko demokraziaren ereduarekin. Suitzako herritarren % 70k uste du sistema politikoarekiko asetasuna dela bertako herritarrak izateagatik harro sentitzeko arrazoi nagusia. Gai publikoetan inplikazio handiagoa izateak abantaila osagarriak dauzka; esate baterako, denbora gehiago eman ahal izatea jarduera komunaletan, ebasio fiskal txikiagoa eta baliabide publikoen kudeaketa hobea.

Sistemaren alde txar nabarmenena, erabakiak hartzeko prozesuaren mantsotasuna. Edonola ere, Suitzako gizartea negoziatzen eta ituntzen ohituta dago, eta gai publikoetan parte hartzea ahalbidetzen duen ehundura sozial garrantzitsua eraiki du.

EAJ-PNVren helburuak

- Sustatzea administrazioa moderniza dadin, kudeaketa publikoa hobetzeko eta gizartearengana gehiago hurbiltzeko. Teknologia berriak erabiliko dira informaziorako, komunikaziorako, partaidetzarako eta gardentasun publikorako bide gisa.
- Lortzea Euskadiko erakunde-sistema efizientziaren, kalitatearen eta berrikuntzaren eredu izan dadin.
- Herritarrek zuzenean parte hartzeko eta herritarrei kontsultatzeko prozesuak abian jartzea, partaidetzan oinarrituriko demokrazia erreala artikulatzeko.
- Nazioarteko zentro bat sor dadin sustatzea, lidergo politikoa eta demokrazia sustatzeko, haren bidez jardun politikoari eta kudeaketa publikoari prestigioa emateko.
- Erantzukizun Sozial Korporatiboa eta Gobernu Zuzena administrazio publikoen kudeaketa-planetan sartzea, bermatzeko haien funtzionamendu etikoa zuzena izango dela eta ingurumen, ekonomia eta gizarte arloetan arduraz esku hartuko duela.

20- Nazioarteko solaskideak

Gakoak

- ◆ Gero eta irekiagoa den eta elkarrekin lotuagoa dagoen mundu batean, Euskadik, berezko identitatea duen herri bat den aldetik, ahalmena izan behar du kanpora ekonomikoki, sozialki eta kulturalki proiektatzeko. Zuzeneko presentzia eduki behar dugu gure garapenerako estrategikoak diren esparru geografikoetan.
- ◆ Europako politikek eragin zuzena dute euskal gizartean; horenbesterik, gure etorkizuneko garapenerako funtsezkoa da euskal erakundeek presentzia erreala eta eraginkorra edukitzea gure autogobernuan eragina duten Europar Batasuneko erabakietan.
- ◆ Gainera, Europako aberastasun kulturalerako eta sakontze demokratikorako hil ala bizikoa da mugez gaineko eta erregioen arteko lankidetzak bultzatzea Euskadiren eta harekin lotura historiko, sozial, ekonomiko eta kultural garrantziatsuak dituzten hurbileko erregioen artean.

Nazioarteko erreferentziak

Alemaniarren länderekin Europar Batasuneko gaitan duten parte-hartzea

Länderrek Europar Batasuneko parte hartzeko duten eskubidea alde formalek eta edukiaren aldetik aldatu dira integrazio europarraren harira, azken horrek eragina baitu länderren barneko eskumenetan.

Länderrek Bundesrat (Kontseilu Federala) erakundearen bitartez hartzen dute parte Europar Batasunarekin lotutako gaitan. Gobernu Federalak informazio zehatza eta arina ematen dio Bundesrati länderren interesekoak izan daitezkeen Europar Batasuneko proiektuei buruz. Länderren interesak edo eskumenak ukitzen diren neurrian, prozedura batzuk aurreikusten dira; esate baterako, länderrek eztabaidetan parte hartzea, Alemaniak negoziazioetan edukiko duen jarrera zehazte aldera.

Quebec. Canada

Quebecen ordezkariak propioen sare zabal bat garatu du nazioarte mailan munduan estrategikotzat –arrazoi politiko, ekonomiko nahiz kulturalengatik– jo dituen toki guztietan. Egitura horiek Quebecentzat jomugako herrialdeak duen garrantzi erlatiboaren arabera tamaina izaten dute, eta ederki integratu dituzte beren herrialdeko interes sektorialak eta kasuko agentzia edo/eta sozietate publikoak, Quebeci buruzko irudi bakar, uniformea eta koordinatua transmititzeko.

EAJ-PNVren helburuak

- Euskal ordezkariaren sarea burutzea, erreferentziako antolaketa eta erakundeetan, Euskadik kanpoan betetzen duen tokia sendotzeko eta elkartasun instituzional eta ekonomiko egonkorra eratzeko. Euskal profesionalen nazioarteko erakunde eta organismoetan presentzia izan dezaten bultzatzea, eta euskal kirol selekzioen aitoren ofiziala lortzea.
- Euskadik Europar Batasunean zuzeneko presentzia izan dezan lortzea, Europako eraikuntzan ekarpenak egiteko eta parte hartzeko mekanismoak definituz (hauteskunde barrutia, kontseilu eta komiteetan egon ahal izatea...).
- “Euskadi” marka bultzatzea, ETArekin indarkeriaren estigmatizatzetik urrun, euskal gizartearen berezko balioak bil dituzan eta nazioarteko eremuan tokia izatea erraztu dezan.
- Euskadin nazioarteko antolamendu eta erakundearen egoitzak eta ordezkariak jar daitezkeen lortzea, Euskal Herrian presente dagoen sare diplomatikoa zabalduz.
- Gutxienez ere, euskal erakunde guztien aurrekontuaren % 0,7 bermatzea garapenerako lankidetzako programetarako. Konpromiso horretan euskal gizartearen inplikazioa da, kontzientziario eta zabalkunde programen bitartez.

Nazioarteko erreferentziak



Konpromiso iraunkorra:
Alemania eta Singapur
Berdintasuna: Europa iparraldeko herrialdeak

Ituntzea eta lankidetzak:
Europa iparraldeko herrialdeak

Nazioarteratzea: Alemania, Japonia, Estatu Batuak, Kanada, Frantzia, Italia, Txile eta Europako hegoaldea

Partekatutako erakundetzea :
Canada - Québec

Normalizazio politiko eta soziala:
Irlanda eta Hegoafrika

Gobernatzeko era berria eta herritarren parte-hartzea: Suedia

Nazioarteko solaskideak:
Alemania eta Quebec

Hezkuntza eta berrikuntza:
Suedia, Singapur eta India

Enplegua: Danimarka

Etengabeko prestakuntza: Finlandia

Aukera ekonomikoetarako eremuak:
Londres eta Hanburgo

Euskadi design and digital area:
Malasia eta Dublin

Familia: Europa iparraldeko eredia

Gizarte gutxienekoen bermea:
Kanada eta Danimarka

Emantzipazioa: Alemania, Frantzia eta Erresuma Batua

Bizikidetasunerako hezkuntza:
Kolonbia eta Finlandia

Garapenerako azpiegiturak:
Singapur

Energiaren arloko buruaskitasuna:
Estatu Batuak, Alemania eta Erresuma Batua

Lehen sektoreko kalitatea: Frantzia

Oinarrizko zerbitzu aurreratuen kudeaketa: Hego Korea

Garapenerako kultura:
New York

Ondarea eta identitatea:
Frantzia, Italia, Erresuma Batua, Norvegia

Euskara Lurraldea: Nueva Guinea, Guatemala, Eritrea, Catalunya eta Hungaria

Aisiarako eremuak:
Australia eta Estatu Batuak

Erronkak

BERRIKUNTZA

POLITIKA SOZIALAK

IRAUNKORTASUNA

KULTURA

EUSKADI-EUROPA

Zeharkako ardatzak

Berdintasuna

Hezkuntza eta berrikuntza

Konpromiso eutsigarria

Nazio-artekotzea

Kooperazio eta kontzertazio soziala

Lerro estrategikoak

Enplegua errealizazio
personalerako
eta enpresa lehiakorak

Familia eta jende
nagusia:
gizarte-kohesioa

Puntako azpiegiturak
garapenerako

Kultura garapen
ekonomiko, sozial eta
personalerako

Partekatutako
erakundetzea

Trebakuntza
iraunkorrerako
sistema

Gizarteratzeko
gutxiengoen
bermea

Energia-burujabetasuna
eta
energia berriztagarriak

Ondare kolektiboa eta
identitatea

Bakerako normalizazio
Politiko eta soziala

Aukera ekonomikoko
espazio berriak

Gazteak emanzipatzea

Lehenengo sektorearen
kalitatea

Euskara-lurraldea

Gobernatzeko era berria
eta parte hartzea

Euskadi, design
and digital area

Elkar-bizitzarako
heziketa

Oinarrizko zerbitzu
aurreratuen kudeaketa

Aisialdirako
espazio berriak

Nazioa-arteko
mintzakideak

Balioak

Ekintzailletza

Talentoa eta ahalegina
balioestea

Aldaketara moldatzea

Kanpoaldera irekitzea

Networking

Solidaritatea

Izaera-sentimendua

Balioen arabera heztea

Askatasuna

Erantzukizun pertsonala



7. EAJ-PNVren gizarte erantzukizun korporatiboa eta gobernantza zuzena

Hazkundera eta ongizatea

EAJ-PNVrentzat, **Erantzukizun Sozial Korporatiboak (ESK)** eta **Gobernantza Zuzenak** esan nahi dute proiektu baten eraikuntzan aurrera egiten jarraitzea, gure hazkundera eta ongizatea areagotzeko:

“Euskadi aberatsagoa”

Giza kapitalean, ingurunean eta harremanetan inbertitzea

Europar Batzordearen arabera, honako hau da ESK: “beren borondatez erakundeek **ardura sozial eta ingurumenekoak integratzea beren jardunetan eta solaskide desberdinekoko harremanetan**”. Betebehar juridikoetatik haratago joatea esan nahi du, gehiago inbertituz giza kapitalean, ingurunean eta eragile desberdinekiko harremanetan.

Kudeaketarako zeharkako prozesua

Halaber, ESK-k esan nahi du **erakundeak kudeatzeko zeharkako prozesu** bat abiaraztea, halako moduan non jarduera guztietan eta EAJ-PNVren kudeaketa ereduaren bertan ere sartuko baita, modu irankorrean. **Jarduerak, kudeaketa sistemak eta komunikaziorako eta gardentasunerako elementuak** hartzen ditu esparru ekonomiko, sozial eta ingurumenekoan, interesa duten taldeen eskakizunak eta giza eskubidekiko errespetua aintzat hartuta.

Esparru ekonomiko, soziala eta ingurumenekoak

ESKk lau dimentsio dauzka EAJ-PNVrentzat: ingurumena, ekonomia, gizartea eta etika.

Kudeaketa ereduaren ikuspegi berri horrekin, **etengabeko elkarrizketa** bat zabaldu nahi da, interesa duten taldeei informazioa emateko. Horrekin, EAJ-PNVk bere estrategietan **ardura ekonomiko, sozial, ingurumenekoak eta etikoak** sartu nahi dute, haien bidez euskal herritarren hazkundera eta ongizatea hobetzeko. EAJ-PNV erakundeetan esku hartzen duen alderdi politiko bat denez, ESK-k nabarmen eduki behar du osagai **etikoak eta gobernu zuzenaren aldekoa**.

Dimentsio etikoak esan nahi du EAJ-PNVk eta haren orezkari instituzionalek gobernu zuzenaren aldeko konpromisoa hartzen dutela.

Printzipio etikoak eta gobernu zuzenaren aldekoak honakoetan oinarritzen dira: **zabaltasuna, erantzukizuna, parte-hartzea eta koherentzia**. EAJ-PNVko pertsonentzako kode etiko bat bateratu behar da, eta, aldi berean, erakundearen kudeaketaren arloko neurriak argitu behar dira.

EAJ-PNVren konpromisoa da zuzentzen dituen erakundeek pixkanaka Erantzukizun Sozial Korporatiboaren strategiak aplikatzea, eta alderdiaren antolaketan bertan ere aplikatzea.

ESK eta EAJ-PNVren gobernu zuzena

Erantzukizun Sozial Korporatibo konbentzionalak konpromisorako funtsezko hiru arlo jasotzen ditu: **ingurumenekoa, ekonomikoa eta soziala**. EAJ-PNVren erantzukizunak **dimentsio etikoa eta gobernu zuzenarena** sartu behar ditu, erakundeetan diharduen alderdi politiko bat baita, baliabide publikoak kudeatzen dituen eta gizartearekin hartutako konpromisoei eta sorturiko itxaropenei aurre egin behar diena. EAJ-PNVren konpromisoa da zuzentzen dituen erakundeek pixkanaka Erantzukizun Sozial Korporatiboaren estrategia berenganatzea eta alderdiaren beraren antolamenduan sartzea.

Lerro estrategikoak	1. Ingurumenaren arloa	Behar diren neurri guztiak bultzatzea ingurumenaren arloan negutegi efektuko gasak gutxitzeko eta berokuntza globalari aurrea hartzeko. Halaber, baliabide naturalen erabilera arrazionala sustatzea eta gobernu-jardunetik ondare naturala zaintzeko eta garapen iraunkorra lortzeko politikak sustatzea.
	2. Ekonomiaren arloa	Baliabide finantzarioen erabilera efizientea eta erantzukizuneko printzipionetan oinarritutako inbertsio publikoa sustatzea, eta pixkanaka erosteko era arduratsuaren irizpideak erabiltzen hastea. Hazkunde ekonomikoarekiko eta lurraldean enpresak eta negozioak ezartzeko ahaleginetik konpromiso bat dago. Horrek esan nahi du Euskadi atzerrian sustatzea eta sareetan parte hartzea
	3. Gizartearen arloa	Kolektibo desberdinentzako gizarte zerbitzuak hobetzea eta bermatzea, eta ahaleginak egitea aberastasuna birbanatzeko, bazterkeria-egoerak saihestuz. Halaber, berdintasunaren printzipioa bermatu behar da, emakumeak sar daitezen erraztuz eta bazterkeria modu guztiak saihestuz.
	4. Etikaren eta gobernu zuzenaren arloa	Giza eskubideekiko errespetuaren oinarritzko printzipioa abiapuntu hartuta, gobernu zuzenaren aldeko konpromisoa hartzen da. Jokabide-kode bat suposatzen du, eta administrazio publikoen kudeaketan zabalatasuna, gardentasuna, erantzukizuna, parte-hartzea eta eraginkortasuna aplikatzeko banakako konpromisoa eta konpromiso kolektiboa da.

Neurriak

Euskal herritar gehienak pozik daude euskal erakundeekin, eta batzuen kasuan poztasun maila handiagoa da. Baina administrazioen funtzionamenduetan asetatsun hori alderdi negatibo bilakatzen da demokraziaren funtzionamendua baloratzeko garaian: Euskadin % 50 baino gehiago dira horrekin pozik ez daudenak, eta asko eta asko dira Europako erakundeak ezagutzen ez dituztenak.

Hori dela eta, parte-hartze demokratikorako mekanismoak sendotu behar dira euskal erakundeak gobernatzeko garaian, eta subsidariotasun eta proportzionaltasun printzipioak indartu behar dira politika publikoak aplikatzeko orduan. Horrek berarekin ekarriko luke, era berean, herritarren parte-hartzea nahitaez hobetu behar izatea eta erakunde eta antolamendu guztietan gardentasunez jokatzeko, bereziki herritarrengandik urrunen daudenetan edo urrunekotzat jotzen direnetan. Horrekin guztiarekin, gobernantza aldatu beharra dago, eta horrek eragina izango du euskal administrazioetan.

Lanerako lerroak

Erakundeen arteko elkarlanean eta partaidetza sendotu behar dira euskal erakundeen hiru mailetan, politika publikoen plangintza, exekuzioa eta ebaluazioa egiteko garaian.

Gobernu-ekintzen koordinazio orokorreko teknikan aurrea egitea, politika sektorialetan koordinazio efektiboa lortzeko.

Horrek berarekin dakar praktika politikoan herri ekimeneko prozesu politikoetan plangintza berritzailea erabiltzea, gizarte zibilari kontsulta egitea, adostasuna bilatzea edo gatazkei konponbidea ematea, betiere uneoro eragile ekonomiko eta sozialek eta gizarte zibilak politika publikoen diseinuan eta pretaketan **parte har dezaten** bultzatuz.

Gobernu-ekintza normalizatzeko oinarriko metodologia hobetzea, eta hartan sartzea **plangintza** osatzen duten alderdiak.

Antolamendu juridikoaren integrazioan aurrera egitea, **erregulazio** normatiboa behar duten politika publikoak betetzeko.

Gobernu-programetan Europako **Gobernantzaren** Liburu Zurian koordinaziorako metodo irekairi buruz ezartzen diren orientabideak sartzea.

Nazioarteko erreferentziak

Erresuma Batua. Best Value

Jarraibide batzuk eskaintzen ditu erakunde publikoak zerbitzuak ematerakoan etengabe hobetzen joan daitezela. Etengabeko hobekuntzak bilatzen du kostua eta kalitatea bezalako alderdietan orekari eustea.

Best Value bat duen antolamendu orok gauza izan behar du ezaugarri horietako bakoitza nola lortzen duen erakusteko. Are gehiago, ahaleginak egin behar ditu ezaugarri horiek etengabe hobetzen joateko, behar diren alderdietan lehentasunak ezarriz.

Zeharkako ebakera duten hiru gai badaude: baterako lana, aukeren berdintasuna eta garapen iraunkorra. Gai horiek presente egon behar dute eta eragin behar dute Best Valueren lanean, plangintzatik hasi eta garpeneraino eta berrikuspeneraino. Kontzeptu horiek guztiz bere egiten dituen erakunde batek bere zuzendaritzan, plangintza korporatiboan eta plan eratorrietan agertuko ditu, bai eta interesdun taldeekiko kontsultetan, plantillarekiko eta gainerakoekiko komunikazioan, gobernu-kodeetan, baliabideak ezartzerakoan eta praktikak berrikusterakoan ere.

Printzipio etikoak eta gobernu zuzenarenak

Irekitasuna

- Erakundeen funtzionamendu “irekiagoa”.
- Erabaki publikok modu aktibo eta eraginkorrean komunikatzea.
- Oro har, jendearentzat ulergarria den hizkera erabiltzea.

Koherentzia

- Politiken eta ekintzen arteko koherentzia.
- Gobernu-ekintzaren bat datorren ikuspegia. Gobernu-ekintza aurrera eramateko lidergo politikoa eta arduradunen konpromisoa behar dira.

Parte-hartzea

- Herritarrek udal politikaren zikloko fase guztietan duten parte-hartzea indartzea eta eraginkor egitea, erakundeekiko konfiantza sendotzeko.

Erantzukizuna

- Bakoitzak bere jardun-eremuetan daukan eginkizuna argitzea.
- Azalpenak eta kontu-ematea exijitzea.
- Erantzukizuna onartzea.

Eraginkortasuna

- Bilatzen diren emaitzak lortzea, oinarri bikoitzarekin:
 - a) helburu argiak
 - b) exekuzioaren eta, kasua bada, hari buruz metaturiko esperientziaren ebaluazioa.

EAJ-PNVren kargudunek partekatzen dituzten balioak

Zerbitzu publikoaren bokazioa

Solaskide guztiekiko ekitatea eta berdintasunezko tratamendua

Osotasuna

Gainerakoekiko konpromisoa

Hirugarrenekiko errespetuzko jokabidea

Banakako jokabidea eta konpromiso instituzionala

EAJ-PNVko kargudunen banakako jokabide etikoa

- Interesen gatazka
- Bateriaezintasunak lanpostuak betetzerakoan
- Gardentasuna erabakietan
- Gardentasun publikoa antolamendu-gastuetan
- Gardentasun publikoa jasotako dirusarreretan (finkoak eta aldakorrak)
- Zuhurtasuna eta errespetuzko tratua adierazpen publikoetan

Konpromiso instituzionala

- Praktika etiko zuzena bermatzen dituzten neurriak definitzea (politika, barne-gardentasuna, arriskuak eta arau etikoak betetzea, eraginkortasun administratiboa eta abar)
- Eraginkortasuna eta efizientzia saritzen dituzten neurriak
- Administrazio eta sozietate publikoetan kontrol neurriak eta kudeaketaren ebaluazioa areagotzea
- Kontuak azaltzeko betebeharra
- Lehentasunezko informazioa edo informazio eksklusiboa isilpekotasunez erabiltzeko betebeharra
- Zerbitzu publikoaren bokazioa

EAJ-PNVren erantzukizun soziala eta gobernu zuzena

Ingurumenaren arloa

Ekonomiaren arloa

Gizartearen arloa

Etikaren eta gobernu zuzenaren arloa

Printzipio etikoak eta gobernu zuzena

Irekitasuna

Koherentzia

Parte-hartzea

Erantzukizuna

Eraginkortasuna

Erakundeetako EAJ-PNVko kargudunek partekatzen dituzten balioak

Zerbitzu publikoaren bokazioa

Solaskide guztiekiko ekitatea eta berdintasunezko tratamendua

Osotasuna

Gainerakoekiko konpromisoa

Hirugarrenetikiko errespetuzko jokabidea

Banakako jokabidea eta konpromiso instituzionala

EAJ-PNVko kargudunen banakako jokabide etikoa

Konpromiso instituzionala

Neurriak

Interes gatazkak

Bateraezintasunak

Osotasuna

Gardentasuna

Errespetua eta tratu inpartziala

Zerbitzu publikoaren bokazioa



2009ko urtarrilaren 19an EAJ-PNVko EBB-k onartutako "Think Gaur Euskadi 2020" hausnarketa estrategikoa
EAJ-PNV. Ibáñez de Bilbao, 16. 48001 Bilbao - Tfno: +34 94 403 94 00. www.eaj-pnv.eu y www.thinkgaureuskadi2020.com